

**2021EKO MARTIAREN 17KO BATZAR NAGUSIAREN
BATZAR-EGUNKARIA (ITZULPENA)**

**DIARIO DE SESIONES DE LA SESIÓN PLENARIA DE
FECHA 17 DE MARZO DE 2021 (TRADUCCIÓN)**

AURKIBIDEA

Orrialdea

- Batzarra hasi da.....	6
- IDAZKARI jaunak gai-zerrendako lehenengo puntua irakurri dau: “3/2021 Foru Dekretu Arauemailea, otsailaren 3koa, ez-egoiliarren errentaren gaineko zergan, balio erantsiaren gaineko zergan, aseguru-primen gaineko zergan eta ekonomi ihardueren gaineko zergako tarifetan neurri gehigarriak aplikatzeari buruzkoa.”	6
- Ogasun eta Finantzen foru diputatu Iruarrizaga Artaraz jaunak hartu dau berbea	6
- Talde Berezia-Partido Popular Bizkaiako Fernández Angulo batzarkide andreak hartu dau berbea.....	8
- Elkarrekin Bizkaia taldeko Benito Ziluaga batzarkide jaunak hartu dau berbea	9
- Euskal Sozialistak taldeko Álvarez Castrejón batzarkide jaunak hartu dau berbea	9
- EH Bildu taldeko Urkaregi Etxepare batzarkide andreak hartu dau berbea	10
- Euzko Abertzaleak taldeko Arana Requena batzarkide jaunak hartu dau berbea	10
- IDAZKARI jaunak gai-zerrendako bigarren puntua irakurri dau: “COVID-19ren aurkako txertaketa-erritmoa Bizkaiko lurralde historikoan.”	11
- Talde Berezia-Partido Popular Bizkaiako Fernández Angulo batzarkide andreak hartu dau berbea.....	12
- Elkarrekin Bizkaia taldeko Fernández Medrano batzarkide jaunak hartu dau berbea	14
- Euskal Sozialistak taldeko Otermin Eraso batzarkide jaunak hartu dau berbea	15
- EH Bildu taldeko Montes Uña batzarkide jaunak hartu dau berbea	17
- Euzko Abertzaleak taldeko Lamborena Barreras batzarkide jaunak hartu dau berbea	19
- Talde Berezia-Partido Popular Bizkaiako Fernández Angulo batzarkide andreak hartu dau berbea.....	20
- Elkarrekin Bizkaia taldeko Fernández Medrano batzarkide jaunak hartu dau berbea	22

- Euskal Sozialistak taldeko Otermin Eraso batzarkide jaunak hartu dau berbea	23
- EH Bildu taldeko Montes Uña batzarkide jaunak hartu dau berbea	24
- Euzko Abertzaleak taldeko Lamborena Barreras batzarkide jaunak hartu dau berbea	25
- IDAZKARI jaunak gai-zerrendako hirugarren puntua irakurri dau: “BFaren politikak Garapen Jasangarriaren Helburuakaz bat etortea.”	26
- Elkarrekin Bizkaia taldeko Escalante Mesón batzarkide jaunak hartu dau berbea	26
- EH Bildu taldeko Arriola Alzola batzarkide andreak hartu dau berbea	28
- Talde Berezia-Partido Popular Bizkaiako Fernández Angulo batzarkide andreak hartu dau berbea.....	29
- Euskal Sozialistak taldeko Gil Llanos batzarkide andreak hartu dau berbea	31
- Euzko Abertzaleak taldeko Ibernia Belamendia batzarkide andreak hartu dau berbea	32
- Elkarrekin Bizkaia taldeko Escalante Mesón batzarkide jaunak hartu dau berbea	34
- EH Bildu taldeko Arriola Alzola batzarkide andreak hartu dau berbea	35
- Talde Berezia-Partido Popular Bizkaiako Fernández Angulo batzarkide andreak hartu dau berbea.....	36
- Euskal Sozialistak taldeko Gil Llanos batzarkide andreak hartu dau berbea	37
- Euzko Abertzaleak taldeko Ibernia Belamendia batzarkide andreak hartu dau berbea	38
- IDAZKARI jaunak gai-zerrendako laugarren eta bosgarren puntuak irakurri dauz: “Bizkaian metroa 4. eta 5. lineen bidez hedatzen jarraitzeko egitasmoak.” eta “4. eta 5. lineen etorkizuna.”	38
- EH Bildu taldeko Méndez Urigoitia batzarkide jaunak hartu dau berbea	39
- Talde Berezia-Partido Popular Bizkaiako Fernández Angulo batzarkide andreak hartu dau berbea.....	41
- Euskal Sozialistak taldeko Jerónimo Moreno batzarkide jaunak hartu dau berbea	43
- Euzko Abertzaleak taldeko Lerma Mentxaka batzarkide jaunak hartu dau berbea	45

- Elkarrekin Bizkaia taldeko Lobato Pascual batzarkide jaunak hartu dau berbea	47
- EH Bildu taldeko Méndez Urigoitia batzarkide jaunak hartu dau berbea	48
- Talde Berezia-Partido Popular Bizkaiako Fernández Angulo batzarkide andreak hartu dau berbea.....	50
- Euskal Sozialistak taldeko Jerónimo Moreno batzarkide jaunak hartu dau berbea	50
- Euzko Abertzaleak taldeko Lerma Mentxaka batzarkide jaunak hartu dau berbea	51
- Elkarrekin Bizkaia taldeko Lobato Pascual batzarkide jaunak hartu dau berbea	52
- IDAZKARI jaunak gai-zerrendako seigarren puntua irakurri dau: “Adinekoentzako egoitzak.”	54
- EH Bildu taldeko Urkaregi Etxepare batzarkide andreak hartu dau berbea	54
- Elkarrekin Bizkaia taldeko Fernández Medrano batzarkide jaunak hartu dau berbea	56
- Euskal Sozialistak taldeko Campo Prieto batzarkide andreak hartu dau berbea	57
- Euzko Abertzaleak taldeko Inoriza Bustamante batzarkide andreak hartu dau berbea	59
- Talde Berezia-Partido Popular Bizkaiako Andrade Aurrecoechea batzarkide jaunak hartu dau berbea.....	60
- EH Bildu taldeko Urkaregi Etxepare batzarkide andreak hartu dau berbea	62
- Elkarrekin Bizkaia taldeko Fernández Medrano batzarkide jaunak hartu dau berbea	63
- Euskal Sozialistak taldeko Campo Prieto batzarkide andreak hartu dau berbea	65
- Euzko Abertzaleak taldeko Inoriza Bustamante batzarkide andreak hartu dau berbea	65
- Talde Berezia-Partido Popular Bizkaiako Andrade Aurrecoechea batzarkide jaunak hartu dau berbea.....	66
- IDAZKARI jaunak gai-zerrendako zazpigarren puntua irakurri dau: “Dirulaguntzak dituen enpresetan enpleguari eusteko konpromisoa.”	67
- Elkarrekin Bizkaia taldeko Benito Ziluaga batzarkide jaunak hartu dau berbea	68

- Talde Berezia-Partido Popular Bizkaiako Andrade Aurrecoechea batzarkide jaunak hartu dau berbea.....	69
- Euskal Sozialistak taldeko Álvarez Castrejón batzarkide jaunak hartu dau berbea	71
- EH Bildu taldeko Rahona Garay batzarkide jaunak hartu dau berbea	71
- Euzko Abertzaleak taldeko De Luis Zelaia batzarkide jaunak hartu dau berbea	73
- Elkarrekin Bizkaia taldeko Benito Ziluaga batzarkide jaunak hartu dau berbea	74
- Talde Berezia-Partido Popular Bizkaiako Andrade Aurrecoechea batzarkide jaunak hartu dau berbea.....	75
- Euskal Sozialistak taldeko Álvarez Castrejón batzarkide jaunak hartu dau berbea	77
- EH Bildu taldeko Rahona Garay batzarkide jaunak hartu dau berbea	77
- Euzko Abertzaleak taldeko De Luis Zelaia batzarkide jaunak hartu dau berbea	78
- IDAZKARI jaunak gai-zerrendako zortzigarren puntua irakurri dau: “Lehen sektorearen egoera hobetzeko neurriak.”	79
- EH Bildu taldeko Arriola Alzola batzarkide andreak hartu dau berbea	79
- Euskal Sozialistak taldeko Ortiz Zaballa batzarkide jaunak hartu dau berbea	81
- Euzko Abertzaleak taldeko Beitia Zurinaga batzarkide jaunak hartu dau berbea	82
- Talde Berezia-Partido Popular Bizkaiako Andrade Aurrecoechea batzarkide jaunak hartu dau berbea.....	84
- Elkarrekin Bizkaia taldeko Benito Ziluaga batzarkide jaunak hartu dau berbea	85
- EH Bildu taldeko Arriola Alzola batzarkide andreak hartu dau berbea	87
- Euskal Sozialistak taldeko Ortiz Zaballa batzarkide jaunak hartu dau berbea	88
- Euzko Abertzaleak taldeko Beitia Zurinaga batzarkide jaunak hartu dau berbea	89
- Talde Berezia-Partido Popular Bizkaiako Andrade Aurrecoechea batzarkide jaunak hartu dau berbea.....	90
- Elkarrekin Bizkaia taldeko Benito Ziluaga batzarkide jaunak hartu dau berbea	91

- LEHENDAKARI andreak gai-zerrendako bederatzigarren puntua irakurri dau: “Plaza kontzertatuak dituzten egoitzak kudeatzen dituzten enpresek eman beharreko informazioa.” 92
- EH Bildu taldeko Urkaregi Etxepare batzarkide andreak hartu dau berbea 92
- Gizarte Ekintzako foru diputatu Murillo Corzo jaunak hartu dau berbea 92
- EH Bildu taldeko Urkaregi Etxepare batzarkide andreak hartu dau berbea 93
- Gizarte Ekintzako foru diputatu Murillo Corzo jaunak hartu dau berbea 94
- Batzarra amaitu da..... 94

2021eko martiaren 17ko batzarra
goizeko 09:00etan hasi da.

Se inicia la sesión del 17 de marzo
de 2021 a las 09:00 horas.

Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Buenos días, señorías. Poco a poco nos vamos colocando en los asientos. Señor Diputado General, apoderados, diputadas forales Etxanobe Landajueta y Antxustegi Cirarda, buenos días y bien venidos.

Estimados junteros, y a todas las personas que van a seguir la Junta General por streaming, buenos días, bienvenidos y muchas gracias por estar con nosotros.

Y antes de empezar con el orden del día, decir que el señor López Odriozola ha delegado el voto a la señora Ildaria Olangua.

Y dicho esto, primer punto del orden del día, señor Secretario:

El Sr. **SECRETARIO / IDAZKARI** jauna:

1.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

Iniciativa Originaria: Decreto Foral Normativo (Transposición) ([R.E.11/E/2021/0001082](#))

Autor: Diputación Foral de Bizkaia

Asunto: Decreto Foral Normativo 3/2021, de 23 de febrero, de medidas adicionales en el Impuesto sobre la Renta de no Residentes, en el Impuesto sobre el Valor Añadido, en el Impuesto sobre las Primas de Seguros y en las tarifas del Impuesto sobre Actividades Económicas.

Documento

Principal:

([R.E.11/E/2021/0001082](#))

Boletines: [Admisión a trámite](#) (7A)

Expediente: ([11/A/03/0002144](#))

1.- Hurrengo idatziari(ei) buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:

Jatorrizko ekimena: Foru Dekretu Arauemailea (Transposizinoz) ([11/E/2021/0001082SE](#))

Egilea: Bizkaiko Foru Aldundia

Gaia: 3/2021 Foru Dekretu Arauemailea, otsailaren 3koa, ez-egoiliarren errentaren gaineko zergan, balio erantsiaren gaineko zergan, aseguru-primen gaineko zergan eta ekonomi iharduereen gaineko zergako tarifetan neurri gehigarriak aplikatzeari buruzkoa

Dokumentu Nagusia: ([11/E/2021/0001082SE](#))

Aldizkariak: [Izapidetzeko onartzea](#) (7A)

Espedientea: ([11/A/03/0002144](#))

Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: El representante de la Diputación, señor Iruarrizaga Artaraz, tiene usted la palabra.

El Sr. **IRUARRIZAGA ARTARAZ** jaunak: Buenos días a todos. Gracias, Sra. Presidenta.

Danok dakizuen, ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zerga, BEZa eta Aseguru-primen gaineko zerga itundutako zergak dira, eta Estatuak une baxotxean ezarritako arau substantibo eta formalen arabera arautzen dira.

Oin dala urtebete baino gehiago Covidek sortutako pandemia deklarau zantetik, zerga-administrazioak premiazko neurriak hartzen gabiltz, oraindino be murgilduta gagozan krisi honen eragina arintzeko. Gaur Ganbera honetara baliozkotzeko ekarri dogun Foru Dekretu Arauemaile honen bidez, neurri gehigarri batzuk proposatzen ditugu, Estatuak abenduaren 22ko 35/2020 Errege Lege Dekretuan eta Estatuaren Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 30eko 11/2020 Legean hartutako neurrien ildotik.

BEZari jagokonez, 2020ko abenduaren 24tik 2022ko abenduaren 31ra arteko indarraldian, %0ko tasa aplikatuko jake honako gaietara: SARSaren in vitro diagnostikorako produktuen elkarte barruko entreegi, inportazioei eta erosketetara; SARSaren aurkako txertoen entreegi; aurreko puntuakaz lotutako garraio-, biltegi- eta banaketa-zerbitzuetara.

Era berean, 20. urterako, BEZaren araubide sinplifikatua eragiketa arruntakaitik sortutako urteko kuota %20 murriztuko da. Murrizketa hori %35era igongo da turismo, ostalaritza eta merkataritza sektoreakaz lotutako jardueretan. Murrizketok 2021eko lehenengo hiruhilekoko konturako diru-sarreraren kalkuluan be aplikatuko dira.

Ezabatu egiten da 3 urtez Araubide berezi sinplifikatuari eta nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren araubide bereziari uko egiteko ezarritako nahitaezko lotura. Nekazaritzaren, abeltzaintzaren eta arrantzaren araubide berezi sinplifikatua eta araubide berezia aplikatzeko mugak 2021era luzatzen dira. Eta, azkenik, aldatu egiten da edulkoratzaile erantsiak daukiezan edarrietara ezarri beharreko tasa, aurrerantzean %21eko zerga ordaintuko dabe eta.

Ez-egoiliarren errentaren gaineko zergari jagokonez, kapital propioak hirugarrenei lagatzearen ondorioz lortutako interesakaitik eta gainerako etekinakaitiko salbuespena, bai eta establezimentu iraunkor barik lortutako ondasun higigarrien ondoriozko ondare-irabaziak be, Europako Esparru Ekonomikoari buruzko akordioan ezarritakoari egokituko jakoz. Era berean, aldatu egingo da filialek Europako beste herrialde baten bizi diran eta Europako esparru ekonomiko horretan dagozan matrizeei banatutako onurietara buruzko salbuespena.

Aseguru-primen gaineko zerga dala-ta, karga-tasa %6tik %8ra igongo da.

Amaitzeko, tokiko tributuetara jagokonez, eta lurralde erkidean egindako aldaketen ildotik, 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera hasiko diran zergaldietarako, epigrafe edo talde barriak sortu dira Ekonomia-Jardueren gaineko zergaren tarifetan (EJZ), elektrizitatea eta gasa merkaturatzeko jarduerak modu espezifikoa sailkatzeko, orain arte ez dabelako sailkapen hori euki. Gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señor Iruarrizaga Artaraz.

Y a continuación, tal y como acordamos, debemos someter a votación el Decreto Foral Normativo. Por tanto, votos a favor; votos en contra; y abstenciones. Por lo tanto, el resultado es el siguiente: ha habido 37 votos a favor; ha habido 2 votos en contra; y ha habido 9 abstenciones. Por tanto, queda aprobado el Decreto Foral Normativo.

Y a continuación pasamos al turno de explicación de voto. Para ello, tiene la palabra la representante del Grupo Mixto-Partido Popular, señora Fernández Angulo.

La Sra. **FERNÁNDEZ ANGULO** andreak: Eskerrik asko mahaiburu andrea, mahaikideak, jaun-andreok, batzarkideok, batzarkideok, buenos días a todos. Egun on guztioi.

Gai honetan deigarria da, gai-zerrendako beste gai batzuen aldean, gure jarrera finkatzeko eta azaltzeko daukagun denporea. Nik ez dinot besteak be interesgarriak eta garrantzitsuak ez direnik, baina zalantza barik honek bizkaitarren egunerokotasunean eta bizitzan eragin argia dauka. Beraz, ni ahaleginduko naz argi berba egiten azaltzeko zergaitik babestu ditugun beste batzuetan EAJren eta PSEren Foru Gobernuak proposatutako zerga-erabagi batzuk, baina oraingoan ez ditugun babestu.

Eta ez dogu egin, zuek oso ondo dakizuenez, zergak orokorraren igotearen aurka gagozalako. Zergak igote horren kontra gagoz, uste dogulako, gainera, orain ez dala hori egiteko une egokia. Ez dakit zergak igoteko une onik dagoan, baina, zalantza barik, danok jakin behar dogu bizkaitarrak eta gure lurraldeko enpresak eta enpresa txiki eta ertainak arazo larriak daukiezala.

Foru Dekretu Arautzaile honetan sartu diran aldaketak zeintzuk diran azaldu eta zehaztu dira. Hain zuzen be, egoiliarrak ez diranen PFEZko salbuespenak; aldaketak edari azukredunei jagoken BEZean (%10etik %21era); aseguruen primen gaineko zergak handitu egingo dira; aldaketak dagoz, epigrafe barriak energia eta beste hornidura batzuk merkaturatzen dabean enpresen EJZn; 98an liberalizau zan merkaturua, eta urte asko igaro dira hori beharizan hori barik, ezta une egoki barik be esango neuke. Eta egia da dana ez dala txarra foru-dekretu arauemaile honetan, BEZaren %0ko tasa be ezartzen da txertoakaz eta osasun-krisiagaz zerikusia daukien bestelako kontzeptuakaz lotutako kontuetarako.

Laburbilduz, foru-dekretu arauemaileetan ohikoa dan moduan, aldaketa sorta bat, alkarregaz ia zerikusirik ez daukienak, eta, esan dodan moduan, gatxa da hain denpora laburrean azaltzea zergaitik emon dogun kontrako botoa.

Baina nik galdera orokor bat egingo neuskizue aldeko botoa emon dozuen guztiei, eta kontrakoa emon ez dozueno be: zergen igoera hori aberastasuna gehiago banatzeko igoera bat bat da? Gizarte justiziagaz zerikusia daukan zerga igoera bat da? Edo zerga-igoera hori zerga-bilketara begira egindakoa bakarrik da? Jakina, galdera erretorikoa da, argi dago-ta.

Azukredun edarien BEZa igotea, orokorrean, aberastasuna hobeto banatzeko da? Zer gertatzen da, Bizkaiko klase ertainak eta langileek esnea bakarrik edaten dabe ala? Argumentu hori erabiliko dabe gehien daukienei bakarrik igoten jakezala zergak esaten dabenek? Justizia sozialaren eta aberastasuna birbanatzearen erespideari erantzuten deutso aseguru-primakaz zerikusia daukien zergak igotea? Ez al ditugu bizkaitarrok ordaintzen, autonomook bereziki...

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias.

La Sra. **FERNÁNDEZ ANGULO** andreak: Gainera, jarduerari lotutako ondasunak daukiezala?

Bai, mahaiburu andrea, amaituten noa.

Iruzurra eta falazia da zergen igoera hori aberastasuna birbanatzeko eta justizia soziala egiteko erespideen arabera azaltzen dala. Dirua biltzeko helburua besterik ez dauka. Eta erantzukizuna daukie Estatuko Aurrekontu Orokorrak babestu dabean guztiek...

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias, se ha acabado el tiempo.

La Sra. **FERNÁNDEZ ANGULO** andreak: Bizkaitarrentzat onuragarriak ez diren neurriakaz. Mila esker.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias. A continuación, el representante del grupo Elkarrekin Bizkaia, el señor Benito Ziluaga, tiene usted la palabra.

El Sr. **BENITO ZILUAGA** jaunak: Gracias, señora presidenta. Egun on guztioi.

Gure taldekook Foru Dekretu Araugile honen alde bozkatu dogu, erreserba batzukaz dana esan behar bada. Batez be, aseguru-primen gaineko zergaren karga-tasak igoteko une egokia ete dan. Igoera horrek, zeozelan, Europa mailako zergen batez bestekora hurreratzen gaitu, baina beharbada unea ez da egokiena.

Halanda be, Dekretuak beste neurri positibo batzuk be jasoten ditu balantzan. Gure botoa aldekoa izan da, eta, gainera, ez da ahaztu behar Estaduko zuzenbide substantiboak araututako zerga-neurriak be jasoten dituana, eta, beraz, Ganbera honi jagokola aldeko botoa emotea.

Neurri positiboen artean, jakina, Covid-19ren ondorioei aurre egiteko beharrezkoak diran ondasunetarako %0ko tasa, edo txertoen inportazio eta erosketetarako %0ko tasa aitatu behar da, horretara txertaketa eta normaltasuna berreskuratzea bultzatzeko.

Edari azukredunen konsumoaren kontra eragiteko zerga-igoera be nabarmendu behar da. Eta horrek gogora ekarri deust Ganbera honetan hainbeste denpora ez dala euki genduan alkarrizketa, esaten jakunean zergak igotea ez zala ohitura negatiboen kontra (edari azukredunak edo jokia, adibidez) eragiteko neurri bat. Ba hor adibidea.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias, señor Benito Ziluaga. Tiene la palabra el representante del grupo Socialistas Vascos, señor Álvarez Castrejón.

El Sr. **ÁLVAREZ CASTREJÓN** jaunak: Egun on mahaiburu andrea, mahaikideak. Lehenengo eta behin, Foru Aldundiko Exekutiboko kide barriei ondo etorria emon gura deust, eta nire taldetik onena opa gura deutsegu, arrakastarik handiena, guztion arrakasta izango da eta. Aldi berean, gogoan ditugu orain arte gobernu horretako kide izan diranak.

Ekonomia Itunaren esparru juridiko positiboan, Konstituzinoaren Lehen Xedapen Gehigarria da funtsezko elementua, horren arabera babesten eta errespetatzen diralako foru-lurraldeen eskubide historikoak. Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuak funtsezko printzipioa ezartzen dau arlo horretan, eta horren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde historikoetako erakunde eskudunek beren zerga-sistema propioa mantendu, ezarri eta arautu ahal izango dabe.

Espezialidade horren elementu materiala dan aldetik, foru-aldundien zerga-ahal hori baliatzeko, beharrezkoa da Estaduaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko

finantza- eta zerga-izaerako harremanen antolamendu egokia. Hain zuzen be, gaur Ganbera honetan baiezkoto eman deusagun Foru Dekretu Arauemailea, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren, aseguru-primen gaineko zergaren neurri gehigarri buruz, eta Ekonomia Jardueren gaineko Zergaren tarifetako epigrafe edo talde berriei buruz, beharrezkoa da Bizkaiko Lurralde Historikoko araudian zerga itunduak sartzeko, une bakotxean Estatuak ezarritako funtsezko eta formazko arauen arabera arautu behar diralako. Besterik ez. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señor Álvarez Castrejón. Y la representante del grupo Euskal Herria Bildu, señora Urkaregi Etxepare, tiene usted la palabra.

La Sra. **URKAREGI ETXEPARE** andreak: Gracias señora. Presidenta. Buenos días a todos y a todas.

EH Bildu se ha abstenido, y nos hemos abstenido aunque estemos de acuerdo con una serie de medidas que se plantean. Por ejemplo, que en el caso de las pruebas diagnósticas o vacunas para Covid-19 el Impuesto de Valor Añadido sea 0. O subir el IVA de las bebidas azucaradas al 21%. Y también con una serie de medidas que se plantean en torno al régimen simplificado. O el aumento del tipo de gravamen de las primas de seguro del 6% al 8%. Hemos tenido más dudas en el caso del Impuesto sobre la Renta de No Residentes.

Creemos que habría que haber estudiado bien las excepciones que se plantean, pero es verdad que lo que se plantea en este decreto es solo ampliar a varios estados dentro de la Unión Europea. Pero está de por medio, por ejemplo, Liechtenstein, que no está considerado un paraíso fiscal, pero sí en lo que se denomina la lista gris. Es decir, una lista de 47 países que se han comprometido a modificar las normas fiscales que incumplen los estándares de fiscalidad.

De todos modos, el caso es que aquí no podemos hacer nada. No podemos hacer otra cosa que aplicar aquí lo que ha aprobado el Estado. Porque no tenemos la competencia en esos impuestos. Y no podemos, por ejemplo, elevar la tasa de primas de seguros al 10% o plantear otras modificaciones. Y esa falta de competencias ha sido precisamente la base para nuestra abstención. Más de una vez hemos reivindicado en esta Cámara la necesidad de tener la competencia de todos los impuestos. La competencia que nos sirve el Concerto Económico no es suficiente. Necesitamos la competencia para tomar decisiones sobre todos los impuestos, EH Bildu reivindica la soberanía fiscal completa. Y la vía para expresar esa reivindicación, en este caso, ha sido la abstención. Necesitamos más competencias para poder tomar decisiones sobre todos los impuestos. Gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Urkaregi Etxepare. Y tiene usted la palabra el representante del grupo Nacionalistas Vascos, señor Arana Requena.

El Sr. **ARANA REQUENA** jaunak: Señora presidenta, muchas gracias. Buenos días a todos. Hasi aurretik, eskerrak emon gura deusiedaz azken urteotan gugaz lankidetzan ibili diran diputaduei, eta Diputadu andra barriei ondo etorria emon.

Foru Aldundiak defendatutako Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergan, Balio Erantsiaren gaineko Zergan, aseguru-primen gaineko Zergan eta Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren tarifetan neurri gehigarriak hartzeari buruzko otsailaren 23ko 3/2021 Foru

Dekretu negatiboari jagokonez, eta gure taldeak aldeko botoa emon deutsan dala-ta, hau adierazi gura dogu:

Lehenengo idea: gure Autonomia Erkidegoa arautzen dauen Ekonomia Itunak, maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen bidez onartutakoak, 21., 26. eta 32. artikuluetan ezartzen dau ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zerga, Balio Erantsiaren gaineko Zerga eta aseguru-primen gaineko Zerga Estaduak unean-unean ezarritako funtsezko eta formazko arauen arabera arautuko dirala. Hau da, ezin dogu, ez daukagu eurok aldatzeko gaitasunik.

Foru Dekretu Arautzaile honen jatorria dan Estaduko eta Europako araudia azaroaren 17ko 34/2020 Errege Lege Dekretuan laburtu geinke, Enpresa-kaudimena eta energia-sektorea laguntzeko preminazko neurriei buruzkoan, eta BEZaren zerga-arloan. Eta, ondoren, abenduaren 22ko 35/2020 Errege Lege Dekretua onartu zan, turismoaren, ostalaritzaren eta merkataritzaren sektoreari laguntzeko preminazko neurriak eta BEZari eragiten deutsien beste aldaketa batzuk jasoten dituana.

Era berean, BEZaren 0 tasa aplikatzea txertoen eta euroi lotutako beste osasun-produktu batzuen entzegei, inportazinoei, erkidego barruko erosketei eta erantsitako garraio-zerbitzu logistikoei.

Beste alde batetik, Estaduaren 2021erako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 30eko 11/2020 Legeak hainbat neurri hartzen ditu zerga-arloan, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Aergari, BEZari eta Aseguru-primen gaineko Zergari eragiten deutsienak.

Xedapenotan, Ogasuneko diputaduak behar bezala azaldu dituanetan, honakoak azpimarratu geinkez: BEZaren aldi baterako beherapenak, iragarpena egiteko araubide erraztuarekiko derrigorrezko lotura kentzea, kasu batzuetan BEZaren 0 tasa aplikatzea, ez-egoiliarren zerga aldatzea, eta abar.

Edukia ikusita, Foru Dekretu Arautzaile honek izaera desbardina dauka eta Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga-sisteman sartu behar diran hainbat neurri jasoten ditu. Horregaitik guztiagaitik, Foru Aldundiak ahalmena dauka eta onartzera behartuta dago. Horregaitik guztiagaitik, eta segurtasun juridikoa bermatzeko, gure taldeak aitaturako Foru Dekretu Arauemailearen alde bozkatu dau. Gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias, señor Arana Requena. Segundo punto del orden del día.

El Sr. **SECRETARIO / IDAZKARI** jaunak:

2.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

Iniciativa Originaria: Moción derivada de Interpelación ([R.E.11/E/2021/0000860](#))

Autor: Fernández Angulo, Amaya (GM/TB-PPB)

Asunto: El ritmo de vacunación frente al COVID-19 en el territorio histórico de Bizkaia.

Documento Principal: ([R.E.11/E/2021/0000860](#))

Boletines: [Admisión a trámite y apertura del](#)

2.- Hurrengo idatziari(ei) buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:

Jatorrizko ekimena: Itaunetik eratorritako Mozinoa ([11/E/2021/0000860SE](#))

Egilea: Fernández Angulo, Amaya (GM/TB-PPB)

Gaia: COVID-19ren aurkako txertaketa-erritmoa Bizkaiko lurralde historikoan

Dokumentu Nagusia: ([11/E/2021/0000860SE](#))

Aldizkariak: [Izapidetzeko onartzea eta zuzenketa-eskeak aurkezteko epea zabaltzea](#)

[plazo de enmiendas](#) (21A)
Expediente: [\(11/B/20/0002042\)](#)

(21A)
Espedientea: [\(11/B/20/0002042\)](#)

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias. Es el turno de la Juntera que ha presentado la iniciativa, por lo tanto, señora Fernández Angulo, tiene usted la palabra.

Decir que el grupo Elkarrekin Bizkaia presentó una enmienda y que han conseguido la transaccional. Por lo tanto, señora Fernández Angulo, la palabra es suya.

La Sra. **FERNÁNDEZ ANGULO** andreak: Eskerrik asko barriro mahaiburu andrea. Mozino bat planteau da, eta azkenean Elkarrekin Podemos taldeagaz erdibidekoa lortu da.

Guk, funtsean, hiru gai planteetan ditugu. Alde batetik, txertoa bizkortzeko eta txertaketa-erritmoa hobetzeko konpromisoa hartu behar da; bestetik, txertoa ipinten jaken taldeen kontrola hobetzeko behar diran mekanismoak abian jarri behar dira; eta, hirugarren, informazioan gardentasuna izateko beharra, osasun publikoko hezkuntzan hobetzea, eta osasun-langileek zeregin hori eta eginkizun hori garatzeko kopuruak eta baldintzak hobetutea, dana batera.

Hasieratik hasteko, logikoa danez, martiaren 9an bete da urtebete lehenengo neurri murriztaileak hartu behar izan genduzanetik; Gasteizen ikastetxeak, institutuak eta unibersidadeak itxi ziranean. Madrilgo Erkidegoan be erabagi bera hartzeagaz bat etorri zan, birusaren hedapena geldiarazteko.

Gaur, urtebete baino gehiago geroago, 155.000 euskaldun baino gehiago kutsatu dira, eta ia 4.000 persona hil dira. Horrek krisi ekonomikoa be eragin dau, Bigarren Mundu Gerraz geroztik izan dan larriena. Krisi horrek blokeau egin dau mugikortasuna eta nokeatu egin dau ekonomia, eta urteera bakarria txertaketa da, eta, batez be, txertaketa-erritmoa, hori izango dalako, zalantza barik, susperraldi sanitario, ekonomikoa eta sozialerako gakoa.

Baina txertatzea bera erritmoa bizkortu barik ez da alternatiba. Txertaketa-erritmoa ezinbestekoa da, osasun publikoko arrazoiakaitik, giza bizitzen galera murrizteko, baina baita horrek ekonomian dituen ondorioakaitik be. Ekonomiaren martxa pandemiaren bilakaeraren menpe dago guztiz. Gaur egun, ekonomiaren etorkizuna txertoagaz lotuta dago, eta, batez be, txertaketa-erritmoagaz. Adituen arabera, populazioaren %60 edo %70eko immunidtea lortzen daben herrialdeek bakarrik ikusi ahal izango dabe zelan hazten diran beren ekonomiak, eta indar handiagoz suspertu ahal izango dabez okerren dagozan sektoreak, baita konfinamentuak eta murrizketak lasaitu be.

Txertoa jartzen bizkortzeko eskaera argia da leku guztietatik: komunitate zientifikoa, ekonomikoa, enpresaburuen alkarteak eta sindikatuak, eta oposizino politikoaren jarrera ahobatezkoa. Hori dala-ta, geure buruari galdetu behar deusagu zela erantzun daben euskal erakundeek, hori zalako lehentasunen lehentasuna, egin behar genduan gauzarik garrantzitsuena. Bereziki Eusko Jaurlaritzak, baina euskal erakunde guztiek orokorrean.

Txertaketa-kanpaina hasi zanetik eta gaur arte, Euskadi gainerako autonomia-erkidegoen aldean azkenengo agertu da beti. Azkenengo postuan buru izan gara, gurea bezalako erkidego bat, biztanle bakoitzeko osasun-inbertsinoaren aintzindari izanda.

Txertoaren lehenengo dosiak abenduaren 27an heldu ziran. Hasiera bera deskalabrua izan zan, Eusko Jaurlaritzaren inkompetentzia maila gaudituz. Interpelazioan aitatu neban. Lehenengo astean, 31.000 txertotik 5.500 jarri genduzan, agirian ipiniz hasieratik egoera horrek gainez egiten eutsala Osasun Sailari eta Eusko Jaurlaritzari.

Gaur egun, aditu guztiek gomendatutako eta eragile ekonomiko eta sozialek eskatutako abiaduraren aurka, azkenengo jarraitzen dogu txertaketa-prozesuan, gainerako autonomia-erkidegoen aldean. Heldu jakuzan txertoen %66,1 ipini dira, eta horrek Murtziako Erkidegoa baino 6 puntu gorago jartzen gaitu, aurretik doazen erkidegoak baino 14 puntura.

Ezaguna danez, eta pairatu dauenez, Eusko Jaurlaritza hasieratik saiatu zan haize guztien aurka, marea guztien aurka, bakardade osoz, eta gehiengoaren erespidearen aurka, txertoen teoria erreserbista horregaz, izozkailuan gordeteko. Danak dagoz oker, danak Eusko Jaurlaritza izan ezik.

Oin dala gitxi komunikabide baten irakurri dodanez, badirudi konfiantza berreskuratu geinkela kritikek batzuetan efektuak sortzen dabezla, eta erabagi da, egokitzeko estrategia gisa moztarrotu daitekeana, kasu honetan espero daitekeen aldaketaren baten, txerto mota batez bakarrik bada be. Baina horrek agirian ixten dau azkenean presino zientifikoak txertatzeko erritmoa handitzea eragin leikela, halan gertatu da eta. Eta aitortu gura dot azkenengo egunetan zeozelango aurrerapena egon dala.

Baina zer gertatzen da osasunari eta ekonomiari jagokenez galdu dan denporeagaz? Bistan danez, sistematikoki ez da kontuan hartu inokulazio bat, pauta osoa jakina, bizitza babestuegoa dala eta ekonomiaren susperraldian beste urrats bat dala.

Bigarren eta hirugarren puntuak dirala-ta, zuzenean lotuta dagoz txertoa hartzen daben personen informazioa eta kontrola eta herritarren prestakuntza hobetzeko beharrezkoak diren mekanismo horiek abian jartzeagaz. Dana argitzen hasi zan bizkaitarrok jakin genduan, ospital biko zuzendariak, batzuk gauez, txertoak eurentzako zirala erabagi ebela, lehenengo lerroan dagozan osasun-langileek egoera horretaz baliatzeko 12 egun falta ziranean.

Horren ostean, txertaketa-taldeetan egon dan deskontrola etorri da. Euskadin 100 urtetik gorako 731 dagoz, INEren arabera, ez nire taldearen arabera. Halanda be, Osakidetza 100 urtetik gorako 1.800 personari jarri gura eutsien txertoa aste horretan. Alde hori itzela, eta jakina, ez dana justifiketan benetako estadistiketan, ezpada Osasun Sailak, eta, zehatzago, Osakidetza, eukazan badaezpadakoetan. Eta bere datu-basean egozan ehun urtetik gorako 800 lagunak aurkeztu ez ebazanean, fribolizau egin eban, nire ustez arduragabeki, atea zabalik daukiezala esanez. Sailburuordeak esan eban dakigun gauza bakarra dala ez dagozala hemen euren etxeetan biziten, nahiz eta erroldatuta egon eta osasun-txartela euki. Ezinezkoa da erroldatuta egotea, bestela INEren estadistiketan egongo liriteke.

Baina tira, hori ez da gertatu dan gauza bakarra; izan be, txertoa hartu behar daben 90 urtetik gorako personen kopurua ezartzera joan diranean, bardin gertatu da. 90 urtetik gorako 39.000 dagozala uste dabe, baina INEk 31.000 baino ez ditu islatzen. Azken finean, kontrolik eza, koordinaziorik eza, informaziorik eta beharginik eza, eta, batez ere, gardentasunik eza. Eta horreek guztiak ezinbesteko tesnak dira etorkizunean egoera zuzentzeko.

Baina egia da be esango dozuela: hau zergaitik ekarten dozue Batzar Nagusietara? Nik lehengo egunean esan neban, Diputatu Nagusi jauna, Rementeria jauna, LABIko kidea dala, eta guk interes berezia daukagula jakiteko ea, adibidez, Urkullu jaunagaz alkartzen zaranean, martiaren 8an gertatu zan moduan, txertaketan jarraitzen dan politikan aldaketa bat egiteko eskatzen deusazun. Izan be, horrek eragin handia dauka bizkaitarren

artean, eta asko eragiten deustie Foru Sail guztiei, diru-kopuru izugarriak erabili behar dabezalako txarren dagozan Bizkaiko enpresak eta personak erreskatetako. Nik bakarrik espero dot batzar horreek sofako eszena hutsa ez izatea.

Bukatu dot. Guk uste dogu Foru Aldundiak, gero ziur EAJko bozeramaileraren batek esango deuskula: ez daukagu eskumenik. Guk bai uste dogu Diputazio honek zeresana euki leikela, eta uste dogu zuk, Diputatu Nagusi zaran aldetik...

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Vaya terminando Sra. Fernández.

La Sra. **FERNÁNDEZ ANGULO** andreak: Zuk hori bete egin beharko zeunke, bizkaitar guztiok egin geinkizun eskakizuna dala uste dodalako, eta, zalantza barik, talde honek egin egiten deustu. Mila esker.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias señora Fernández Angulo. Y tiene la palabra el representante del grupo Elkarrekin Bizkaia, señor Fernández Medrano.

El Sr. **FERNÁNDEZ MEDRANO** jaunak: Gracias señora Presidenta. Egun on guztioi. Talde Popularrak gaur hona ekarri dauen proposamenak, entzun dogun moduan, hasieran, 3 puntu nagusi eukazan: batetik, txertaketa-prozesua arintzea; bestetik, txertaketa-protokolo eta -prozesuetan gardentasuna eskatzea; eta, hirugarren puntuan, hitzez hitz aitatuten izan ditu egoitza-zentroetako profesional eta erabiltzaileak kontzientziazteko informazio-ekintzak.

Jakina, talde honek alde batera itxiko dau informazioa eskuratzeko gardentasunaren gaia, uste dogulako horren legitimitatea ez dala eztabaidatzekoa be. Izan be, gure ustez informazio hori berehala eskuratzeko moduan egon beharko leuke herritar guztientzat, daukan garrantziagaitik. Oposizino talde bat eskatzera etorri behar izatea berez da erakundeen porrota.

Hori esanda, argi dago bat gatozela gardentasun-eskaera horregaz, halako gaiari buruzko informazioa izanda.

Gure ustez erdigunea edo ekimenaren argudio nagusia dan horretara igaroaz, ez gabilz eskatzean txertaketa arintzeko arintzeagaitik. Gure ustez, proposamena egin dauenak lehen aitatu dituan datuak, hau da, estatu mailako txertaketetan azkenengo bagoian egon izana, prozesu horregaz daagoan erakunde-konpromisoaren erakusgarri esanguratsua da. Era berean, adierazgarria da, gaiari egin deustagun lehenengo zuzenketegaz ikusiko dogun moduan, beharbada ez dagoala esku nahikorik biztanleria immunizatzeke lanean.

Hori esanda, Espainia mailan txertaketaren azkenengo bagoia izateari oin dala gitxi itxi izana, eta hamarren gitxigaitik ganera, inplikazio falta horren adierazgarri da; eta, beste alde batetik, langile faltaren adierazgarri. Zuzenketa bi egin genduzan, bi ekarpen, gure ustez jatorrizko ekimena osatzera datozenak.

Batetik, lan-arazoa dago, eta, bestetik, hezkuntza-kontua. Alde batetik, uste genduan gehiegizkoa zala gai horreetan lanean dabilzan personei aparteko ahalegina eskatzea, lan hori osatu ezik, erizaintzako plantillek daroena gehien baten. Esan dodan moduan, baliteke esku horreek nahikoak ez izatea prozesu honetan hain atzeratuta gagozanean.

Edozelan be, bai euskal osasun-sistema, bai eztabaidatzen gabilzanagaz zerikusia euki leikien alderdi sozial eta soziosanitarioak, nahikoa tensionauta dagoz orain gauzak bizkortzeko eskatzeko. Orduan, azken puntu bat gehitu genduan, Aldundiari proposatzeko gaian inplikaturako erakunde guztiei eskatzeko, modu duinean edo lan-baldintza duinetan kontratau dagiela erizain kopuru nahikoa eta prozesu horretan ibiliko dan jente kopuru nahikoa. Egiten diran akats berak epe ertain eta luzera ez egiteko esaten dogu.

Hori esanda, gure bigarren ekarpena informazino-proposamenagaz lotuta egoan, esan daben moduan. "Profesionalak eta erabiltzaileak kontzientziatzeko informazino-ekintzak eskatzea" izena eukan. Anbizio gitxikoa zala pentsau genduan. Orduan, alde batetik, pentsau dogu profesionali beren lan-protokoloak haltzen jakezala; eta, beste aldetik, familiakoei eta egoitzetako erabiltzaileei zeozelango informazinoa emongo jakela. Orduan, gure ustez aukera ona zan hezkuntza-plan integral bat planteatzeko gai horri jagokonean. Proposamena egin dauen taldeak babes indibidualaz, talde-immunitateaz eta abarrez hitz egiten eban. Beharrezkoa da hezkuntza plan integral bat, osasun publikoagaz lotua. Orientazinoa beste kolektibo edo xede-talde batzuetara zabalduz, erabiltzaile eta profesionaletatik harago, adibidez, ikasleak edo beste kolektibo interesgarri batzuk. Zeozelan Bizkaia prest egon daiten etorkizunean egon daitekeenerako. Badakigu hori forma eta modu desbardineta errepikatzeke itxura daukala.

Edozein kasutan, uste genduan osasun publikoko hezkuntza-plan hori lan interesgarria, handinahia eta osagarria izan eitekeala erakunde komunek eta foru-organoeke beren eskumen espezifikoeetan egin beharreke txertaketa-erritmoa handitzeko eskaera horregaz. Gure ustez, egoki osatzen dau txertaketa-prozesuak areagotzeko eta bizkortzeko hasierako eskaera, eta, beste alde batetik, uste dogu osasun publikoko prebentzinoari, sustapenari eta zaintzari buruzko prestakuntza orokorra eta biztanleria-segmentu desbardineta egokitutakoa interesgarria izan leitekeala, itxuraz erraz desagertuko ez diran egoerei aurre egiteke, eta gure biztanleek, guk, babesten jakin daigun eta zer egoeratan gagozan jakiteke. Zentzu horretan, Talde Popularraren proposamena zuzendu dogu, eta zentzu horretan, lortu dogun transakzionalaren alde bozkatuko dogu. Mila esker.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señor Fernández Medrano. Tiene la palabra el representante del grupo Socialistas Vascos, señor Otermin Eraso.

El Sr. **OTERMIN ERASO** jaunak: Señora Presidenta, señoras y señores, buenos días a todos. Nire aurretik egon den taldeke bozeramailearen berbakaz bat egiten dot, eta ondo etorria emoten deusiet Foru Diputadu barriei. Zorte on bidean.

Talde Berezia-Alderdi Popularrak eta Elkarrekin Bizkaiak, erdibideke lotu dabenez, eskatzen deuskue Bizkaiko Foru Aldundiari konpromisoa eskatzeko, behar diran gai eta kudeaketa guztiak bere gain hartuz, txertaketa-erritmoa bizkortzeko, txertaketa-prozesuko informazinoari eta protokoloari jagokenez erabateke gardentasuna bultzatzeko, eta informazino-ekintzak egiteke, bai langileen artean, bai egoitza-zentroen erabiltzaileen artean, banakako babesari buruzko inmunidatea lortzeko, eta, horrela, banakako babesari lortzeko. Eta horrerri gehitu behar jakoz oraintxe bertan aitatutako barritasun bi: lan-baldintza duinak alor horretan behar egiten daben langileentzat, eta prozesu hori guztia inplementatzea osasun publikoko hezkuntza-plan integral baten bidez.

Arrazoi horregaitik proposamen-egileak, Amaya Fernández andreak, Murillo jaunari egin eutsan interpelazinoan, urtarrilaren 27an, argi geratu ziran, guretzat behintzat, hiru gauza: 33/2011 Osasun Antolamenduko Lege Orokorraren arabera, nori jagokon txertaketa planifikatu, antolatu eta gauzatzea; era berean, argi geratu zan indarrean dagoan

legeriak ez dauela aurreikusten persona bati bere borondatearen aurka txertoa jartzeko aukera, danok daukagulako duintasunerako eskubidea, eta horregaitik legeak agintzen dau baimena emon behar dala gorputzean edozein motatako esku-hartzea egin aurretik; eta hirugarren, argi geratu zan Bizkaiko adinekoen egoitzek urtarrilaren 22an amaitu ebela Covid-19ren aurkako txertoaren lehen dosia emoten, 3 zentrok izan ezik, oraindino gaixoak eukezalako, eta bigarren dosia joan dan otsailaren erdialdean amaituko zala aurreikusten zan.

Era berean, adierazi zan une honetan egoitza-sareko erabiltzaileen %3 inguruk eta profesionalen %20,6k uko egin eutsiela txertoa hartzeari, edo, bestela esanda, erabiltzaileen %97k eta profesionalen ia %80k jada hartua ebela txertoa interpelazinoa egin zanean. Era berean, argi geratu zan Aldundiak ez daukala eskumenik txertaketaren arloan, hori Osakidetza Euskal Osasun Zerbitzuak ezartzen dauen koordinazioaren menpe dago eta; eta horregatik, txertaketa-prozesurako, Bizkaiko Foru Aldundia Osasun Sailaren esku jarri zan, prozesu horretan laguntzeko, behar bezain laster. Beraz, urtarrilaren 27an, adinekoen egoitzetako 230 erabiltzailek uko egin eutsien txertoa hartzeari, eta 95ek ezin izan eben txertorik hartu, alergiakaz edo beste gaixotasun batzukaz bateraezina zalako.

Orduan jakin genduan be bigarren dosia urtarrilaren 17an hasi zala ipinten, eta 29rako sareko 154 zentroetatik 86k bi dosiak jasoko ebezala. Une horretan jakinarazi euskuen, gaixoa eukenen kasuetan izan ezik, espero genduala Pfizer txertoak inmunidade-ondorio guztiak sortuko zituala (%94koa ei da) erabiltzaileentzat otsailaren amaierarako, azkenengo dosiak joan dan hilaren erdialderako planifikatuta egozan eta.

Era berean, menpekotasun handiko zentroeiei jagokenez, erabiltzaileen %86k txertoa jarrita eukela esan euskuen, baina 25 pertsonak, %3k, uko egin eutsien txertoa hartzeari, eta 4k ezin eben txertoa jaso medikuaren aginduaren hainbat errazoiengaitik.

Nahita otsailerako adinekoen eta desgaitasuna daukien personeren zentroetan artalde-immunidadea egongo litzatekeen, Murillo jaunak gogoratu euskun, osasun-agintariek egiten daben moduan, lanean jarraitu beharko litzatekeela infekzioari aurre hartzeko, txertoek ez dabelako kutsatzea eragozten. Era berean, jakinarazi euskun zentro horreetan txertorik hartu nahi izan ez eben profesionalen ehunekoa %20,6koa dala, baina txertaketa oso azkar joiala aurrera. Azkenik, adierazi eban hurrengo kezka euren etxeetan bizi diran menpekotasun handikoen kolektiboa eta zaintzaileak immunizatzea izango dala, eta abian egozala Covid-19ren edozein agerraldi detektatu bezain laster jokabide zehatzak ezartzea ahalbidetuko eben zaintza-, kontrol- eta laguntza-mekanismo guztiak.

Zentzu horretan, joan dan otsailaren 26an, Osasun Sailagaz lankidetzari hasi zan desgaitasuna daukien personeren eguneko zentroetako eta etxebizitzetako erabiltzaileei Pfizer txertoaipinteko, zentro horreetako 55 urtetik gorako profesionalakaz batera. Prozesu hori aste honetan amaituko da.

Eta prebentzioari lotuta, Murillo jaunak nabarmendu eban, prebentziorako PCR-eragile jakokenez, zentro soziosanitarioetako 14.621 profesionalerik egin jakezala, 7.273 eskualdeko dispositiboetan, egunean batez beste 330. Hau da, 22.000 PCR proba prebentibo egin dira, eta 25.000 erreaktibo, gaixoa agertu dalako zantzuren bat dagoanean, eta hori guztia aurtengo urtarrilaren 27an.

Era berean, jakinarazi euskun hainbat motatako 4.000 ikuskapen-jarduera egin dirala 2020ko martitik hona, Aldundiak abian jarritako lan-poltsak 3172 profesional dituala izena emonda, eta 339 hautagai bialdu dirala bajak ordeztzeko eskatu daben 52 zentroetara. Beraz, gaur egun gure egoitza publiko eta/edo itunduetako egoiliarrek txertoa jarrita daukienez, gure egoitzetako txertaketa-erritmoa bizkortzeko eskatzeak ez dauka zentzu handirik, eta txertaketa-prozesuari buruzko datuak emon eta ostean emoteko eskatzeak be ez dauka zentzu handirik, eskatzen dana barriro emoteko bada, hemen aitatu ditut nire azalpenean.

Egoitza-zentro eta -ekipamentuetako langileei eta erabiltzaileei buruzko informazio-ekintzei jatorriarekin, talde-immunitatea lortzeko txertaketa masiboaren beharra dala-ta, nire ustez, txertaketa-prozesua amaitu ondoren, ez dakit zentzu handirik daukan eskatzen jakun kontzientziarazino-ahalegin hori egiteak.

Zer geratzen da? Gauza bi. Osakidetzarena da osasun-arloko eskumena, eta gure Foru Aldunditik alkarlanean jarraitu behar dogu osasun-agintariek eskatzen deuskuen guztian. Horregaitik guztiagaitik, ez deusagu zentzu handirik ikusten Batzar Nagusi gisa honezkero egiten dan zerbait eskatzen jarraitzeari, eta, beraz, ez dogu babestuko gure botoagaz zuzenketa hau, Elkarrekin Bizkaiaiaz lortu dan Arauz Besteko Proposamen edo mozino hau.

Bide batez. Bizi dogun egoeran, ez litzateke sobran egongo gaur arte egindakoari balioa emotea, eta, holan entzuten eta arreta eskaintzen deuskuenei ziurtasuna eta lasaitasuna emotea; izan be, benetan uste dot esaten dana egitea eta egiten dana esatea nortasun-ezaugarria izan beharko litzatekeela politika lantzat daukagun guztiontzat. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señor Otermin Eraso. Y tiene la palabra el representante del grupo Euskal Herria Bildu, señor Montes Uña.

El Sr. **MONTES UÑA** jaunak: Gracias, señora Presidenta. Buenos días a todos, también a los que nos ven por streaming.

Hoy estamos aquí para debatir la moción derivada de la pregunta sobre el ritmo de vacunación contra la Covid-19. En la moción se presentan cuatro puntos para que las Juntas Generales soliciten a la Diputación:

Primero: realizar gestiones para acelerar el ritmo de vacunación.

Segundo: garantizar la transparencia en el proceso de vacunación.

Tercero: informar sobre la necesidad del cambio.

Y cuarto: condiciones laborales dignas para las enfermeras.

Para hablar de estos puntos, no utilicen como excusa las competencias, no digan que hacen lo que pueden, no digan que el ritmo depende de las vacunas recibidas.

Ez gara hain sinpleak izango esateko hile bian herritarren %2ri emon bajeke txertoa, hiruko erregela erraz bat eginez, 100 hilabete beharko liratekela, hau da, 8-9 urte biztanleriaren %100i txertoa ipinteko. Baina aitortu behar dozue txertaketaren erritmoa oso motela dala. Martiaren 13an, hedabideetan titularra irakurri genduan, txertoak Covid-19 desagerrarazi ebala EAEko egoitzetatik. 1.053 persona hil eta ostean. Egunkari horren kalkuluen arabera, inoiz ez da zenbaketa ofizialik egin: 1.052 egoiliar, adinekoak eta langile bat. Pandemian ezagutzen direa 3.912 heriotzen % 27dira. 522 bizkaitar dira, kasu susmagarriak alde batera itxita. Foru Aldundiak eukiko dau zer esan. Hortik aurrera, ez dago datu gehiagorik, ez dago jakiterik adina, gizon-emakumeen arteko proportzinoa. Publikoa da, ordea, zentroetan bertan hil dirala, ospitalera eroan barik.

Behin eta berriro gabilz gure lankidetzaren eskaintzen, bai Eusko Jaurlaritzari, bai Diputazioari, nahita zuek ondo dakizuen zelan baztertu gure eskua. Ez dago gogoratu baino aurrekontuei aurkeztu deusezuzan zuzenketa guztiei uko egin deusezuela.

EH Bilduk plangintza zehatza eskatu du foro guztietan, prozesuen erritmoa ahalik eta gehien bizkortzea eta txertorik ez gordetea. Mozino honen lehenengo puntua da. Horixe esaten da. Benetan, biltegiatze-estrategiak kalte egiten deutso Autonomia Erkidegoari eta, zehatzago, Bizkaiari. Ez kezkatu, ez dogu persona batzuek txertaketan izandako ardurabakokerien gaia aterako; izan be, beteten ebezan karguakaitik, zuek, zuen alderdiek izendatuta, aprobeixau egin ziranak. Sinesgarritasuna berreskuratzeko eskatzen deusuegu.

Prozesua gardena izateagaz bat zatoziela entzun gura deusuegu, zuek izentautako karguok tartean ez sartzeko eta protokoloak beteteko. Hori da interpelazioaren bigarren puntua. Osakidetzari, hemen esan izan da, 800 persona galdu jakoz, eta ez daukiez datuak eguneratuta. Espero daigun Gizarte Ekintza Sailak datuak eguneratuta eukitea. Osakidetzari galdu jakozan datuak, izan leiteke langileak saturauta dagozalako. Benetan ezagutzen dogu euskadi.eus ataria, txertaketa-erritmoei buruzko informazioa emoten dauena. Baina txertaketa-erritmo horreek dira emoten deuskuzuen gardentasun bakarra. Bide batez, ez dago horrelakorik ezer inogaz adostuta.

Hirugarren puntuan, Gizarte Ekintzako diputadu Sergio Murillo jaunak, urtarrilaren 27ko agerraldian, egoitzetan txertorik ez jartzea libreki erabagi eben personen kopurua aitatu eban. Mozino honek prestakuntza-ekintzak eskatzen ditu txertoaren onurak edo kalteak azaltzeko. Ez dau ezer inposatzeko eskatzen.

Zerbitzu publiko indartsua eukiko bagendu, erritmoak handitzeko eskatu geinkean, osasun-langileak estutu barik. Baina oin dala hainbat urtetatik, euskal osasunaren pribatizazioak, eufemismoak eufemismo, kasurako, kanpora ateratea, enpresa laguntzaileakaz kudeatzea eta abar, osasun-zerbitzuetan langilerik ez eukitera garoaz. Zentzu horretan joian Elkarrekin Podemosen transakzioa be.

Esan lei arlo publikoaren aldeko apustuak talka egiten dauela Bizkaiko egoitzakaz be, deitu Hitzarmena edo zuek gura dozuen moduan. EH Bilduk uste dau egoitzen kudeaketa eta titulartasun publikoa Foru Aldundiaren erabagia dala. Egoiliarraz eta egoitzetako profesionalakaz batera, ez ahaztu garbitzaileak, sukaldeak eta jantokiak, podologia, fisioterapia, ile-apaindegia eta osasun-garraioko langileak. Halanda be, biztanleen ehuneko handi bat geratuko litzateke txertoa jarri barik: bizikidetzaren unidateen bisitak, menpekotasun handikoak etxeetan, desgaitasuna daukienak eta zaintzaileak, IFA, etxez etxeko arretaz-zerbitzuak, eguneko egoitzak, etxe bako langileak, adingabeak artatzeko langileak, euretako asko Foru Aldundiagaz hartu-emon zuzena daukienak.

Interpelazio honen puntuetara itzulita, ez dogu zuzenketarik aurkeztu gobernu-taldeagaz erdibidekoa egiten ixteko, gure ustez 4 puntuok guztiz onargarriak izan daitekezalako Aldundi honentzat. Guk uste dogu Gobernu taldea puntu horreek bere gain hartzeko prest badago, EH Bildu prest dago Bizkaian txertaketa hori bizkortzen laguntzeko.

Elkarrekin Podemosen zuzenketak dirala-ta, esan PPren mozinoa zabaltzea dala, eta gure aldetik ados gagoz. Eta laugarren puntua gehitzea, zelan ez gara egongo lan-baldintzak duintzearen alde. Foro guztietan eskatzen gabilz. Mesedez, ez kendu itxaropena Bizkaiko biztanleei.

Y, para terminar, en mi segundo turno les voy a explicar nuestra posición sobre la moción. Pero, por favor, el tema es muy serio. Por favor, hagan las gestiones para agilizar el ritmo de vacunación. Hagan a favor de la transparencia en el proceso de vacunación. Den información sobre el trabajo de vacunación. Y garanticen unas condiciones laborales dignas para las enfermeras. Gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señor Monte Uña. Y tiene la palabra el representante del grupo Nacionalistas Vascos, señor Lamborena Barreras.

El Sr. **LAMBORENA BARRERAS** jaunak: Gracias señora Presidenta y buenos días a todos.

Talde Berezia-Alderdi Popularrak eskatuta, eta Elkarrekin Bizkaia taldeagaz azkenengo orduan erdibidekoa lortuta, urtarrileko Kontrol Osoko Bilkuran egindako interpelazio baten ondoriozko mozino bat aurkeztu da gaur Legebiltzar honetan, Covid-19ren aurkako txertaketa-prozesuagaz lotuta. Osoko Bilkura horretan, Gizarte Ekintzako diputaduak, Murillo jaunak. era guztietako azalpenak emon ebazan, baina goiz haretako hitzaldiaren lehenengo zatia azpimarratu gura dot, eskumen-eremuari buruzko zatia, hain zuzen be, hori dalako mozino honi guk ezezko botoa emoteko errazoi nagusia.

Txertaketaz gabilz berbaz, eta osasunaz gabilz berbaz. Bizkaia arlo horretan Osasun Sistema Nazionalaren Lurralde arteko Kontseiluaren eta Eusko Jaurlaritzaren esanetara dago. Autonomia Estatutuak dino Euskadiri jagokola barruko osasunaren arloan Estaduko oinarrizko legeria lege bidez garatzea eta betearazotea. Euskadik 87. urtearen amaieratik dauka transferiduta osasunaren eskumena, eta 88. urtearen hasieratik dago indarrean. 33/2011 Legeak dinoanez, administrazio publikoek, beren eskumenen esparruan, lehenengo mailako prebentzinoko beste ekintza batzuk bultzatuko dabezala, kasurako txertaketa. Eta Osasun Sistema Nazionalako Lurralde arteko Kontseiluak txertoen egutegi bakarria adostuko dauela be esaten dau. Euskadiko Osasun Antolamendurako 1997ko Legeak, azkenik, 2.2 puntuan, Eusko Jaurlaritzari emoten deutso Euskadin osasuna jagoteko eskumena. Bizkaiko Foru Aldundiak ez dauka ezelako eskumenik osasun publikoan.

Bizkaiko Foru Aldundiak eskumena dauka gizarte-zerbitzuen arloan, zehazki, bigarren mailako arretako gizarte-zerbitzuetan, eta horrek Lurralde arteko Kontseiluak Cobidaren aurkako txertaketa-estrategian lehenetsuzkotzat ezarritako biztanleria-talde batzuk barruan hartzen ditu. Zentzu horretan, Sailaren jarrera izan da Osakidetzagaz etengabe eta lankidetzara osoan jardutea, harek planifikatu eta gauzatu dau-eta txertaketa-prozesua. Ze ez dogu ahaztu behar persona horreek guztiek Osakidetzaren osasun-laguntza jasoteko eskubideari eusten deusiela. Aldundiak arlo horretan egiten dauen lana argi eta garbi definitu dauen berbea da *laguntzea*, zeozer egin ahal izan daiten lagundutea. Hori da egiten gabilzana eta hona adibide txiki bat.

Joan dan otsailaren 26an hasi ginan Osasun Sailagaz lankidetzan eguneko zentroetako eta desgaitasuna daukien erabiltzaileei eta 55 urtetik gorako zentro horreetako profesionalei Pfizer txertoa jartzeko. Bihar, martiak 18, amaituko da talde horreetako erabiltzaileei eta profesionalei lehenengo dosia emoten, eta datorren astelehenean hasiko da bigarren dosia emoteko prozesua, Pfizer txertoarentzat ezarritako 21 egunen ostean. Bigarren dosia ipinte hori apirilaren erdialdera arte luzatuko da.

Foru taldeetatik Pfizer txertoa 2.000 pertsonak baino gehiagok hartu dabe. Aldi berean, otsailaren 19an hasi ziran 55 urtetik beherako profesionalei txertoa ipinten, kasu honetan AstraZeneca txertoa, honako zerbitzu honeetan: adinekoentzako eguneko zentroak, desgaitasuna daukien personentzako zentroak, autonomia personala sustatzeko zentroak, desgaitasundunen etxebizitzak, arreta goiztiarreko zentroak, adingabeentzako zentroak, gizartratze-zentroak eta tratu txarren biktima diran emakumeentzako zentroak, menpekotasun, desgaitasun eta umeen kolektiboen balorazio edota eta zuzeneko esku-hartzeko ekipoak.

Martiaren 15era arte, Foru eskumeneko Gizarte Zerbitzuetako 320 zentrotan behar egiten daben 2.000 profesional baino gehiagori jarri jake txertoa: eguneko

zentroetan, etxebizitzetan, gizarteratzeko zentroetan, arreta goiztiarrean lan egiten dabenei eta abar. Txertoa Birjinetxen jarri da, hitzordua eskatzeko sistema bategaz, eta bigarren dosia maiatzean hasiko da ipinten. Behar bezala balorau behar dogu lanok aurretik antolaketa zorrotza eskatzen dabela: dosiak banatzea, erespideak ezartzea eta abar.

Gaur eztabaidatzen gabilzan mozinoaren bigarren puntua gardentasunari buruzkoa da. Eusko Jaurlaritzak egindako txertaketa-prozesuari buruzko datuak konsultatuko, lehen aitatu dan moduan, Eusko Jaurlaritzak Interneten daukan gardentasun-ataria begitu daiteke. Bertan, joan dan otsailetik, hainbat datu dagoz agirian, hala nola zenbat txerto heldu diran, orain arte ipini diranak, asterako aurreikusitakoak eta xede-taldeen txertaketa-maila. Datuok astelehen, eguazten eta barikuetan eguneratzen dira. Zerrendan buru dagoz zentro soziosanitarioetako egoiliarak eta profesionalak, honako zifra honeekaz: lehenengo dosia % 100, eta bigarrena % 99,3. Azkenik, zuen mozinoak txertoa jartzeko sentsibilizazio-kanpainak egitea eskatzen dau. Badago kanpaina bat LABIren oneretxia daukana, eta gure ustez egokia da herritarrak immunizazio kolektiboaren garrantziaz kontzientzietako. Komunikabideetan eta osasun-zentroetan ikusi geinkez batez be. Sin más, muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señor Lamborena Barreras. Y pasamos al turno de respuestas. Para ello, tiene la palabra la representante del Grupo Mixto-Partido Popular Bizkaia, señora Fernández Angulo.

La Sra. **FERNÁNDEZ ANGULO** andreak: Eskerrik asko, mahaiburu andrea. Gobernuari eusten deutsien taldeetako baten hitzaldia ziurtasuna eta lasaitasuna aitatu dira. Nik, munduko lasaitasunik handienagaz, esan behar deusut gaur gaurkoz, Euskadiko eta Bizkaiko txertaketa-prozesuari buruz mahai gainean ditugun datuakaz, ziur nagoala uda heltzen danean Euskadiko eta Bizkaiko biztanleen % 60 eta % 70 ez direla immunizauta egongo. Eta nik uste dot gai hori dala, nahizta batzuetan Euskal Herriko Autonomia Estatutua esan, danok ezagutzen doguna, ikasi egin behar izan dogulako edo gure erakunde- edo alderdi-erantzukizunagaitik. Hemen be egunero botaten dogu, komeni danean; hori bai, Estatutua komenidu ez danean, Estatutua ez da hain garrantzitsua. Eta publikoak diran datuak be esan deuskuz. Baina hemen ez dogu transakzionala hitzartu eta adostu, eta mozino bat aurkeztu errezitatzeke. Mozino bat aurkeztu dogu erreakzionatzeko. Ze nik ez dakit Gobernuari eutsen deutsien taldeek daroagun txertaketa-erritmoa ondo, txarto edo erdizka eresten deutsien.

Baina, nik uste dot datuek autokritika egiteko joera, gitxienez eskatzen dabela. Onerako, bai, ados. Baina hobetzeko jarrera autokritikoa euki behar da, ze ezin da izan biztanleko osasunean gehien gastetan dauen autonomia-erkidegoa, eta gogoratu gura dot diru-bilketa Foru-aldundien eskumena dala, ba gero azkenengo egotea baliabideok orain garrantzitsuena dan horretan erabilteko, hau da, txertaketan. Niri behintzat, jarrera ardurabakoa egiten jata jarrera autokritikorik ez izatea, onerakoa izan behar badau be.

Eta nik ez dakit Autonomia Estatutuan jartzen dauen Foru Gobernuaren eta Gobernuari eusten deutsien taldeen ardurea dan egoitza-zentroetan dagozanen osasun publikoa. Artikulu hori ez deustie irakatsi niri, baina zuk badaukazu eta erantzuteko txandan irakurten badeuskuzu, ziur nago oso ondo aberasgarria izango dala ezagutzea.

Baina ni harrিতa nago bizkaitarren zati bategaz bakarrik arduratzen garala emoten dauelako. Holako lekuetan dagozan personek lehenetasuna daukie, zertan esanik bez. Baina behin lehenetasun hori babestuta dagoanean, berandu bada be, beste autonomia-erkidego batzuek be guk baino azkarrago immunizau dabezalako egoitza-zentroetako adinekoak. Nik dinot gainerakoek be, ia milioi bat, gitxi gorabehera milioi bat inguru bizi gara lurralde honetan, eta horren ardurea hartuko dogula, ze hasieran esan dodan moduan, eretxiak badagoz, eta ez oposizino politikoenak bakarrik. Sindikatuen ordezkarien eta enpresa-ordezkarien eretxiak

dagoz. Nik ez dakit uste dozuen Confebaskeko presidentea osasun- eta ekonomia-kontuak zer diran ez dakian persona bat dala, baina oraintsu esan eban: txerto gehiago eta azkarrago, osasun-krisia gainditzeko txertaketa-prozesu hori behar dogulako, hori dalako ekonomiaren krisia suspertu eta gainditzeko modu bakarra. Enpresariak eta autonomoak be arduraz dagoz. Arduraz dagoz, jakina, sektoreak murrizketa handiak ditualako. Txertaketa-prozesua uste baino motelago doala esan deuskuzue, eta kasualidadea oposizino politikoagaz bat dator, tribuna honetan agertu diran jarrera ideologiko hain desbardinak izan arren, bat gatozelako garrantzitsuena dan horretan, lehentasunean, hau da, bizkaitarren osasuna, eta euren osasuna jagon ezker, ekonomia be salbauko dogu. ELGAK esan deusku, eta uste dot esan deuskula be, ez dot inor konpromisoan ipini gura, baina uste dot Gobernuak Euskadin daukan ordezkariak be gai batzuk esan dituala horri buruz, eta nik aitortu nahi dot bat natorrela Euskadiko txertaketeagaz.

Esan nahi dot, halaber, egia dala ez dana erraza. Ze esaten dozue: ez, jakina, zuek esaten dozue horrek kostu ekonomikoa daukala, egiten doguna motel doala, txertoetarako jarrera erreserbista, ulertzen ez doguna. Eta, gainera, espero dot zuzenketa txiki hori, nire lehenengo hitzaldian esan dodan moduan, komunikabideetan islatu dana, sendotutea, ez dagoalako nondik heldur. Danok dakigu lehenengo inokulazioagaz babes handiagoa dagoala. Beraz, zuhertasunak edo zuhertasun-atxakia horrek ez dauka justifikaziorik osasun publikoaren ikuspuntutik be.

Esaten dot ez dala erraza kalkulatzea zenbateko kostua daukan atzerapen horrek talde-immunidadean. Baina oin dala gitxi BBVA Reseach-en ikerketa bat egon da, eta urtearen erdialdean osasun egoera normalizatu daitekeela onartu dau. Horrerik esker, 2021eko bigarren erdian hiruhileko hazkundea % 2,5 eta % 3 artekoa izango litzateke. Hipotesi hori hiruhileko bat atzeratuteak, gitxienez, urteko BPGan puntu bat gitxiago ekarriko leuke. Ekarki daigun Euskadiko errealidadera, Bizkaiko errealidadera, ze hori guri be gertatuko jaku txertaketa-erritmoa bizkortzeko gai ez bagara.

Eta esaten dozue: horrek zer zerikusi dauka Aldundiagaz. Ba zerikusi handia dauka; ze osasun-krisiak jarraitzen badau, krisi ekonomikoak jarraitzen badau, diru gitxiago bilduko dogu, eta, beraz, arazo handiagoak izango ditugu zerbitzu publikoei eustea bermatzeko.

Eta, beraz, itxidazue amaitzen, jarrera eraikitzaile batetik, baina ez daigun galdu ondo egiteko aukera. Birusa beste ezer baino gehiago ezbehar bat izan da eta da, giza bizitzen kostuari eta ondorioei jagokenez. Ez daigun kostua handitu, bizitza gehiago, enpresa gehiago eta lanpostu gehiago galduaz. Eta prozesu kontrolatu eta informatu baten txertoa jartzeko prozesua bizkortzeko eskatu daigun. Ze orain eta hurrengo aldian, edozein arduradun publikoren lehentasun nagusia da, eskumen zuzena euki zein ez.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Vaya terminando, por favor, señora Fernández.

La Sra. **FERNÁNDEZ ANGULO** andreak: Eta pentsatu daigun inbersino sanitario, sozial eta ekonomiko horretan. Ahalik eta onena. Mila esker.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias, señora Fernández Angulo. El representante del grupo Elkarrekin Bizkaia, señor Fernández Medrano, tiene usted la palabra.

El Sr. **FERNÁNDEZ MEDRANO** jaunak: Gracias señora Presidenta. Ikusi dodanez danak ondoetorria egiten zabiziela Foru Gobernuako kide barriei, eta nik ondino ezagutzen ez dodazanez, zuhurra izango naz, eta agur esango deusiet gaur ez dagozanei, eta espero dot ondo joango jakela.

Hori esanda, espero neban hau barriro ez esatea, baina aurreikusten zan. Uste dot gehiegitan erabilten dogula eskumen-banaketaren gaia atxakia moduan zeozelango nagikeriarako, edo ahaleginik txikiaren lege moduko baterako, erakunde-gaietan. Gure ustez, Aldundia eta foru-organoak egoteko errazoia da neurri eraginkorrak egin ahal izatea, zeozelan proaktibitatea eragitea lan instituzionalean. Gure ustez, laguntzea eta holako berbak esaten doguzanean, lurralde bat delitu egin barik kudeatu daitekeen gitxieneko legalaz gabilzala. Nik uste dot eskatu ahal izango litzatekela, eta horixe da osasun publikoko hezkuntza-plan integralerako gure proposamenean dagoana, aurrerapauso bat egitea, eta Lurralde arteko Kontseilua aitatu da, edo Osakidetzagaz egindako batzarrak. Ba holako proposamen bat eroan leiteke, anbulatorioetan edo komunikabideetan egiten dan txertaketa-lana iragarteko ekimen zehatzek euki leikien ikuspegia apur bat zabaltzeko. Handinahiagoa, edozein kasutan.

Eskerrik asko, lehenengo eta behin, Otermin jaunari, lehenengo egunean Batzordean jaso genduan informazioa errepikatzeagaitik. Gizarte Ekintzako diputatuarenganako barriro be haren ordezkotz lez jokatu barik. Egia da, zeozelan, sarbidea daukagula, gardentasuna daukagula. Askotan, gardentasun laburtua, atzeratua eta borrokatua daukagu. Esan gura dot ez dala eskura euki gurako neuken gardentasuna. Ez dakit argi azaldu dodan.

Beste alde batetik, Eusko Jaurlaritzaren Gardentasun Ataria aitatu da. Gardentasun atari horretara jo dau PPK eskaera erregistratu aurretik. Argi dago hori erabilten dogula.

Hori esanda, Batzordeko esku-hartzeari buruz gogoratu deuskuzuzan gauzetan, azpimarratu egin dozu, ez dakit beren-beregia izan dan ala ez, txertoari uko egin deusian jentearen gaia, Otero jaunak adierazi dau. Guk ulertzen dogu, gure zuzenketaren zatirik indartsuena planteau dogunean, osasun publikoko hezkuntzako plan integral batek zeozelan lagunduko leukela erabagi informatuak hartzen, aitatu dozun hori bezalako arazoak konponduko leukiezanak; eta, era berean, zeozelan be, biztanleria informatu bat ez litzateke hain sentikorra izango batzordeetan gure aurrean argudioakaz azaltzen diran gizarte-alarmak jasateko. Gure ustez asmo handiko hezkuntza-plan batek arazo batzuk konpondu leikezala, eta era horretako arazorik barriro gertatu ez daiten oinarriak ipini leikezala.

Dana dala, nik uste dot hizpide dogun kontzientziarino-ahalegina ondino be beharrezkoa dala, eta tribuna honetan nabarmendu diran ziurtasuna eta segurtasuna ezagutzak bakarrik ekarriko dituala. Eta ezagutza hori leku bitatik etorri daiteke: informazioa azkar eta berehala eskuratzetik, eta Aldundiak egin behar dituen legezko gitxienekoetatik harago doazen hezkuntza-apustuetatik.

Hori esanda, uste dot aukera galdua dala bere eskumenen barruan Aldundi honentzat aurrerapauso bat emoteko. Uste dot aurkako botoa emongo dala, bozkatzen bada, ahalegin demokratiko interesgarri bati buruz, esaterako, hainbeste gauzatan jarrera guztiz kontrajarriak daukiezan talde politiko bi gai izatea gauza baten bat egiteko. Eta uste dot aukera galdua dala beste maila bateko lana egiteko, ez bakarrik soziosanitarioa, baita hezitzailea be, eta gardentasun demokratikoaz baliatzeko, gure egunerokoan interesgarria izan leitekealako erakunde komunekaz harremanetan jartzeko. Besterik ez.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias, señor Fernández Medrano. Y el representante del grupo Socialistas Vascos, señor Otermin Eraso, tiene la palabra.

El Sr. **OTERMIN ERASO** jaunak: Eskerrik asko, mahaiburu andrea. Erantzuteko, erdibidekoa proposatu dauen batek koordinazioarena, ziurtasunarena eta emon gura dogun segurtasunarena esan deusku, negatiboa balitz moduan. Nire ustez, gagozan egoeran egonda, danok sufritzen gagozanagaz, eztabaidatzea gauzak txarto egiten dirala erakundeetan, hau ez dan erakundeetan; kudeaketa publikoaren eremuetan, hau ez den eremuetan; ba nik ez dakit hori lagungarria dan guri entzuten deuskuenei argitasuna, ziurtasuna eta, batez be, lasaitasuna emoteko. Nire ustez, politikan gauza baliagarriak egiteko gagoz, halakoak egiteko eskumena daukagun tokietan. Hemen gagozan guztiok daukagu ordezkari Eusko Legebiltzarrean, eta Eusko Legebiltzarreko ordezkari guztiok hitz egin dabe gai horri buruz, txertaketei buruz, jarraitzen dan prozesuaren ganean, eta abar. Beste leku batzuetan egiten diran hainbat eztabaida hemen errepikatzea, ez dakit argitasuna lortzen laguntzea edo sigla politiko batzuei mesede egingo deusien zarata mediatikoa pixka bat bultzatzea dan.

Bikariatuarena gustau jat, nire jarrera bikarioarena. Gero eta sotilagoak gara hizkuntza erabiltean, Alderdi Sozialistagaz zerikusia dauken gauzetan. Izan be, jarrera hori, nik ez dakit non egon dan Iglesias jaunaren Bikariatoa Espainiako Gobernuaren gizarte-politikaren politikari arduradun gisa toketan jakonean, non dagoz egoitzak? Non egon da denpora horretan guztian? Illa jaunaren atzean ezkutatuta. Hori al da Podemos Unidasek Espainiako Gobernuagaz daukan jarrera bikarioa? Hortik baxotxak egin daiala bere irakurketa.

Nik ez daukat besterik gehitzeko. Hezkuntza-plan integral bat sartzeko esan dozu. Ikastetxeetan adingabeen eta personeren hezkuntza-prozesu egin ez balebe be. Gure errealidade instituzionalaren beste esparru batzuk be kontuan hartu daiguzala. Lurralde Historikoen Legea bardin balitz lez. Hor ordenamentu bat dago, EAEko udal-legea be badaukagu 2016tik, bardin da. Hemen danetarik esan eta berba egin geinke, ze ondorioa gustau jat. Ze guri be eragiten deusku, ez badogu zeozer egiten, horrek eragina eukiko dau diru-bilketaren sisteman. Hau da, osasuna eta txertaketen arazoagaz gabiltz hemen, zerga-bilketaren sisteman eragin negatiboa egon daitekeelako. Aurkeztu jakun argudioa. Zentzubakokeria egiten gabiltz hemen, edo ez dakit, danok gabiltz bururatuten jakun argudioa ateraten, momentuko burutazioa, esan daigun zeozer. Badirudi honetaz berba egin nahi dodala, baina ezin dot. Orduan, zergetan eragina daukala esango dot. Ederto, aurrera.

Eta irainen, hitzen, iradokizunen kontu hori guztia dala-ta, hemen gagozanak jarrera pasiboa dala pentsetea, ez dogula hobekuntzarik onartzen, egia ez danean. Datuak mundu guztiaren eskura dagozanean. Hemen barrero errepikatu ditudanean eta "eskerrik asko datuak laburtzeagaitik" esaten jatanean. Bilkura-egunkarian irakurrik zeinke ba-ta.

Min emoteko esaten diran berba horreek bakarrik daukiez ondorioak nik onartzen baditut, nire kasuan bai, min emoten deust. Baina onartzen ez ditudanez, eta inoiz ez nazenez jaitsiko beste zitalkeria edo irain batzukaz erantzutera, lasai egon, gura dozuna esan ahal deustazu, nahi dozun ironia erabili zeinke, ze azkenean ez dakit horrek giro politikoa hobetzen edo herritarrei ziurtasuna emoten laguntzen dauen. Baina nire kasuan, nitaz zabilzenean, denpora galtzea da. Eta kasu honetan anekdota bat kontauko dot.

Perikles, entzutez behintzat danok behintzat ezagutzen doguna, K. a. V. mendean, honen moduko foro baten berbaz egoan, eta entzuten egoan batek denpora guztian eteten eutsan, iraintzen, txarto esaten, barregarri itxi guran. Saioa amaitu, eta gizona etxera joan zan, eta bestea atzetik etorri jakon, irainka, kalean barrena, mundu guztiak entzun eian zer esaten eutsan. Periklesek ez eutsan ezer esan, baina etxera heldu zanean, argi askorik ez

egoanez, bere esklaboei esan eutsien: hartu zuziak eta lagundu eiozue jaun horri bere etxera bidean ezer txarrik gertatzea nahi ez dodalako.

Bizitzan eta politikan badira norbera definitzen daberen jarrerak. Jarraitu eizue bide horretatik, argitu eizue nire bizitza epitetokaz, baina egin daigun hemen politika arduratsu, egiatzko, koherente eta batez be ziurtasunezkoa, oso une latzean. Eta Batzordean eta aurreko Osoko Bilkurako interpelazioan galdetu zana egoitzei buruzkoa izan bazan, ez daigun edozer erabili bururatzeko jakunaz berba egiteko, beste foro eta ordezkari batzuk daukaguzanean hori egin ahal izateko, eta egiten dabilzanean. Besterik ez, eta eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias señor Otermin Eraso. Tiene la palabra el representante del grupo Euskal Herria Bildu, señor Montes Uña.

El Sr. **MONTES UÑA** jaunak: Gracias, señora Presidenta. Buenos días de nuevo. No entendemos, ¿cuál es la razón para que la moción no salga adelante? ¿De verdad no quieren que el proceso de vacunación sea lo más rápido posible? ¿Están en contra de la transparencia? ¿No quieren que los ciudadanos decidan libremente si quieren ser vacunados o no?

EH Bildurentzat, hurrengo hileak erabakigarriak dira Covid-19ak eragindako krisia kudeatzeko. Kudeatu behar da eskoiko eskuagaz ez eze, biakaz be bai. Alde batetik, krisiaren ondorio sozioekonomikoak arintzeko preminazko neurriak hartu behar dira, hemen esan dan moduan; baina, bestetik, eta berehala, etorkizuna prestatu behar da, politika publikoen ikuspegia aplikatuz. Batez be gizarte-politikak, Aldundiaren eskumenekoak, informazioa eta gardentasuna lehenetsiz txertaketan eta haren inguruko guztian. Premina larriei aurre egiteaz gainera, eraldaketa-politikak aktibatu behar dira, sistemaren akats larriei aurre egiteko eta, gaurtik aurrera, garapen-eredu barri baten eta gizarte-ongizatearen oinarriak eregiten hasteko. Coviden kudeaketa desinformazioaren, koordinazio faltaren eta zuloak estaltzen joatearen historia egiten dabil Autonomia Erkidegoan. Ez dira ostonduten gaitasun faltaren atzean.

Bigarren puntuan gardentasuna eskatzen dogu. Zein da arazoa? Aurreikuspenez jarduten hasi behar da, eta plangintza hobetu gaurtik bertatik. Akatsak berehala zuzendu behar dira, Covid behar bezala kontrolatzeko eta jarraipena egiteko estrategia antolatu behar da, epe ertainera antolatu behar gara, pandemiaren hasieratik sortutako akatsak eta hutusnean ez errepikatzeke. Eta akats horreetako asko gertatu ziran gaixotasunaren kudeaketan egoitzetan.

Aurreikuspen- eta plangintza-faltak baldintzatu egin dabe eta baldintzatzen dabilz Covidaren aurreko erantzuna. Era berean, ezin da ahaztu Covid-i aurre egiteko gaitasuna erabat baldintzatu dabela osasun-sistemaren egoerak eta egiturek, eta badakigu ez dala zuen eskumenekoa, behin eta barriro esan deuskuzue. Baina pandemiak heriotza asko eragin dituen egoitzak bai badira. Covid heldu jaku gure osasun sistema publikoa estresauta eta ahulduta egoanean. Urteetako murrizketak, lanpostuen amortizazioa, behin-behinekotasuna, pribatizazioak... lehenesteko politiken ondorioak jasan ditugu. Txertaketa-erritmoa baldintzatu eta baldintzatzen dauen sistema publiko bat, eta parkatu errepikatzea, baina hori da mozinoaren lehenengo puntua. Kontrapuntua bereziki eskertu behar deutsegun profesionalak jarri dabe. Covidari eta hasierako muga guztiei aurre egin jake osasun-arloko profesional horien guztien ahaleginari esker, adinekoentzako egoitza-zentroetako langileen ahaleginari, Etxeko Arreta Zerbitzuko langileenari eta abar. Lehenengo lerroan egon diran langile horreek, protokoloak, erregistroak eta babes-ekipoak antolatu behar izan dabezanak. Eurakaitik guztiakaitik eta gu guztiokaitik.

Prekarizaziorik ez, kontratazioak indartu, NBEak, prestakuntza. Nor dago kontra? Gaur egun nork prekarizatzen ditu lanpostuok? Zein aldetan zagozie? Aldundiak eta Gizarte Ekintza Sailak osasun pribatuaren edo alkarregaz txertatzearen alde egiten dozue? Halan bada, zenbat kostauko jaku txertaketa zentro pribatuetara bideratzea. Mutualidade bati jagoko ikastetxe publikoetako irakasleen txertaketa. Hortik dator gardentasunaren kontrola.

Benetan tristea da gobernu-taldearen borondate falta. Gure ustez, Aldundiak nire lehenengo hitzaldian aitaturako kolektibo guztien ardurea hartu leike, Bizkaiko biztanleentzat eta Gizarte Ekintzako diputadu jaunak eskumenekoak dituan kolektiboentzat txertoa bizkortzeko, pandemia amaitzeko itxaropen bakarra da-ta.

Realizar gestiones para acelerar el ritmo de vacunación. Aboguen por la transparencia del proceso de vacunación. Informen sobre la necesidad de vacunación. Garanticen unas condiciones laborales dignas para las enfermeras. Por ello, vamos a apoyar la moción presentada por el PP y Elkarrekin Podemos. Esandako guztiagaitik, PPK eta Elkarrekin Podemosek aurkeztutako mozinoaren alde bozkatuko dogu. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias, señor Montes Uña. Y el representante del grupo Nacionalistas Vascos, señor Lamborena Barreras, tiene usted la palabra.

El Sr. **LAMBORENA BARRERAS** jaunak: Gracias de nuevo señora Presidenta. Hemen gagozan talde guztiok argi itxi dogu, uneren baten, txertoaren garrantzia danok gura dogun artaldearen inmunidadea lortzeko. Garrantziari jagokonez, gure ustez funtsezkoa da administrazio bakoetaren eskumen-eremua errespetetea, eta gure lehenengo esku-hartzean argi itxi dogu Bizkaiko Foru Aldundiak ez dauela ezelango eskumenik osasun publikoan. Kasu honetarako eskumenak, lehen esan dodan moduan, Osasun Publikoaren Sistema Nazionalaren Lurralde arteko Kontseiluari eta Osasun Sailari jagokez.

Halanda be, agirian itxi gura dogu Aldundiak eskura dituan baliabide guztiak eskura jarri dituala Gizarte Ekintza Sailaren menpeko kolektiboetara txertoa jartzeko orduan laguntza eskatu jakenean. Horixe espero da eta horixe egin da. Gure lehenengo hitzaldian, "lagundu" hitza nabarmendu dogu, benetan uste dogulako horrek definitzen dauela bi administrazioen arteko hartu-eremua, hau da, Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren artekoa. Gizarte Ekintza Sailak eskaintutako lankidetzara argi geratu da: otsailaren 16tik Pfizer txertoa hartu dabe 2.000 erabiltzaile eta profesional baino gehiagok, eta otsailaren 19tik AstraZeneca txertoa hartu dabe 55 urtetik beherako 2.000 profesional baino gehiagok. Aldundia ahalik eta gehien laguntzen dabil, foru erakundeetara lotutako kolektiboetara bizkortzeko. Horretan berbea emon neike, anekdota gisa ixten badeustazue. Nire aitak, Muskizko eguneko zentroaren erabiltzaileak, oin dala gitxi hartu dau txertoa Aldundiaren bitartez, IFASeko langileek emonda, beste guztien moduan, hemen esandakoaren aurka.

Gardentasuna dala-ta, guk pentsetan dogu behar dauenak badaukala txertaketa-prozesuari buruzko informazioa Eusko Jaurlaritzaren atarian, hasi txertaketa-buletinetik (lehen esan dodan moduan, astean hirutan eguneratzen da) txertoen ezaugarri teknikoetara, txertaketa-taldeak eta -erespideak, sentsibilizazio-kanpainarako materialak deskargatzea, eta txertaketa-lekuak, besteak beste.

Gure hitzaldia amaitzeko, azpimarratu gura dogu administrazio guztiek alkar hartuta lan egin behar dabela Covid19ak dakarren egoera sanitarioa, ekonomikoa eta soziala hobetzeko. Bakotzak bere eskumenen barruan, hori bai. Eta irmotasunez uste dogu Bizkaiko Foru Aldundia gogor dabilela beharren bere zatia beteteko. Sin más, votaremos en contra de la moción. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias, señor Lamborena Barreras. Y terminado el debate y cuando todos estemos sentados, someteremos a votación la transaccional. Por lo tanto, votos a favor de la transaccional, votos en contra, abstenciones, no hay. Por tanto, el resultado es el siguiente: se han emitido un total de 48 votos. Los votos a favor han sido 17. Han sido contrarios 31. No ha habido abstenciones. Por lo tanto, no se ha aprobado la transaccional.

Tercer punto del orden del día.

El Sr. **SECRETARIO / IDAZKARI** jaunak:

3.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

Iniciativa Originaria: Moción derivada de Interpelación ([R.E.11/E/2021/0000862](#))

Autor: Escalante Mesón, Israel (EB)

Asunto: Los alineamientos de las políticas de DFB con los ODS.

Documento Principal:
([R.E.11/E/2021/0000862](#))

Boletines: [Admisión a trámite y apertura del plazo de enmiendas](#) (22A)

Expediente: ([11/B/20/0002044](#))

3.- Hurrengo idatziari(ei) buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:

Jatorrizko ekimena: Itaunetik eratorritako Mozinoa ([11/E/2021/0000862SE](#))

Egilea: Escalante Mesón, Israel (EB)

Gaia: BFaren politikak Garapen Jasangarriaren Helburuakaz bat etortea

Dokumentu Nagusia: ([11/E/2021/0000862SE](#))

Aldizkariak: [Izapidetzeko onartzea eta zuzenketa-eskeak aurkezteko epea zabaltzea](#) (22A)

Espedientea: ([11/B/20/0002044](#))

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Es el turno del juntero que ha presentado la iniciativa. Así que, señor Escalante Mesón, tiene usted la palabra. Decir que en este caso el grupo Euskal Herria Bildu presentó dos enmiendas.

El Sr. **ESCALANTE MESÓN** jaunak: Sí, buenos días, gracias. Buenos días a todos y a todas. En primer lugar, nuestra solidaridad, nuestro dolor con el fallecido ayer en Bermeo. Honezkero hamabi edo hamahiru persona dira beharrean hildakoak, eta ez da normala, sarritan esan izan dogun moduan, persona bat hiltea justu bizimodua ateraten dabilenean.

Hasteko esatea, ia zelan planteetan dodan gaia, ze esan lei edo emoten dau ezin dala Gobernua zalantzan jarri, edo ezin jakola gogoeta eginarazo. Azaldu behar da proposamen hau dakargun Osoko Bilkuran planteau genduan, hau da, gobernu honek esaten dau edo GJHak sinatzen ditu, eta 2030 agenda, baina guk konpromiso horretan zehaztopenak faltan botaten doguz. Beraz, interpelazioan ikusi dogunez zalantza hori egiaztatu dala, ikusten dogu gitxienez planing bat beharko litzatekeela, eta esan daigun arbitro bat, norbait, kanpoko erakunde bat zainduko dauena benetan betetzen dan ala ez, edo berbideratu behar dan. Ze alde batetik ikusten genduan, 17 helburu badira be, hor dagozala, baina helburuak eta adierazleak be hor dagoz, eta horrek sentsazioa emoten euskun, eta behintzat egiaztatzen genduan Aldundia ahaztuten doala.

Lo que proponemos hoy es simple, una planificación para la implementación de la agenda 2030, y el otro punto es que proponemos utilizar los análisis que hacen las instituciones externas sobre el cumplimiento de esos compromisos.

Esan dogu berme falta hori konpentsetako modu bat dala 2030 agenda egokitzea, ikasketa komunaren bidez egin daitekeena. Hainbat sare dagoz, hain zuzen be, Nazino Batuakaz alkarlanean, 2030 agendaren ezarpena hobetzeko. Adibidez, 2030 agendarako Estatu Idazkaritza daukagu, edo hurrago Udalsarea, Unesco Etxea, REAS edo Hegoak, adibidez.

Esan dogun moduan, GJHak betetea gura dogulako planteetan dogu hau. Ez daukagu ezer kontra; izan be, gu alde gagoz, eta gura doguna da, hain zuzen be, hori beteten eta garatzen aurrera egitea. Esan genduan puntu batzuk egozala, zehatzago GIH batzuk guk zalantzan jartzen doguzanak ia zergaitik ez ziran beteten Bizkaian. 6. GIHaren adibidea daukagu: ura eskuragarri izatea bermatzea. Bizkaian oinarritzko eskubide horren hornidura eten egin da, eta hemeroteka begiratu besterik ez dago, edo Arartekoarengana jo, horren inguruan ze salaketa hartu dituan.

Gero, 7. GIH daukagu, guztiontzako energia eskuragarria, segurua, jasagarria eta modernoa bermatzeari buruzkoa. Energetikoki burujabeak izateko etorkizuneko bidea gas naturalarena ote den zalantzan jartzen jarraitzen dogu. Nahizta naturala deitu, energia fosil bat da, eta are gehiago gas natural horren zati bat frackingetik datorrenean. Eta, halanda be, ez da hain erraza, adibidez, Aldundiaren menpe dagozan eraikin guztiek eguzki-plakak eukitea, gaur egun hori ez da beteten.

Gero, 10. GIH daukagu, adibidez, herrialdeen arteko desbardintasuna murrizteari buruzkoa, eta, alde batetik, zalantzan jarri dogu gaur egun, lau hamarkada baino gehiago geroago, Aldundi honek berak ez dauela 0,7ko konpromisorik hartu, Batzar Etxean be ez dala berretsi nahi izan Eusko Legebiltzarrak herrialde pobretuen kanpo-zorren bere zatiari uko egiteko bi aldiz sinatutako konpromisoa. Baina, gainera, hona ekarri gura doguz Aldundiak izenpetzen dituan nazioartekotze-politikak, herrialdeen arteko desberdintasun dakarrenak.

Horregaitik guztiagaitik, eta kontuan hartuta Ahaldun Nagusiak legegintzaldiko konpromisoan adierazi ebana Bizkaia kooperatiba handi bat dala eta guztiok jabe garala, eta guztiok erantzukizun osoz jokatu behar dogula. Ba hori kontuan hartuta, guk proposatzen genduan, alde batetik, Aldundiari eskatzea, UNESCO Etxeagaz eta Udalsareagaz batera, esan bezala, Agenda 2030 ezartzeari buruzko azterketa bat. "Garapen jasagarriko helburuak garatzeko 15 bide" dokumentua be aipatu genduan. Beste sare batzutura atxikitzea be aitatu genduan, kasurako Espainiako Udalerrien eta Probintzien Federazinora, eta, bestetik, Udalsarera. Azkenik, GJHakaz konpromisoa erakustea aitatu genduan, kontratazinoan eta diru-laguntzetan, eta Aldundiak daukan kontratazino-eredua apur bat hobetzea, GIHekazko konpromisoa klausula sozialetatik eta ingurumen-klausuletatik harago gehituz. Hori CEOEk, CPYMEk, Enpresari Autonomoen Konfederazioak eta abarrek honezkero sinatuta daukie eta, izatez, eurek adierazpen propioa daukie, eta bertan konpromisoa hartzen dabe GJHak enpresa-estrategietan txertatzeko, sektore pribaduan baina administrazino publikoagaz alkarriketarako eta lankidetzarako espazioak sortzeko, beraz, eremu pribaduagaz be ez dau talka egiten. Eta, azkenik, eztabaidarako eta parte hartzeko gune bat proposatzen genduan Garapenerako Unibersidade Lankidetzaren Behatokiagaz, honezkero hori badago, eta horretan parte hartzen dau Euskal Unibersidade Publikoak. Bide horretatik, nazioartekotzeko politikak berrikustea proposatzen dogu.

Beraz, berba gitxitan, Bizkaian 2030 Agenda ezartzeko estrategia edo plan bat egitea proposatzen dogu, UNESCO Etxeagaz eta Udalsareagaz batera, GJHei buruz gitxienez urtero konsultetea, GJHekazko konpromiso hori kanpoko erakundeen kontratazinoan eta diru-laguntzetara eroatea, eta nazioartekotzeko politiken etengabeko azterketa zehazteko eta abian jartzeko partaidetza-prozesu bat abiaraztea.

Espero dot ulertzea zer proposatzen gabilzan eta interpelazinoan planteautako beste gai batzuk alde batera itxi ditugula, erraza eta zehatza da. Y de momento eso es todo.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias señor Escalante Mesón. El Grupo Euskal Herria Bildu ha presentado enmiendas. Por lo tanto, a continuación, tiene la palabra la representante del grupo EH Bildu, la señora Arriola Alzola

La Sra. **ARRIOLA ALZOLA** andreak: Gracias señora Presidenta, buenos días a todos y todas. Y, en primer lugar, bienvenida a las nuevas Diputadas, a Amaia Antxustegi y a Elisabet Etxanobe.

Las Naciones Unidas designaron 17 objetivos para el desarrollo sostenible en 2015. Y estos objetivos son acabar con la pobreza, no hambre, salud y bienestar, educación de calidad, igualdad de género, agua y saneamiento adecuado para todos, energía no contaminante al alcance de todos, trabajo digno, crecimiento económico, reducción de desigualdades, movilidad urbana sostenible, actuaciones y acciones de cambio climático, vida submarina, vida de los ecosistemas terrestres, paz, justicia, instituciones generales, y alianzas para alcanzar esos objetivos.

Bizkaia Goazen, es decir, el plan de la Diputación Foral de Bizkaia falló con respecto a estos objetivos en 2016, ya que ni siquiera los mencionaba. Aquí está el plan Bizkaia Goazen, ni siquiera los mencionaba. En el plan Bizkaia Egiten 2019-23 se recogen, es decir, en el plan Bizkaia Egiten se mencionan los objetivos y algunos entenderán tal vez que por eso se alinean con los objetivos de desarrollo sostenible, pero eso no es así. Lo que se hace es un mero alineamiento, y recoger los objetivos para el desarrollo sostenible es algo, pero no suficiente. Interiorizar la filosofía de los objetivos de desarrollo sostenible y nuevas políticas de sostenibilidad, y promover proyectos innovadores, sería mucho más interesante, y ahí está el reto precisamente para la Diputación Foral de Bizkaia. La Diputación Foral de Bizkaia ha realizado algunas iniciativas simbólicas con Unesco Etxea, pero sólo el departamento de Igualdad se ha mojado de momento. Y la Diputación Foral de Bizkaia es miembro de Udalsarea 21, y este año junto con Ihobe, va a hacer un nuevo convenio, y esa puede ser una buena oportunidad para formalizar Udalsarea 2030, es decir, se ve cómo es la olla cuando se pone al fuego, así que para abordar este reto tiene también una cosa concreta a corto plazo, para ver hasta dónde está dispuesta la Diputación a mojarse.

Nosotros hemos presentado una enmienda. Bueno dos, en dos. Pero en realidad es la segunda la que está bien, y es la razón por la que se presenta esa enmienda, que se menciona la Federación Española de Municipios, y en el tercer punto para nosotros, y eso para nosotros no tiene sentido porque Udalsarea 2030 está en relación con otras redes de Navarra, Cataluña, Galicia, y del Estado español, y también es miembro de ICLEI, la organización de ciudades europeas sostenibles. Y por eso, EH Bildu considera que el desarrollo de los objetivos de desarrollo sostenible es algo que tenemos que hacer desde nuestro país y desde su realidad, ya la Diputación Foral de Bizkaia, con el Gobierno Vasco, con las otras dos Diputaciones Forales, y con los ayuntamientos de las capitales de la Comunidad Autónoma de Euskadi está trabajando en el desarrollo de los objetivos de desarrollo sostenible, y así se refleja en el documento Euskadi Basque Country 2030. Por eso nosotros hemos propuesto y hemos acordado esta enmienda con el grupo Elkarrekin Bizkaia, con Isra, y lo que decimos es que las Juntas Generales de Bizkaia instan a la Diputación Foral de Bizkaia a que elabore junto con Unesco Etxea y Udalsarea, un plan o estrategia de actuación en la que se elabore un análisis de situación y un plan de localización e implantación de objetivos de desarrollo sostenible de la agenda Bizkaia 2030 en el plazo máximo de un año o año y medio. También ponemos un plazo porque creemos que es importante.

Entonces, por mencionar otro par de cosas, la Diputación tiene aprobadas las cláusulas sociales y medioambientales para la contratación. Pero estos últimos son muy escasos, así que ahí también hay algo que hacer en este alineamiento.

En el quinto punto mencionaba Elkarrekin Bizkaia que la participación es importante, y para nosotros también lo es. Y creemos que también estaría bien establecer nuevas formas de fomentar la participación en formatos amplios y libres. En esa planificación que hemos mencionado en Bizkaia Egiten, es decir, en ese plan de la Diputación, en el Plan 2019-23, se mencionan dos retos en la página 8. Se señalan dos grandes retos para Bizkaia que son: el reto demográfico y la sostenibilidad ambiental. Ambos retos los cita la propia Diputación, y en sostenibilidad ambiental hay mucho que hacer, y ese deber hay que afrontarlo y hay que mirar de frente a ese reto, y hay que poner todos los recursos y herramientas necesarios para poder cumplirlo.

Los efectos climáticos y la propia pandemia de los últimos meses también nos han dejado a la vista la necesidad de proteger el territorio, las personas y la economía local, y necesitamos que Bizkaia sea un territorio vivo, habitable, productivo, resiliente y seguro. Y para ello es imprescindible sumarse a los objetivos de desarrollo sostenible, y responder adecuadamente al reto que tenemos. Sin más, nosotros votaremos a favor de la propuesta realizada por Elkarrekin Bizkaia. Gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias, señora Arriola Alzola. Y tiene la palabra la representante del Grupo Berezia-Partido Popular Bizkaia, señora Fernández Angulo.

La Sra. **FERNÁNDEZ ANGULO** andreak: Eskerrik asko, mahaiburu andrea. Barriro itzuli da Legebiltzar honetara Garapen Jasangarriko Helburuen aplikazioari buruzko eztabaida. Proposamena egin dauen taldeak aipatu dau, bai, errepikatu egiten dala, ez bakarrik administrazio publikoetan, baita sektore pribaduan be, enpresetan. Baina deigarria da, hain gai garrantzitsua izanda, itxuraz alderdi edo talde politiko guztien adostasuna batzen dauen gaia dala. Halanda be, eztabaida handia sortzen dau. Gai honen inguruan legegintzaldi honetan bakarrik aurkeztu diran ekimenen kopuruagaitik dinot hori. Batzuetan, ikusten gaituenarentzat, emon leike lasterketa baten gabilzala ia gai honetaz gehien nork berba egiten dauen, eta ez dinot hori holan danik, baina esaten dot batzuetan emon leikela.

Beste behin be argi ixtearren, nire talde politikoak konpromiso sendoa dauka garapen jasangarriaren helburuak lortzeko. Lehenengo hitzaldi honetan, Elkarrekin Bizkaia aurkeztutako mozinoaren puntu bakotxari buruzko jarrera eta eretxia finkatuko ditut.

Lehenengo puntuari jagokonez, planteatzen da Foru Aldundiak, UNESCO Etxeagaz eta Udalsareagaz batera, jarduketa-plan bat egitea, egoeraren analisi bat eta Bizkaiko 2030 agendako GIHak lokalizetako eta ezarteko plan bat egiteko.

Nik uste dot danok dakigula Bizkaiko Foru Aldundiak zenbait lankidetzaz izan dituala UNESCO Etxeagaz gai horri buruz eta herritarrak, bizkaitarrak, sentsibilizatzeari buruz. Orain egoeraren azterketa bat planteatzen da.

Guri iruditzen jaku beharbada komenigarria izango litzatekela; izan be, ezin dogu eta ez dogu ahaztu behar Foru Gobernuak hitzarmen bat daukala University College Londoneguz zerga-araudia aldatzeko, batez be persona juridikoei eta lurraldearen Fiskalidateari jagokonez, eta 600.000 € dira. Orain beste gastu bat proposatzen da, kasu honetan aitaturako erakundeakaz, egoeraren azterketa hori egiteko. Nik uste dot alde aurretik hausnarketa egin behar dogula, batez be funts publikoen xedeari, eraginkortasunari eta efizientziari buruz, nik ez dakit auditoria bati buruz hitz egin daitekeen, ez eidazue zentzu negatiboan ulertu, baizik eta benetan jakiteko zenbat inbertiduten gabilzan honetan, zer helburu lortzen gabilzan, zer eraginkortasun eta zer efizientzia, gastu barrietan pentsau aurretik.

Bigarren puntuan, Bizkaiko Foru Aldundiari eskatzen jako gitxienez urtero kontsultau deiola "garapen jasangarriaren helburuak garatzeko 15 bideak" izeneko dokumentu baten aplikazioa berrikusi eben adituek osatutako epaimahaiari. Nik aitortu egin behar dot tribuna horretan, asteburuan tarte bat, ez dot esango luzea, baina tarte bat emon dodala izenen bila, jakiteko nortzuk diran galdetzeko eskatzen jaken aditu horreek. Eta esan gura dot lan nekeza eta gatxa izan dala, osasun krisiaren garaian Pedro Sanchezen gobernuaren aholkulariak eta adituak aurkitzea beste kostau jatalako. Esan nahi dot ez ditudala aurkitu. Esan nahi dot, ze batzuetan gobernuari gomendioa egiten deutsegunean konsultak egin daiezan, jakin nahi dogulako benetan nortzuk diran, zer ibilbide akademiko daukien, profesionala, ikusteko ia benetan merezi dauen kontsulta hori urtero egitea, edo, beharbada, ez datorren bat lurraldean euki geinkezan beharrakaz. Gogoeta moduan dinot.

3. puntuan, Tokiko Erakundearen Sarera atxikitze eskatzen da, Espainiako Udalerrien eta Probintzien Federazioaren 2030 agendako GIHak garatzeko. Nire taldea ez da susmagarria, nik beste interpretazio bat daukat kentzea proposatzen daben beste batzuei buruz, baina kasu honetan ez da ideologia kontu bat, zeuk be pentsauko dozu. Oso ondo iruditzen jat CEMegaz lankidetzan jardutea, eta abar. Baina egia da begira egon nazela, eta 166 udalerrri edo toki-erakunde baino ez dagoz atxikita, eta probintziei jagokenez, ez gabilz foru-aldundiezi, hori guk daukagun berezitasun bat da, baina araubide erkideko aldundiak 18 baino ez dagoz atxikita. Batzuetan emon behar deuskuen laguntza beharretara egokituten dan be ikusi behar da. Eta esan be bai, hori be ez dala doan, urtero kuota batzuk ordaindu behar dirala. Baloratu daigun ia horrek guztiak merezidu dauen, zein izan behar dan lehentasuna, zein helburu lortu gura doguzan guztion konpromiso garbia dan horretan. Euskal eremuan, Gasteiz bakarrik dago sare horri atxikita. Pentsatu egin behar da eta baloratu egin behar da, balorazio bat dinot, baina uste dot osotasunean egin behar dala.

Laugarren puntuan, Aldundiari eskatzen jako GJHakaz daukan konpromisoa zabaltzeko kanpoko erakundearen kontratazioari eta diru-laguntzei, bai eta erakunde autonomo edo partaidetuei be. Guztiz ados nago bigarren zatiagaz. Nire ustez, garrantzitsua da, zeharkako gaia da, eta aurrera egin behar dau, erakunde partaidetuek eta organismoek beren gain hartu daien. Kontratazioari jagokonez, zalantza daukat; izan be, hemen daroadazan ia urte bietan, badirudi dana kontratazio publikoaren ganera doala, eta nire ustez hori ez da zentzu zehatza. Aitatu gura dot Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 1. artikulua 1. zenbakiak berariaz aitaturten dauela osotasunaren printzipioa, estu-estu lotuta dagoalako bardintasunaren, diskriminaziorik ezaren, gardentasunaren eta lehia askearen printzipioakaz. Ez daukat oso argi zelan defendatu leiteken aldi berean lehenengo puntuan esleipen zuzena, ze Unescoetxea ez da sektore publikoa eta, beraz, zuzenean kontratatu behar da, eta, aldi berean, bardintasunaren, lehia askearen eta abarren printzipio horreek defendatu. Zeozer dago oso estetiko ez dana puntu biak testu berean alkartzan diranean.

Eta azkenik, bosgarren puntua dala-ta, parte-hartze prozesu bat egitea eskatzen da. Baina, kasu honetan, Euskadiko GKEen Koordinakundearen, Garapenerako Unibertsidade Lankidetzaren Behatokiaren eta Euskal Herriko Unibertsidadearen artean, Aldundiak GJHak eta Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala kontuan hartuta lagundutako nazioartekotze-politiken etenbako azterketa abian jartzeko helburuagaz. Badakizu, ze batzorde horreetan bat egiten dogu, joan dan urtean zehar, gitxienez lau egoera desbardinetan batzartu ginala uste dot (Sustapen ekonomikoa, instituzionala, enplegua, bardintasuna) gaiari buruz berba egiteko. Nik badakit kezkatuta zagozala eta ni ia obsesionatuta be esango neuke. Foru Aldundiak Sosa Fundazioagaz daukazan ekintzailatza- eta nazioartekotze-hitzarmenak. Hori esaten dozu zuk puntu honetan, beste berba batzukaz esaten dozu, baina nik, esan dodan moduan, gitxienez 4 batzordetan bat egin dot zugaz gai hau dala-ta. Eta badakizu nire taldea ez datorrela bat gai honetan, ze begira, nik adibide bat jarriko deusut. Zuk dinozu: ezin da Sosagaz kontratatu egoitza Israelgo Estaduan daukalako eta Israelgo Estaduak ez ditualako giza eskubideak errespetetan. Beno, ni ez naz sartuko orain Israelgo Estaduan giza eskubideen

errespetuari buruzko balorazinerik egiten. Baina nik ez deusut adibide praktiko bat jarriko, ez eidazu esan ez dozula hiru edo lau batzorde partekatu nahi gai hori dala-ta, eta zuk holan planteau dozu. Baina pentsaizu bihar, gure herrialdean, Vox moduko alderdi ultraeskuindar batek erakunderen baten, autonomia-erkidegoren baten gobernatzea lortzeko zoritxarra gauzatzen dala. Nik espero dt hori ezetara be ez gertatzea, baina pentsaizu hori gertatzeko zoritxarra daukagula, zer gertatzen da orduan, autonomia-erkidego horretan egoitza soziala daukien enpresa guztiak berehala seinalauta geratzen dirala.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Fernández andrea, mesedez, amaitu.

La Sra. **FERNÁNDEZ ANGULO** andreak: Ez nator bat modu horregaz, gauzei buruz daukazun ikuspegi horregaz, eta, beraz, horixe da nire taldearen jarrera, zuek planteau dozuen mozinoaren puntuei jagokenez. Mila esker.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias, señora Fernández Angulo. Tiene la palabra la representante del grupo Socialistas Vascos, la señora Gil Llanos.

La Sra. **GIL LLANOS** andreak: Gracias señora Presidenta, buenos días a todos y todas. Nik be, nire aurretik berba egin daben lagunek emondako ondoetorri-berbakaz bat egin gura dot, baita Ibone Bengoetxearentzat eta Elena Unzuetaarentzat aitortza- eta maitasun-hitz batzukaz be, plazer handia izan dalako eurakaz lanean bat egin izana. Eta orain gaira.

Hasteko, eskerrak emon gura deusadaz Elkarrekin Bizkaiari bere ekimenagaitik, aukera emoten deuskulako 2030 agendari buruz barriro berba egiteko, agenda horren garapenari buruz, gure politikak GIHakaz zelan lerrokatzen ditugun azaltzeko. Eta, jakina, aukera ematen deusku publikoki barriztetako, alderdi politiko legez, sozialistok apustu globalagaz daukagun konpromisoa garapen jasangarriaren alde gure planetagazko ekitatean eta bakean oinarrituta, 2015ean Nazio Batuetan 193 herrialdek baino gehiagok sinatu ebena. Hitzurrean esaten da 2030 agenda personen, planetaren eta oparotasunaren aldeko ekintza-plana dala. Eta sozialistentzat, zalantza barik, adierazpen hori lehentasunezko konpromiso bihurtu da, eta gure ekintza politiko osoan sartzen da, erakunde-eremu guztietan, tokiotik globalera.

2030 agenda erreferente etiko eta politiko bat da guretzat, eta kontratu sozial global barritzat ulertzen dogu, oinarriak jarriko dituana errealdaderik hurrenekotik eregiteko, gure errealdade hurrenekotik, munduan gura dogun komundadea eta amesten dogun Europa, baina baita behar doguna be. Eta egia da adierazpena sinatu zanean, inork ez eukala etorkizun hurbilean bizi dogun moduko pandemiarik. Baina hori ezin da atxakia izan hasitako bidea geldituteko. Alderantziz, krisi honetatik modu zuzen eta ekitatiboan, planeta errespetetan urten gura badogu, eta inor atzean itxi barik, 2030 agendaren printzipio gidariekin inoiz baino zentzu handiagoa hartzen dabe. Izan be, krisi honek zeozero irakatsi badeusku da ezinbestekoa dala alderdi komunak babestea, zerbitzu publikoak indartzea, langileak babestea, zaintza-sistema indartzea, ikusezintasunetik ateratea sistema osoa lepoan daukien emakume gehien-gehienak, prekariedadea hautsiz merezidu daben aitortza publikoa emoteko.

Aurreko krisian galdu ziran lan-eskubideak be berreskuratu behar dira. Eta, gainera, ikusi dogu preminazkoa dala gure produkzio-sistemaren trantsizino ekologikoari, gure ekonomiari ekitea ze aukera handia izan daiteke berrindustrializazio berderako, aberastasun kolektiboa eta kalidadeko enplegua sortzeko gai dana. Hau da, erronka asko ditugu aurrean, eta

sozialistentzat helburuok ez dira kimera bat, ezta argudio erretoriko bat be. Hemen eta orain, agindu bat dira, eta Bizkaiko gizarteagaz daukagun konpromisoa. Eta egunez egun erakusten dogu hori, gure legegaldiko planean, Bizkaia Aurrera moduko plan berezietan edo aurrekontuetan, lehentasun eta erronka sozialak neurri zehatz eta kuantifikagarri bihurtzen ditugunean.

Adibideren bat jarriko deutsuet. Bizkaia Egiten 19-23 Legegintzaldiko Planak lehentasunezko 120 jarduera ezartzen ditu, Bizkaia egiten jarraitu nahi dabenak funtsezko esparruetan, adibidez garapen ekonomikoa eta enplegua, personak, mugikortasuna, jasangarritasuna, kudeaketa publikoaren hobekuntza. Horregaz, gainera, gure udalerrri eta eskualdeen garapen orekatua eta jasangarria lortu nahi da, beti be politika horreek 2030 agendeagaz guztiz bat datozeela bermatuz.

Eta, gainera, Aldundiak gura izan dau, lehen esan dan moduan, gastuari bakarrik lotzen jakon estrategia hori diru-sarreretan be proiektatzea, fiskalitatea lehenengoz erakunde horren Estrategia Integralaren zerbitzura jarritz garapen jasangarriagaz. Horretarako, Aldundiak lankidetz hitzarmena sinatu dau Mariana Mazzocatok zuzentzen dauen departamentuagaz University College of Londonen. Garapen jasangarriaren helburuak babestuko dituan zerga-politika garatzeko. GJHetara bideratutako munduko lehenengo zerga-sistema lortzeko lehen urratsa da. Gainera, zerga-egitura bat sortzen da, hazkunde ekonomikoari laguntzen deutsana, osasuna, ingurumena, bardintasuna eta hezkuntza estaltzeko.

Eta amaitzeko, lan honen garapen metodologikoari balioa emon gura deutsat. Izan be, proiektuak, ekintzak edo ildo politikoak definitzea bezain garrantzitsua da euron jarraipena eta ebaluazinoa egiteko sistema bat ezartzea. Eta aurreko Osoko Bilkuran esan zan moduan, Koordinazino, Ebaluazino eta Jarraipen Zuzendaritzak programa guztien jarraipena, ebaluazinoa eta kontuak emotea egiteko eredu bat ezarri dau, sail guztiakaz sarean lan eginez. Eredu horrek, gainera, honako honeek ekarriko ditu: lehenengo, ekintza guztien monitorizazinoa; bigarren: metodologia-esparru komuna, hau da, danok hizkuntza bera erabilten dogu; eta hirugarren: lana taldean eta sarean, plangintza- eta kontrol-gaitasunak indartuz. Jarraipena diseinuaren hasierako fasean, aurrekontua gauzatzean eta ekintzen azken emaitzen ebaluazinoan egingo da, 400 adierazle baino gehiagoren bidez. Eta hori guztia sarreren eta gastuen gainean proiektatuta. Baita herritarrek eta lurraldeko eragile sozial eta ekonomikoek be parte hartuta. Adibide batzuk jarri izan dira. Eta parte garan beste erakunde eta sare batzuk alkarlanean, Udalsareagaz, esaterako.

Laburbilduz: konpromisoa eta borondate politikoa daukagu, agenda jasangarria daukagu, erronka horreek garatzeko baliabide ekonomikoak daukaguz, aurrerapenak neurtzeko eta agendaren ezarpena bideratzeko metodologia daukagu, eta alkarlanean jarduteko eta indartsuago bihurtzeko sareak ehuntzen ditugu. Beraz, nahiz eta zuen mozinoa interesgarria izan, ez dogu onartuko, eskatzen dauena edo egiten hasita dagoalako, edo prozesuko beranduko unean proposatzen dauelako, edo gure ustez txarto bideratuta dagoalako. Baina eskua luzatzen deutsut Bizkaia hobea, bidezkoagoa, justuagoa eta daukagun planetagaz errespetuzkoa egiteko prozesuan erabakitazunez eta borondatez jarraitzeko. Gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señora Gil Llanos. Y tiene la palabra la representante del grupo Nacionalistas Vascos, la señora Ibernía Belamendia.

La Sra. **IBERNIA BELAMENDIA** andreak: Gracias señora Presidenta, buenos días a todos. Elkarrekin Bizkaia Taldeak Bizkaiko Foru Aldundiaren politiketan garapen jasangarriko helburuak ezartzeari buruz aurkeztutako mozinoaren eztabaideagaz hasteko, esan behar da helburuok kontuan hartu dirala Bizkaia Egiten agintaldiko plana egitean, garapen

jasangarriko helburuakaz bat datozen 120 jarduketagaz. Jarduerok gure lurraldea hobetzeko pentsauta dagoz, eta hiru ardatzen inguruan egituratzen dira: kostaldea, itsasadarra eta Bizkaia berdea. Eta lau eremutan garatzen dira: jarduera ekonomikorako enplegua sortzea eta hobetzea, personak eta aukera-bardintasuna, mugikortasuna eta iraunkortasuna, eta kudeaketa modernoa eta zabala.

Lehen esan dozun lez, jarraipen- eta ebaluazinarako eredu bat be badago, eta horren barruan sartzan da kontu emotea, bai urteko txostenen bidez, bai eskualde- eta sektore-topaketetan, Diputadu Nagusiak eta foru-diputaduek kudeaketaren barri azaltzeko herritarrei. Beraz, erronka horreei erantzuten deusie Bizkaia Egiten 2019/2023 estrategiak, 120 jarduerakaz, egiten jarraitzeko helburuagaz eta lurralde osoko herri guztien garapen orekatu eta jasangarrirako aukera zehatzak emoten dabezanak.

Bizkaiko Foru Aldundian ezarritako ebaluazino- eta jarraipen-ereduari jagokonez, balio dau garapen jasangarriko estrategia hedatu ahal izateko eta Bizkaian GIHen lorpen-maila monitorizau eta ebaluatu ahal izateko, adierazleen eta proiektuen bidez. Gitxienez urtean behin, Bizkaiko Foru Aldundiak GIHakaz egindako ekarpen-mailaren ebaluazino sakona egingo litzateke. Lehen esandako moduan, jarraipena eta ebaluazino hiru mailatan ezarri dira: proiektuaren aurrerapena identifikatzean, bigarrena jarraipenaren eta ebaluazinoarena, eta ebaluatzen diran jardueren emoitzen ebaluazinoan, 400 adierazle baino gehiagogaz.

Kontratazino dala-ta, uste dogu kontratazino publikoaren izaera instrumentalagaz helburu asko lortu gura dirala, kontratazino arduratsu eta kalidadezkoa oinarri hartuta. Kontratazino publiko sozialki arduratsuak kontratazinoan erespede sozialak, ingurumenekoak, barrikuntzakoak eta gauzatze-baldintza bereziak sartzea eskatzen dau.

Bizkaiko Foru Aldundiaren kontratu lizitatuaren eskumenaren esparruan be, garapen jasangarria errazten daben hainbat neurri aurkitu geinkez. Neurriok garapen jasangarriko helburu desbardinakaz lotuta dagozala ulertu daiteke, eta kontratu mota desbardinetan zehazten dira.

Gainera, hori be aitatu da, Bizkaiko Foru Aldundia zergei buruzko foru-arau bat prestatzen dabil, diru-sarrera fiskalak helburu horreekaz lerrokatzeko. Udabarrian edo udan onartuta egon daitekean arau bat. Proiektu barrizaillea da, ibilbide luzekoa, eta barrueko eta kanpoko taldeak parte hartzen dabena, esaterako University College of London, nazinoarteko erreferentea.

Por lo tanto, nuestra posición sobre la moción será negativa. La estrategia de la Diputación Foral de Bizkaia se recoge en el documento Bizkaia Egiten, en el que se alinean las principales acciones y los objetivos de desarrollo sostenible. La Diputación Foral de Bizkaia, en el ámbito de sus principales competencias, concretamente las competencias en materia de hacienda, está trabajando en estos objetivos desde el punto de vista fiscal y trabajando en la estrategia y el ámbito de trabajo para su desarrollo a través de la fiscalidad junto con el equipo de la prestigiosa economista Mariana Mazzucato. Además, se han adoptado medidas para la evaluación.

Por otra parte, en cuanto a la participación en foros interinstitucionales, entendemos que el foro de nuestros municipios es Eudel, a quien corresponde participar en otras redes. Por otra parte, en la actualidad la Diputación ya está en disposición de sumarse a estos objetivos en materia de contratación y subvenciones a través de sus cláusulas sociales.

Y, para terminar, en torno a la ampliación del proceso de participación, como consecuencia de todo lo mencionado anteriormente, tampoco lo hemos visto viable, porque actualmente se está trabajando con agentes internacionales en ese proyecto en materia de

fiscalidad. No vemos claro su objetivo, y creemos que la Diputación está haciendo ese trabajo. Gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señora Ibernía Belamendia. Y pasamos al turno de réplica. Para ello, tiene la palabra el representante del grupo Elkarrekin Bizkaia, señor Escalante Mesón.

El Sr. **ESCALANTE MESÓN** jaunak: Gracias de nuevo. En primer lugar, badaezpada be, ez dodanez azaldu, zuzenketa adostuta dago, argi geratu daitela, hori bozkatuko geunke.

Ulertzen dogula esatea, eta interpelazinoan be esan neban, baina edo ez da ulertu, edo ez dot ondo azaldu. Badaezpada be, uste dogu Aldundi honek GJHakaz konpromisoa daukala, eta planteatzen doguna gauza bakarra erraza da, eta hori, gainera, aurreko interpelazinoan azaldu neban. GJHren aurretik Milurtekoaren garapen-helburuak egozan. Zer gertatu zan? Ez zirala bete, eta horregaitik pasau ginan GIHetara. Zer daukie GJHek MGHk ez euenik? Helburuak daukiez eta hori kontrolatzeko adierazleak. Kasu honetan proposatzen doguna beste gai batzuetan egiten dan zerbait da: estrategia edo plan bat planteatzea, hori beteten dan ala ez neurtzeko, edo hobetu daitekeen neurtzeko. Hori bezain erraza, eta kanpoko erakunde batek egin daiala, ze azkenean, gura doguna da borroka hau gainditzea: bai, beteten dot, ez dozu beteten. Eztabaida zentzumbako hori gainditu gura dogu ze, urrun joan barik, Bizkaia Egiten planari buruz ebilzan. Aurreko legegintzaldiko plana Bizkaia Goazen da, eta oker banago zuzendu mesedez, baina legegaldiko plan hori zenbateraino bete dan neurtzeko, txarto gogoratzen ez badot, %96 bete zenduela esan zenduen. Zein da horren neurketa? Aurrekontua, beste barik. Ez dakit helburu guztiak bete zenduezan edo ez. Aurrekontuarena zan. Eta nork neurtu dau? Ba zuek zeuok, Aldunditik, holan neurtu zenduen, eta hori modu arbitrarioan neurtu dozuenez, guk ezin dogu ezer egin, baliokoa izan zein ez. Esaten dodana da GIH horreek kanpoko erakunde batek neurtu beharko leukezala.

Gehitu, edozein erakundegaz lankidetzan egin daitekeela. Gaiaren ganeko proposamenak onartzeko prest egon gara, gure taldeak egindakoak hobetzekota. EH Bilduren eskua baino ez dogu izan, eta egin deuskuen proposamena onargarria iruditu jaku, eta horregaitik onartu dogu.

Nik ez dakit gure taldeak gai honi buruz beste batzuek baino kezka handiagoa daukan. Gureak, behintzat, badauka, eta horregaitik ekarri dogu Osoko Bilkurara. Agian beste batzuek gehiago daukie, baina tira, guk gai honetan ekin egiten dogu, garrantzitsua egiten jakulako, eta ez fiskalidarearen gaian bakarrik, horregaitik proposatzen dogu maila globalean.

Esan, gero, 5. puntua baztertzeak, giza eskubideak eta GIHak kontratazino-klausula bat gehiago izan behar daben edo ez baztertzeak, uste dot agirian ipinten dauela uko egiten deusana. Eta behin eta barrero esatea, amaitzen joateko, uste dogula GJHak bereziki beharrezkoak dirala. Ikusi ia betetzen goazen edo ez. Egia esan, guztiak dira, direnak izango ez balira, baina, adibidez, bada deigarriren bat, adibidez, GIH 1, pobreziari era guztietan eta mundu osoan amaiera emotea aitutzen dauena. Bizkaian, gustau zein ez, espero dot ezetz izatea, gero eta jente gehiago dago pobrezia-egoeran edo pobreziarako arriskuan. Hori egia da, eta ez dira neurriak jartzen, eta justu aurrekontuetatik gatoz, eta hori egoerea gorabehera, ez dago desbardintasunik aurreko aurrekontuakaz alderatuta gai sozialetan. Gure ustez gehiago azpimarratu beharko zana, eta, batez be esan nahi dot uste dogula ez dirala jarri GIHak, ez dirala aurrekontuetan itzuli. Baina kontua ez da GJHak izatea, pobrezia desagerrarazotea baino, gure ingurumena zaintzea, GJHetan islatzen diran hainbat gai, eta ikusten dogu ez dirala islatu ez

politiketan, ez Aldundi honek gauzatzen dituan politiken isla zehatzagoan, hau da, aurrekontuetan.

Eta amaitzeko, nazinoartekotzeaz hitz egiten dozu. Urrin joan barik, Bizkaian badira empresa batzuk, Siemens Gamesa kasurako, kanpoan egiten dabezan jarduerak zalantzarriak diranak Mendebaldeko Sahararen kasuan, eta horregaitik proposatzen genduan neurtzea ia empresa horreekaz lankidetzan jardun behar dan edo ez, giza eskubideak beteten dabezan edo ez eta GIHak beteten edo onartzen dabezan kontuan hartuta. Eta tira, gobernuko alderdiek zehaztapenok ez onartzeak GJHakaz daukien benetako konpromisoa islatzen dau, eta, gehiago, kontuan hartuta ez dala egon ordezeko zerbait proposatzen dauen zuzenketarik, ze hori bai ulertu geinkean.

Por nuestra parte esto es todo, gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias, señor Escalante Mesón. Tiene la palabra la representante del grupo Euskal Herria Bildu, la señora Arriola Alzona.

La Sra. **ARRIOLA ALZOLA** andreak: Muchas gracias, señora Presidenta. El señor Escalante ha mencionado, y yo coincido en eso, que no sé qué equivocación o qué fallo hay en formar ese ente o el observatorio o lo que sea como árbitro que se menciona en el punto 2, para la monitorización de las Juntas Generales y del Sector Foral para ver si se cumplen los objetivos de desarrollo sostenible, hasta dónde, y para poner ese termómetro, no sé en qué perjudica eso. Porque, si no, el señor Escalante también lo ha mencionado, y yo también creo, que aquí nos encontramos con diferentes interpretaciones. Nosotros tenemos una lectura, Elkarrekin Bizkaia tendrá otra, el Partido Popular otra, ustedes otra y el Partido Nacionalista Vasco otra. Por lo tanto, no sé por qué hay tanta resistencia a que la mire un externo, para evaluar cuáles son las consecuencias de las políticas que hacen la Diputación Foral de Bizkaia y las Juntas Generales. No entiendo esa resistencia.

Si a mí me preguntan, la lectura que yo voy a hacer es la siguiente: que, sobre esos objetivos de ODS o desarrollo sostenible, el objetivo de que el agua y el saneamiento digno estén garantizados para todos los vizcaínos es un objetivo que hoy no se cumple y eso es evidente. Y me voy a basar en un documento suyo, precisamente he consultado qué ha presentado el Gobierno Vasco a Next Generation con respecto a esta cuestión en Bizkaia. Y ha presentado el saneamiento del puerto de Bilbao, 9 millones de euros; el EDAR de Güeñes, 7,6 millones de euros; el colector de Muxika-Gernika; 10 millones de euros; 4,6 millones de euros en Nervión para hacer frente al lindano. Sí que hay necesidades, ¿Y qué ha dedicado la Diputación Foral de Bizkaia a eso en sus propios presupuestos? Muy poco, ¿no? Es decir, hay diferentes formas de hacer lecturas, pero estos son datos objetivos.

Luego, también con el agua, ¿qué hace la Diputación Foral de Bizkaia? Pues jugar al monopoly. ¿Cómo? Pues obligando al Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia a que todos los ayuntamientos entren allí y dejando el agua en manos de las grandes multinacionales, a las grandes subcontratas, el mayor lobby, Suez, Acciona, etcétera. ¿Eso es dejar el agua a disposición de la ciudadanía? ¿o es alejarse? Pues ahí están las interpretaciones.

Acceso a la energía no contaminante, otro objetivo de sostenibilidad. Pues aquí, tener acceso a una energía no contaminante, perdone que se lo diga, pero eso lo sabemos todos. Primero no es público; y segundo, las energías renovables en Bizkaia tenemos muy pocas, no llegamos al 5%. Aquí se puede trabajar mucho, fomentar comunidades energéticas locales, etc. ¿Pero se hace? ¿Qué hay en los presupuestos de la Diputación Foral de Bizkaia en 2021 respecto a esto? 0 euros.

Promover actuaciones y acciones de cambio climático. Este es otro objetivo de desarrollo sostenible. ¿Qué hay en los presupuestos de 2021 para ello? 0 euros. Crear ciudades y comunidades sostenibles es otro de los objetivos. Y cuál es, pues, sostenible, las ciudades y las comunidades. Pues no entendemos las cosas igual o si no estamos realmente en las antípodas. ¿Porque para ser sostenibles, necesitan un nivel alto de autonomía, y cuál es el nivel de autonomía que hay actualmente? Si somos totalmente dependientes. En alimentación sólo se produce el 5%, el resto, el 95 %, viene de fuera a nuestros platos. Eso no es ser sostenible, eso es tener un nivel de dependencia enorme.

Lo mismo en energía, sólo el 5% se produce aquí. El resto viene de fuera. Eso es tener un nivel de dependencia enorme. Por lo tanto, estamos en las antípodas de la sostenibilidad, y así en muchas otras cuestiones. El tema del agua, que es muy importante. El 22 de marzo, día internacional del agua, y el lema de este año es 'Qué es el agua para ti'. Pues deberíamos reflexionar mucho sobre el agua también en Bizkaia. Mantener la vida de los ecosistemas terrestres: pues no está claro qué pasa en Bizkaia, no hemos dado una vuelta sobre cómo están las tierras, qué pasa después de las explotaciones forestales, cuando entra la maquinaria pesada, cuando todo el humus, una capa de cinco centímetros de superficie terrestre acaba en los ríos, eso provoca inundaciones, erosión. Es decir, estamos en las antípodas de la sostenibilidad.

¿Que la transición ecológica puede generar empleo? De acuerdo señora Gil, pero para eso hay que dibujar una hoja de ruta, las políticas activas hay que diseñarlas, y ahí está el reto. Tome el reto, es totalmente necesario. Bizkaia debe tomarse este tema en serio. Porque está muy verde Bizkaia. La tarea es grande, nuestra colaboración la tendrán siempre, estaremos dispuestos, pero por favor, abramos los ojos y veamos la realidad que tenemos delante. Gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias, señora Arriola Alzola. Tiene la palabra la representante del Grupo Mixto-Partido Popular Bizkaia, señora Fernández Angulo.

La Sra. **FERNÁNDEZ ANGULO** andreak: Eskerrik asko. Hasteko, esan gura dot ez dodala izan nahi Foru Diputatu andrei ondoetorria emoten ez deutsien talde bakarra. Nik pribatuan egiteko gogoia neukan, baina beharbada publiko ez egitea bilatu bako zentzuan ulertu daiteke, eta, beraz, gainerako talde politikoeak egin daben ondoetorriagaz bat egin gura dot, eta, jakina, onena opatzea Foru Gobernutik alde egin daben persona bieri.

Gaiari helduta, esan gura dot nire taldearen jarrera ia distantziakidea dala Gobernuari eusten deutsien taldeek adierazi dabenaren aldean, iruditu jat ondo laburbildu daitekeela eta, bestalde, ez da ohikoa ez dan zerbait be: honezkero egiten da eta, gainera, hemen poz-pezik gagoz. Hori izango litzateke laburpena gitxi gorabehera. Eta interpelazioaren ondoriozko mozinoan jasoten diran bost puntuak inplementatu behar diralako jarrera.

Nire ustez, zuhurragoa eta arduratsuagoa da, lehenengo auditoria bat egitea, zer egin dan, zer egiten dagoan eta, benetan, daukagun ikuspegia egokia dan lortu gura doguna lortuzeko. Ze badirudi helburu partekatua dala garapen jasangarriko helburuak zeharka ezartzea Bizkaiko Foru Aldunditik bultzatzen diran politika publikoetan gastu bat sustatu baino lehen; hain zuzen be, lehenengo hitzaldian egin ditudan mugaketa batzuk agirian ixten dabe ez dagoala argin hain hain eraginkorra danik.

Erantzunen txandan argi geratu da 5. puntuaren interpretazioan alde handia daukagula be. Nik ez dot uste garapen jasangarriaren helburuak aplikatzea oztopo izan behar danik, ez lehenengo hitzaldian ipini dodan adibiderako, izan be, zuk beste enpresa bat aitatu dizu, euskal enpresa bat, ez dakit zer esan gura izan dozun haregaz dagoan hartu-emon

instituzionala dala-ta. Hori errealidadetik aur bat aldentzea dala egiten jat, nire ustez gero eta esparru gehiagok, baita pribaduak be, garapen jasangarriaren helburuakaz daukien konpromisotik aldentzea. Eta uste dot tribunatik halango gauzak esatea ez dala oso pedagogikoa, eta gitxi laguntzen dauela Bizkaian gero eta sektore gehiagok parte hartu dagien, konpromisoa hartu dagien eta ilusionatuta egon daitezcan hori bultzatzeko. Eta ez naz helduko orain dala gitxi Osoko Bilkura baten gertatu zaneraino, erretiretako eskatzea, baina begitandu jat, deigarria egin jat, eta zer nahi dozu esatea, harrigarria egin jat. Baina, tira, ñabardura bat egin behar dala uste dot; ze nire ustez, garapen-helburuak lortzeko eta aplikatzeko aurrera egiteko alderdi publikoa eskatzen dau, baina baita pribadua be. Orduan ez gaitezcan hasi enpresa konkreituak, sektore konkreituak kriminalizetan, gai honetan, esan dodan moduan, tribuna honetan batzuetan erakusten dan baino adostasun handiagoa dagoan gaian.

Gure aldetik, iragarri behar dogu ez dogula interpelazioaren aldeko botoa emongo.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias, señora Fernández Angulo. Tiene la palabra la representante del grupo Socialistas Vascos, la señora Gil Llanos.

La Sra. **GIL LLANOS** andreak: Gracias de nuevo. Bigarren zati honetan ñabarduraren bat egiten ahaleginduko naz. Zuekaz gogoeta bat partekatuko dot eta berrespen bat egingo dot. Azkenetik hasiko naz, berrespen bat eginaz.

Hain zuzen be, helburuetan, GIHetan eta agendan 2030ean. Zergaitik hain astun agendaren berrespene erreplikatzan? Gaur goizean hemen egin diran hitzaldietako batzuk entzunda, iruditzen jat gerizpe bat zabaldu dala, gobernuaren gainean edo gobernuari eusten deusagun taldeen gainean susmo bat dagoala, ez daukagula GJHakaz konpromiso nahikorik. Edo, bestela esanda, gehiago dala erretorika benetakoa baino, edo gehiago itxura mamina baino. Eta uste dot guztiz faltsua dala, eta guztiz faltsua da gaur goizean esan dodanagaitik. Lehenengo, borondatea eta erabakitasuna daukagulako; bigarren, agenda jasangarria daukagulako; hirugarren, metodologia, ebaluazioa eta kontuak emotea ditugulako, bai, eredu propio bategaz, eredu propio bategaz. Eta prozesuaren hiru unetan emoten ditugu kontuak. Uste dot informazioa kontrastau egin daitekela. Eta, gainera, lurraldeko eragile sozial eta ekonomikoakaz sareak ehuntzeko bokazioa daukagulako, horrek indartu egiten gaituala uste dodalako. Izan be, GJHena ez da folio bat hartu eta kolorintxuak margotzea, horretan danok ados gagozala uste dot. Ez da esatea, lehenengo nire ekintza-plana egingo dot, eta orain ia zelan sartzen dodan disko honetan datozen kolorintxueta. GJHena ez da hori. Ezta be aitatzea beste barik, ia nor dan GJHen txapelduna.

Metodologia bat behar da, diagnostiko bat. Eta diagnostiko bat dago, eta gobernu-plana, hain zuzen be, diagnostiko baten oinarrituta egin da. Hor ezarri dira Bizkaiak dituan indarguneak, ahuleziak eta erronkak. Eta diagnostiko horretan oinarrituta, ekintzak lehenetsi dira, lehen aitatu dodazan 120 ekintzak. Eta hori guztia agendaren printzipio gidarien oinarrian eta filosofian finkatuta egin da. Labur-labur laburtutearren, horrek zerikusia dauka desbardintasunak murrizteagaz, inor atzean ez ixteagaz, planeta errespetetan dauen garapen ekonomiko jasangarri arrazoizkoa izateagaz eta prozesuetan gardentasuna eta parte-hartzea izateagaz.

Baina nik gaur hemen ahaleginik handiena eginda be 400 adierazleena, ekintzena, metodologiarena, kontu emoteko moduarena eta abar azaltzeko, nik uste dot hemen mesfidantzazko jarrera dagoala eta gobernuagazko mesfidantzan kokatu zariela. Oin dala gitxi gertatu zan Diputaduen Kongresuan, Espainiako eskuinak Pedro Sanchezen Gobernuari esan eutsanean: "Zuekaz fietan ez garanez, datozela nazinoarteko itun batzuk Europako funtsen

kontu horrega, eta etorri daitezala eta ebaluau gagezala, eta definitu dagiezala". Ba, begira, eta hemen doa gogoeta.

Imajinetan dogu oposizinoak Gobernuagaz mesfidantza daukan bakotxean, ze definizinoz ia beti eukiko dau mesfidantza Gobernuagaz, kanpoko aditu bati deituko bageuntso, ebaluetako, definituteko eta politika planifiketako? Non dago politika? Non geratzen dira alderdi politikoak? Non dago ideologia? Ni ez nator bat teknokraten eredu bategaz. Eta hori dinot zuek aurkeztu dozuen ekimenean, 5 puntuetatik hiru kanpoko elementuek eta kanpoko eragileek egin beharreko planifikazinoa, ebaluazino eta kontrola. Nire ustez, zuek mesfidantza handia daukatzue gobernu honek arlo horretan egin gura dauenaz. Baina gauza bat partekatuko dot Fernández andreagaz. Nik uste dot gauza gehiago ditugula talde guztiok alkarregaz, alkarrengana hurreratzen gaituena gehiago da aldentzen gaituena baino. Horregaitik, talde gisa, Bizkaia hobea eregiteko bidean bat egiten dogun bitartean, nire taldeak lan egingo dau Bizkaiko herritarren konfiantza berresten eta irabazten jarraitzeko. Eta eskerrik asko, zuzenketa biak komentetako denpora barik geratu naz eta. Parkatu.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias, señora Gil Llanos. Y tiene la palabra la representante del grupo Nationalistas Vascos, la señora Ibernía Belamendia.

La Sra. **IBERNIA BELAMENDIA** andreak: Gracias de nuevo. Gure ustez, Bizkaiko Foru Aldundia garapen jasangarriko helburuak ezartzen dabil Bizkaia Egiten Planaren bidez. Lehen esan dogu, plan horrek, helburuok planak proposatutako ekintzetan daukien eragina ebaluetako eta jarraipena egiteko sistema bat garatzen dau. Gainera, arlo fiskalean lanean gabiliz, baita helburuak ezartzeko be, arestian deskribatu dogun moduan. Beraz, gure taldetik ez dogu Elkarrekin Bizkaia Taldeak aurkeztutako mozinoa babestuko. Gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias, señora Ibernía Belamendia. Y terminado el debate, y cuando todos estemos sentados, someteremos a votación la moción, con las enmiendas aprobadas, con las enmiendas incluidas, por lo tanto. Votos a favor de la moción. Votos en contra. No hay abstenciones. El resultado es de 48 votos emitidos, 15 a favor y 33 en contra. Por tanto, no se aprueba la moción.

Los puntos cuarto y quinto del orden del día se debatirán conjuntamente.

El Sr. **SECRETARIO / IDAZKARI** jaunak: Bai, puntu bi alkarregaz eztabaidatuko dira, bateragarriak diralakoa.

4.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

Iniciativa Originaria: Moción derivada de Interpelación ([R.E.11/E/2021/0000866](#))

Autor: Méndez Urigoitia, Raul (EHB)

Asunto: Los proyectos para avanzar en la extensión del metro en Bizkaia a través de las Líneas 4 y 5.

Documento

([R.E.11/E/2021/0000866](#))

Principal:

Boletines: [Admisión a trámite y apertura del](#)

4.- Hurrengo idatziari(ei) buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:

Jatorrizko ekimena: Itauetik eratorritako Mozinoa ([11/E/2021/0000866SE](#))

Egilea: Méndez Urigoitia, Raul (EHB)

Gaia: Bizkaian metroa 4. eta 5. lineen bidez hedatzen jarraitzeko egitasmoak

Dokumentu Nagusia: ([11/E/2021/0000866SE](#))

Aldizkariak: [Izapidetzeko onartzea eta zuzenketa-eskeak aurkezteko epea zabaltzea](#) (23A)

[plazo de enmiendas](#) (23A)
Expediente: [\(11/B/20/0002048\)](#)

5.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

Iniciativa Originaria: Proposición no de norma [\(R.E.11/E/2020/0002604\)](#)

Autor: Fernández Angulo, Amaya (GM/TB-PPB)

Asunto: Futuro de las líneas 4 y 5 del metro.

Documento Principal:
[\(R.E.11/E/2020/0002604\)](#), [\(R.E.11/E/2020/0002807\)](#)

Boletines: [Admisión a trámite y apertura del plazo de enmiendas](#) (120A), [Enmiendas: Admisión a trámite](#) (120B)

Expediente: [\(11/B/26/0001807\)](#)

Espedientea: [\(11/B/20/0002048\)](#)

5.- Hurrengo idatziari(ei) buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:

Jatorrizko ekimena: Arauz besteko proposamena [\(11/E/2020/0002604SE\)](#)

Egilea: Fernández Angulo, Amaya (GM/TB-PPB)

Gaia: 4. eta 5. lineen etorkizuna

Dokumentu Nagusia:
[\(11/E/2020/0002604SE\)](#), [\(11/E/2020/0002807SE\)](#)

Aldizkariak: [Izapidetzeko onartzea eta zuzenketa-eskeak aurkezteko epea zabaltzea](#) (120A), [Zuzenketa-eskeak: Izapidetzeko onartzea](#) (120B)

Espedientea: [\(11/B/26/0001807\)](#)

La Sra. **PRESIDENTA** / **LEHENDAKARI** andreak: Gracias señor secretario. Por lo tanto, para empezar con el debate, tiene la palabra el representante del grupo EH Bildu, el señor Méndez Urigoitia.

El Sr. **MÉNDEZ URIGOITIA** jaunak: Sí. Gracias, señora Presidenta, buenos días a todos y todas. No será fácil debatir conjuntamente nuestra moción derivada de la interpelación y la Proposición no de Norma del Grupo Mixto, porque creemos que esta última llega tarde, porque ese debate se produjo en el Pleno de diciembre del año pasado. Hace ahora tres meses, EH Bildu propuso aquí mismo establecer financiación y plazos para la puesta en marcha de las líneas de metro que van a Galdakao y Rekalde. La propuesta que hoy presentará el Grupo Mixto es muy similar, y PNV y PSE han presentado en ésta la misma enmienda que presentaron a nuestra moción.

No sabemos, no podemos adivinar cómo va a ir el debate hoy. Pero la señora Fernández definió como "literatura colaborativa" la moción presentada por PNV y PSE. Por lo tanto, creemos que no lo va a aceptar.

Lo que sí podemos adelantar es la postura de EH Bildu, claro. Vamos a apoyar la propuesta del Partido Popular, para nosotros, a diferencia de para ustedes, señora Fernández, lo importante no son las siglas, sino los contenidos. Y apoyaremos cualquier propuesta que sirva para avanzar en la construcción de las líneas 4 y 5 del metro, siempre, sin duda.

Baina garaiak aurrera doaz, eta gaur ez dot Ganbera honetan geratu gura oin dala hiru hilabete baino gehiago egin dan eztabaida baten. Gaur, EH Bilduk abendutik hona emondako pausoak azpimarratu nahi dodaz.

Rementeria jaunak, azkenengo Kontroleko Osoko Bilkuran, Galdakaoko Udala 5. linea eregiteko inplikatzeko aukera agertu eban. Jakin badakigu Hernando jauna, Galdakaoko alkatea, Diputadu Nagusiagaz batzartu dala proposamen horri buruz galdetzeko, eta

jakinarazo deusala prest dagoala erakundeen arteko lankidetzarako, 5. linea lehenbailehen heldu daiten udalerrira.

Next Generation Europako funtsakaz bada, hobeto. Baina holangorik barik be bai. Galdakaoko Udalak jakinarazo deutso prest dagoala Foru Aldundiagaz eta Gasteizko Gobernuagaz batera behar dan lekuan eta behar danean bultzatzeko 5. linearen proiektuak aurrera urten daian.

Erakundeen arteko lankidetzaz horrek Aperribai eta Bengoetxe auzoetako geltokiak eta Usansoloko Euskotrenen linea orokorragaz lotura bermatzeko balio badau, badakizue EH Bilduren babesaz daukazuela.

Dar pasos para avanzar, garantizar la disposición para consenso y colaboración interinstitucional y la financiación son los compromisos que requiere actualmente la línea 5. Y EH Bildu está en esa dirección.

Y en cuanto a la línea 4, que es el eje de la moción que presentamos hoy, también se han producido avances, avances muy positivos a juicio de EH Bildu.

Bilboko Udaleko EH Bildu taldeak mozino bat aurkeztu eban, une honetan egiten dabilzan informazio-azterlana gehiago ez atzeratzeko eta ETSk uda amaieran entregatu daian, azkenengo luzapenean ezarritakoa beteaz.

Eta horregaz batera, hurrengo urratsa, eraikuntza-proiektua idaztea, lehenbailehen egitea proposatu eban, beranduenez 2022ko lehenengo seihilekoan.

Mozino hori gobernu-taldeagaz transakzionatu zan, eta udal-talde guztiek babestu eban, aho batez.

Izan be, uste dogu udalek, bai Bilbon bai Galdakaon, buru izan behar dabela metroa etorteko eskabidean, beren auzoetako eskaerei erantzun behar deusiela, eta proiektuok lehentasunezko helburu gisa ezarri behar dabezala udal-agendan.

Beste behin be, EH Bilduk urratsak egin ditu, proposamenak adosteko eta aurkezteko gai izan da, metroaren 4. linea eregitea gehiago atzeratu ez daiten eta lehenbailehen gauzatu daiten.

Eta denpora-tarte horretan, herritarrentzako parte-hartze prozesua abiarazo da 4. linean. Izan be, atzo bertan itxi zan herritarrek egindako 6 saio telematikoen azkena. 100 pertsonak baino gehiagok parte hartu dabe, eta 150 ekarpen baino gehiago egin dira. Horrezaz gainera, on-line inprimakien eta posta elektronikoen bidez jasotako guztiak gehitu beharko dira.

EH Bilduri jagokonez, badakigu herritarren eretxia oso garrantzitsua dala metroaren 4. linearen proiektua diseinetako orduan, proiektu horrek benetako beharrei erantzun deien. Horregaitik, parte-hartze prozesuaren figura proposatu genduan 2018an, Bilbo Hegoaldeko auzoetako bizilagunen eta gizarte eragileen ekarpenak kontuan hartuko zizala bermatzeko.

Bai Batzar Nagusietan, bai Gasteizko Legebiltzarrean, partaidetza-prozesuaren aldeko proposamen bana berretsi zan aho batez.

Halanda be, prozesu horren aurretik, Euskal Trenbide Sareak eta Arriola sailburuak erabagi eban zeintzuk ziran aurkeztu beharreko "aukerarik onenak", zeozelan eztabaidarako eta ekarpenetarako aukera lapurtuten ahaleginduz, eta prozesu parte-hartzailea

Bilboko hegoaldeko bizilagunetara mugatuz, aukera biren artean baino ezin dabelako aukeratu, bere garaian eztabaidatu ziran beste batzuk alde batera itxita.

Esan dodan moduan, gaur ehunka ekarpen ditugu, eta behin betiko Informazio Proiektuan jasotea espero dogu.

Hona horreetako batzuk, eta zerrendatu egingo ditut, ezagun egiten joan daitezcan:

- Sartu proiektu eta trazadura guztiak, ez baztertu hasieratik. (Zehazki, gaur hona ekarri dogun proposamena, mozino bidez, proiektuaren aurkezpenean sartuta ez egon arren, halan eskatu dabe herritarrek, bai edo bai)

- Termibusegaz lotura zuzena ziurtatzea. Gure ustez, ezinbestekoa da hori lineen arteko intermodalidadea bermatzeko.

- Ez ahaztu Zabalburuko geltokia eta San Adriani eta Miribillako behealdeari urtenbidea emotea. San Frantzisko eta Zabala be ez dira ahanztuta itxi behar, bideak etxetik gertu igarotzen dira eta.

- Eta gauza bera Santa Ageda eta Kastrexanako geltokietan, metroa geltoki horreetatik igaroko bada, bideok erabiliko baditu, zerk eragozten dau han gelditzea? Zergaitik itxi albo batera geltoki bi horreek Alonsotegira heldu aurretik?

Eta holan 150 ekarpen baino gehiago, aztertzeko denbora eukiko dogu.

Consideramos que todas las alternativas analizadas en este proyecto de participación de la Línea 4 de Metro deben incluirse en el informe y, en su caso, justificar las razones de exclusión de las no seleccionadas.

Por todo ello, solicitamos a Euskal Trenbide Sarea que recoja todas las alternativas y aportaciones analizadas en el informe, incluido el proyecto inicial de la Línea 4, para su presentación y debate en el proceso participativo que se desarrollará en los barrios del Sur de Bilbao.

Aunque con eso último vamos un poco tarde, ya que los encuentros digitales finalizaron ayer, quedan 15 días más para realizar aportaciones en los Udaltegis del distrito.

Eta amaituten noa. Gaur metroaren lineak eregiten aurrera egiteko beste proposamen bat bozkatuko dogu, zehazki metroaren 4. linean aurrera egiteko, herritarrei berbea emonaz eta euren ekarpenak kontuan hartuz. Proposamen horri esker, metroa Errekaldara eta Bilboko hegoaldeko auzoetara heltzeko pauso sendoak emoten jarraitu ahal izango da, konpromisoakaz. Nada más, muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias, señor Méndez Urigoitia. A continuación, tiene la palabra la representante del Grupo Mixto-Partido Popular Bizkaia, señora Fernández Angulo.

La Sra. **FERNÁNDEZ ANGULO** andreak: Eskerrik asko, mahaiburu andrea. Benetan talde bezala eta bizkaitar bezala, gurago izango genduan barriro zabaldu behar ez izatea eztabaida, oin dala urte batzuk behin betiko itxita eta konponduta geratu behar zan gaiari buruz. Baina, ezinbestean, gaurkotasunak, errealidadeak, barriro be, Metroko 4. eta 5.

lineei buruzko eztabaida Legebiltzar honetara ekartera behartzen gaitu. Izan be, bizkaitarren heren batek baino gehiagok ez dauka metroa erabilteko aukerarik, Galdakaoko ospitalea dalako metrorik ez daukan Bizkaiko ospitale bakarra.

Beraz, engainu baten eta hainbat desengainuren historia luze baten aurrean gagoz. Metroari buruzko politika guztia ke-gortina bat izan da, inora ez joateko bidaia bat, bete bako konpromisoetan dirua botatea eta baliabide publikoak xahutzea. Lurperatu eta auteskunde garaian barriro ateraten ziran proiektuak, ondoren barriro lurperatzeko. Bukle politiko bat, herritarrengan etsipena eta desengainua baino eragin ez dauena.

Gainera, benetako deskontrola erakutsi dau bukle horrek. Hainbesteraingo ze, gaur egun ez dakigu zenbat azterlan, txosten, proiektu eta dokumentazio dagozan, oro har, 4. eta 5. lineei buruz. Egin diran guztiak, ez nabil asmatzen, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuak nire taldeak eskatutako informazioari emondako erantzuna da.

Erantzun horregaz beragaz, azterlanei eta abar eta abar jagokenez, aitortu egiten da 34 urte igaro dirala Bilboko Udalak Metroa eregiteko planari egindako alegazio bategaz hasi zantetik. 34. Ondorioz, 17 urte igaro dira 2003. urtean trenbideko LPSa bezalako dokumentuek Galdakaon jarduteko eskatu ebenetik. Eta 2,5 milioi euro geroago, 5. linearen etorkizuna Europaren pentsudan itxi dozue.

Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak urteera bako kalezulotik ihes egiteko bidea aurkitu dabe, aurretik egindako baieztapenakaz eurak kokatutako lekutik: arazoa Europara eroatea; erreklamazioak, Europara; eztabaida eta erantzukizuna, Europako funtsetara. Holan, errealidade eta historia lazgarri batetik ihes egin nahi da, behin eta barriro erretorika eta hauteskunde sloganen erretolika batetik, ezerezean geratu diranak, edo, gehienez be gai berari buruzko aldaeretan, azterlan, proiektu eta txostenak tintaz bete dabezanak, eta tribunetako eta atriletako diskurtso-sorta bat. Azken baten, milioika euroko nahasketa azterlanetan, plangintzatan, proiektu alderraietan, erabagietan, eztabaidetan, konpromiso antzuetan, bete bako promesetan. Europa barik ez dago metroaren 5. linearik.

Hori da errealidadea. Tribuna honetan beste askotan erreparatu dogu zein izan dan gai honen historikoa. Joan den urriaren 28tik honakoa bakarrik ekarriko dot. Orduan, Diputadu Nagusi jaunak iragarri eban aurreikusita egozan proiektu gehienak Europako laguntza barik gauzatuko zirala: Lamiakoko ibaipekoa, Supersur-en luzapena. Halanda be, metroa Galdakaora heltzea Europako laguntzen pentsura itxi zan. Metroa Galdakaora eta Bilbo hegoaldeko auzoetara zabaltzeko, Europako laguntzak beharko dirala esan zan. Laguntza hori barik ia ezinezkoa izango da guk geuk bakarrik egitea. Are gitxiago bizitea egokitu jakun pandemia egoera honetan. Horixe esan jakun.

Handik hilebetera, egin zan Osoko Bilkuran, Aldundiak metro-sarea Galdakaogaz eta Bilboko hegoaldeko auzoakaz lotzeko konpromiso irmoa berretsi eban, baina ohartarazi eban izapideak konplexuak zirala, eta ia ezinezkoa zala hurrengo urtean obrak hasi ahal izatea, gehieneko konpromiso gisa gitxieneko partida bat gordetea aitatur, hori egin ahal izan ezkeru.

Eta urte honetan sartu gara. Bilera horretan Diputadu Nagusi jaunak agerraldia egin eban Batzordean Lurralde Plangintzako sailburu jaunagaz. Proiektu biak ze egoeratan egozan aztertu zan, eta ondorioa izan zan, hain zuzen be, ezinezkoa zala amaitzea Europako funtsen konpromiso barik, finantziazio barik. Epe laburrean Europako funts barik bideraezina zala esan zan. Eta urtarilaren amaieran be, egin genduan batzarrean, berretsi egin zan lehenengo eta behin proiektu horrek Europaren babesa jasotea lortu behar dogula.

Azken baten, orain errealismoaz berba egiten jaku, errealismo-ariketa bat egin behar dogula, azpiegitura horreen ganeko egoera ulertu behar dogula. Urteetan zehar, bosturtekoetan, irrealidadea bultzatu eta ostean. Esne-saltzailearen ipuinaz berba egiten da, baina hori izan da erakundeek azpiegitura horri jarri deusien kontakizuna. Ganberan beste batzarkide batek esan dauen moduan, Foru Gobernuak berba asko egiten dau trenez, baina errepideak baino ez ditu egiten. Ez dago baliabiderik 5. linearako, baina badagoz beste proiektu batzuetarako.

Azken baten, uste dogu beharrezkoa dala hitzetatik ekintzetara pasetea, konpromiso handiagoetara, konponbidera. Hau 5. linean da, baina 4. linean 12 urte igaro dira Moyua eta Errekalde arteko metroaren hasierako trazadura egin zanetik, eta egoera ez dago 5. lineatik oso urrun. 2019ko urtarrilaren 17an, trenbide-urtenbide posible baten barri emon zan, une haretan diseinatuta egoan 4. lineako proiektua aparkatzen ahaleginduten zana. Ondoren, hasiera emon jakon parte-hartze prozesuari buruz be berba egin zan. Eta, bai, akordio bat lortu da Bilboko Udalean, baina ez da aho batekoa izan. Ez da aho batekoa izan, honezkero onartezina eresten deusagulako herritarrei irrealidade falta saltzen jarraitzea. Izan be, akordio horretan ohar bat dago oso garrantzitsua dana: ahal izan ezker. 34 urteko ibilbidea kasu baten, eta 14 urtekoa beste baten, iruditzen jaku berbeagaz idatzi bat sinatutu eta konpromisoa hartzeko gai dala, baina gero gertaerek ez daukiela zertan lagundu. Eta horregaitik ez zan bat etorri Bilboko Udalean itxi zan akordio horretan, barrero be berba hutsak ziralako, eta uste dot Galdakaoko herritarrak, Bilboko hegoaldeko auzoetan bizi diran herritarrak, gogaituta dagozala berba hutsakaz, berbakaz aspertuta, galeriari begira hartutako konpromisoez nekatuta, ahalik eta talderik gehien sinatutako idazkiak, baina gero, bizkaitarren herernak benetan behar dabena gauzatzen ez dabena.

Eta, beraz, amaitzen noa, beharrezkoa dogu, mozino honetan jasoten dogun moduan, kronogramak, konpromisoak, egutegiak, zerbitzua hasteko datak, baliabide ekonomikoak. Mozino hau, nire aurretik hitz egin dauenak esan dauenez, ekintzetarako da, ez berbetarako.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias, señora Fernández Angulo. Los grupos Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos presentaron una enmienda. Por lo tanto, tiene la palabra el representante del grupo Socialistas Vascos, señor Jerónimo Moreno.

El Sr. **JERÓNIMO MORENO** jaunak: Buenos días, buenos días a todos y todas, gracias, señora presidenta. Egun on guztioi. Baita streaming bidez entzuten eta ikusten gaituenei be.

Gai-zerrendako 4. eta 5. puntuak aztertuko ditugu, mozino bati eta Arauz Besteko Proposamen bati buruzkoak. Lehenengoa, Eusko Trenbide Sareari egindako eskaera bati buruzkoa, dakizuenez 4. linearen trazadura dagoan parte-hartze prozesuan aurkezten diran proiektu guztiak jaso daizan. Eta bigarrena, Metroaren 4. eta 5. lineak eregiteko egutegia aurkezteari buruzkoa.

Hasteko, gaia laburbildu gura dot, sozialistek metro-linea horreen eraikuntzari buruz beti jarrera bera izan dogu: egin daitezala, eregi daitezela. Patxi Lópezen Eusko Jaurlaritzaren Legegintzaldian bertan, proiektuak garatu genduzan, azterketa teknikoak finantzatzu eta ekinez. 2015ean, Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuei 1.752.000 €ko zuzenketa bat egin geuntsien, garai haretan oposizioan egoan PSE, eta, beraz, Metroaren 4. eta 5. lineak garatzen jarraitzea indartu genduan baliabide ekonomikoakaz, eta ez erretorikeagaz.

Ostera, PPK orain presa handia daukala dirudien arren, zuek hitzartu eta onartu zenduen azkenengo aurrekontuan, 25.000.000 euroko zuzenketetatik 100.000 euro bakarrik sartu zenduezan gomendio horreetarako. Dialektika, handia beharbada, baina benetako konpromisoa gitxi.

Gure konpromisoa ekintzakaz frogatuta dago, uste dogulako metroa garraiobide modernoa, arina, segurua eta ingurumenaren aldetik jasagarria dala. Eta horreta gure ibilbide politikoak babesa emoten deusku, gobernuetan eta oposizinoan, erakunde-erantzukizunetan eta gitxiago euki dogunean. Horri buruzko datu zehatz gehiago emon neizuez, baina orain garrantzitsuena proiektuetan aurrera egitea da.

Sozialistok uste dogu herritarrek errespetu osoa merezidu dabela, eta horregaitik berresten dogu zalantzarik bako konpromisoa daukagula Errekaldeko eta Galdakaoko bizilagunakaz, Metroaren 4. eta 5. lineak errealidade izan daitezcan, bai ala bai. Horregaitik, hemen azpimarratu egin gura dot Eusko Alderdi Jeltzaleak eta euskal sozialistek Bizkaiko Foru Aldundian gobernatzen dabela, EAJk eta euskal sozialistek Eusko Jaurlaritzan be gobernatzen dabe, eta sozialistok, Unidas Podemosgaz batera eta euskal nazionalisten laguntzeagaz, Espainian gobernatzen dogula. Eta hau ez da ezereza. Gaur egun lanerako dagoan akordioak berandu baino lehen ekarriko ditu emaitzak. Jakina, argi itxi gura dot alderdi politiko eta erakunde desbardinak garela, baina helburu komun bategaz: metroko 4. eta 5. lineak lehenbailehen lortzea.

Proiektuok alderdien arteko ezbardintasun guztien gaintik egon behar dira. Horregaitik, Eusko Jaurlaritzako sailburu Iñaki Arriolaren eta Foru Aldundiaren jarrerak berretsi eta balioetsi gura dodaz, bai eta Espainiako Gobernuak transferentziak arintzeko eta beharrezko guztia egiteko daukan jarrera be, Metroaren 4. eta 5. lineak lehenbailehen errealidade bihurtu daitezcan.

Horregaitik, 4. lineari buruzko mozinoari jagokonez, honezkero partaidetza-prozesuan sartuta dagoana, ez dogu funtsezkotzat jotzen prozesua aldatzea; izan be, martxan dago eta hilebete batzuk barru amaituko da, eta, zure taldeak proposatu dauen moduan, seguruen uda honetan amaituko da. Lehenengo eta behin, beste proiektu batzuk sartuko balira, partaidetza-prozesua geldiarazo beharko litzateke. Beraz, atzerapen handiagoa, luzapen handiagoa, eta, gainera, eta are garrantzitsuagoa segurutik, oin arteko tren-azpiegiturak aprobetxatzea planteatzen da, aukera bideragarriena dala ulertzen dalako. Hori aldatzeak ondino atzerapen handiagoa ekarriko leuke.

Prozesu parte-hartzaile hori proiektu teknikorik egokiena erabagiten laguntzeko garatu da, eta honezkero aukera bi aurreratuta dagoz, edozelan be, garapen barrietan lehentasuna emongo jake ahal dan neurrian oingo trenbide-azpiegiturei. Holan, aurreikusitako inbersinoakaz, trenbidearen metropoli-maiztasuna eta egungo aldiriko lineak hobeto lotzea posible egingo da, lurraldeko persona guztien mugikortasuna hobetzeko. Ikuspuntu teknikotik, ez dot gehiago zehaztu gura, baina edozein herritarrek aldagai teknikoei buruzko informazio askoz zehatzagoa jaso leike Aldundiaren webgunean bertan. Gehiengo aurrerakoiaz bat egitera animatzen zaitut, Mendez jauna. Benetan uste dot zuen ekarpenak baliagarriak izango dirala emaitza hobetzeko eta arintzeko, hori dalako herritarrek espero eta behar dabena.

Beraz, metroaren 4. eta 5. lineei jagokenez, gure apustua argia da. Ahalik eta estuen jardun gura dogu Eusko Jaurlaritzagaz lankidetzan, administrazio eskuduna dalako informazio-azterlanak eta eraikuntza-proiektuak idatzi, izapidetu eta onesteko, Galdakaora eta Usansoloko ospitalera eta Bilboko hegoaldeko auzoetara sartzeko metro-linea barrietan. Egutegi bat zehaztea dala-ta, azkenengo urte honetan bizi izan ditugun gertaerek, Covid-19aren pandemiak nabil pentsauko dozuen moduan, oinak lurrean eukitea eragiten dabe, eta errealidade posibletik ez dogu lortu ezin diran itxaropen faltsuak sortu nahi. Eta, horregaitik, garrantzitsuena metro-linea barrien eraikuntza finantzatzen laguntzea da, eskumen-eremuak

alkarlanean eta eraginkortasunez errespetatuz, Bizkaiko garraio publikoaren eta zerbitzuaren kalidadea hobetzeko.

Eta, edozein kasutan, barriro adierazi gura dot Diputadua eta sailburua, eta eurok ordezkaten dabezan erakundeak ados dagozala bideratu beharreko datetan eta baliabideetan. Lortu daitekezan guztiak. Aldundia konprometiduta dago, Eusko Jaurlaritza be bai, eta Espainiako Gobernu be bai, transferentziak eta beste eginbehar batzuk arinduz, guztiak beharrezkoak. Eta, zalantza barik, Next Generation funtsak erakarteak bultzada eta abiadura handiagoa emongo deitso proiektuari; nire ustez, beharrezkoa, ezinbestekoa agian. Eta, beraz, Eusko Jaurlaritzagaz batera, Estaduko edo Europako funtsak batu gura doguz, ahal izan ezker, garaiz eta behar bezala finantzatzeko inbersiook, garraio publiko jasangarri eta efizienteko azpiegiturak diralako, eta bateragarriak diralako Estaduko eta Europako administrazioek ezarritako printzipioakaz. Izan be, sozialistok metroagaz daukagun konpromiso politikoa argia da. Barriro dinogu, bai edo bai helduko dan proiektua dala, eta, jakina, arinago edo astiroago heltzea eskuragarritasun ekonomikoaren araberkoa izango da. Egia da aspalditik, ze holako azpiegiturak ez dira denpora laburrean zehazten, egia da, proiektuak aspaldi hasi zirala, baina egia da, era berean, gero eta gertuago dagoala horreek errealdade bihurtzea. Besterik ez, eta eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias, señor Jerónimo Moreno. Y tiene la palabra el representante del grupo Nacionalistas Vascos, señor Lerma Mentxaka.

El Sr. **LERMA MENTXAKA** jaunak: Gracias señora Presidenta y buenos días a todos, junteros, a todos los que están siguiendo este Pleno a través de streaming.

Datu batzuk ez ditut esango. Bakar-bakarrik adierazi gura dot iruditzen jatala edo begi-bistakoa iruditzen jatala aurreko urtearen amaieran antz-antzeko proposamen bat eztabaidatu zala, egoitza honetan bertan 4. eta 5. lineak gauzatzeko garapenerako egutegi bat sortzeari buruz.

Lehenengo esan gura dodana da ez jatala gustau Fernandez andrearen hitzaldiaren zati handi bat, esan behar deitso ez jatala gustatu. Zuk be ez zenduan besterik espero, ezta? Baina, egia esan, guztiz desegokia da eta ezin dot partekatu, saiakera hori da adierazteko, Foru Aldundiak bere eskumenen esparruan jarduten dauenean, arazoak konponduz eta eskumena daukan arloetan jardunez, horrek kalte egiten dauela; bestela esanda, loturaren bat dagoala eta kalte egiten deitsoala metroan aurreratzeari, aurrera egiteari eta erritmoari proiektuak idazten diran bitartean, edo informazio-azterketatan aurrera egiten dan bitartean, eta azken baten metroaren 4. eta 5. lineak eregiten. Eta hori transmititzen ahaleginduten zabilz, eta hori guztiz faltsua da, hori guzurra da.

Ez daukie zerikusirik Next Generation funtsak eukitea beharrezkoa dala esaten daben erreferentziek, 5. linearen eraikuntzan aurrera egin eta azkar jardun ahal izateko. Ze zorionez, metroaren 5. linean, zati zehatz batzuetan eraikuntza-proiektua eginda dago. Eta beste talde politikoko batzuetako kideek be erabili dabezan berbak erabili dituzu, ez dakit Ganbera honetan, baina Batzordean beharbada, berba asko egiten dogula trenez eta trenbide-sistemaz, baina errepedeak egiten ditugula. Izan be, Foru Aldundiaren eskumena nahitaez errepedeei buruzkoa da, ez trenbideko garraioari buruzkoa. Foru Aldundiak Gobernuari lagundu egiten deitso, trenbide-garraioaren ardura berea dalako.

Aldundiaren konpromisoa, niretza, guztiz argia da. Diputazioaren eta Diputadu Nagusiaren konpromiso guztiz argia dago Metroaren 4. eta 5. lineak eregiteko eta eregiten laguntzeko, kalidadezko zerbitzua emoteko, Galdakaora eta Bilboko hegoaldeko

auzoetara metropoli-trenbidearen maiztasuna daukan zerbitzua emoteko, eta, beti be, eta batez be gaur egungo egoera ekonomikoaren ondorioz, ahalik eta modurik eraginkorrenean, lehendik dagozan azpiegiturak aprobetxatuz eta aukera guztiak aprobetxatuz.

Eta ekimenei eurei helduko deusiet. Nire aldetik, ondino be gure zuzenketa onartzea nahi dot, zure lehenengo hitzaldiaren ostean gatz egiten jat baina. Ze egia esan, osoko zuzenketa bat da, baina zuzendu nahi dozuna alderdi formal bat da, baina garrantzitsua. Ulertzen dodana da, eta ezinezkoa iruditzen jat, niri eta nire taldeari, Foru Aldundiari egutegi bat ezartzeko eskatzea. Trenbidearen arduraduna Jaurlaritzza da ba-ta, ez da Foru Aldundia. Hor daukazu okerrik handiena.

Gu, gure aldetik, zuzenketa hori zuzentzen ahalegindu gara. Eskatzen gabilz, argi geratu daitela eskatzen gabilzala. Gure zuzenketa Foru Aldundiari eskatzen deusagu, eskumenak errespetatuz, ze proiektuak idatziko dituana, izapideak egingo dituana, obrak kontratuak egingo dituana beti Eusko Jaurlaritzza edo haren menpeko soziedadea dalako, inoiz ez Foru Aldundia; eskumenak errespetatuz, Aldundiari eskatzen deusagu gobernuarekiko lankidetzza azkeneraino eroan daiala, kofinantziau daiala, argi geratu daitela kofinantziatino, martxan dagozan beste linea batzuk kofinantzatu diran moduan; eta, beti be, eraginkortasunik handiena eta efizientziarik handiena bilatuz eta lehendik dagozan azpiegiturak aprobetxatuz.

Horixe egin eta lortu gura dogu zuzenketeagaz, eta zure lehenengo hitzaldiaren arabera gatz ikusi badot be, barrero dinot onartu daizlua, bozkatu ahal izan daitela.

Planteamendua dala-ta, Euskal Herria Bilduren mozinoa dala-ta, benetan planteetan dauena da Eusko Trenbide Sareari eskatzea partaidetzza-prozesu horretan sartu daizala, hain zuzen be, kontuan hartu diran eta azken eguneratzetik edo amaitu barri dan informazino-azterketatik eratorritako alternatibak, beste bi horreez gain beste aukera batzuk.

Errazoi bi daukaguz argi aurka bozkatzeko, ezin gara ados egon. Lehenengo, bozeramaileak berak onartu dau, prozesu parte-hartzailea hasita dagoala, zabalik dagoala eta izapidetzen dagoala. Eta, bigarren, guztiz argi ikusten dot, aukera barritzaile biok, hau da, oingo informazino-azterketatik eratorritako trazadura barri biak, askoz hobek eta handiagoak dirala orain arte kontuan hartu ahal izan diranak baino, eta zentzu horretan adostasun zabala dago; izan be, daukaguzun aukerak aprobetxetan dabezan trazadurak dira, eta, alde horretatik, balio leikie orain arte planifikatutako biztanleria handiagoari metro-zerbitzua emoteko, hau da, Zorrotza eta Basurto sartuta kasurako. Trenbideen integrazino handiagorako bidea emoten dabe, Enkarteritik Bilbora trenbidez sartuz, azpiegituren erabilera eraginkortasun askoz hobea. Horregaitik, mozinoko puntu horren aurka bozkatuko dogu.

Amaitzeko, adierazi gura dot nire ustez erantzukizunez eta errealismo osoz jokatu behar dala, Diputadu Nagusiak berak behin eta barrero planteatu dauen moduan. Eta errealismoz jokatzeta eta itxaropen faltsurik ez emotea, eta itxaropen faltsuak sortzeta da, 5. lerroan aitortu dan moduan, Europako funts barik euskal erakundeek epe laburrean 5. linea eregiteari ekitea ezinezkoa dala aitortzeta. Eta aukerak aprobetxeteak, hain zuzen be, proiektu exekutibo bat eukita, Next Generation funtsen diru-laguntzara aurkeztu ahal izateak dakar. Eta 4. linea, jardun gura badogu egia esan behar da eta errealistak izan behar dogu, eta onartu beharko dogu ondino be ziurgabetasun asko konpondu behar dirala linea horren eraikuntza izapidetzeko prozesuan, batez be agertu ahal jakuzan aukerak baliatu nahi baditugu. Hau da, ikusi behar da zer gertatzen dan, zein epetan gertatzen dan FEVEren aldiriko lineen eskumene transferentzia,

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Vaya terminando, por favor, señor Lerma Mentxaka.

El Sr. **LERMA MENTXAKA** jaunak: Zein epetan gertatzen eta egiten dan Zorrotzako lurperatzea, Irauregin zein kotxe-tegi egon daitekeen zehaztea, Irauregiko intermodalidadea eta, batez be, Abandoko geltokian intermodalidadea aprobetxetea. Gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señor Lerma Mentxaka. Y tiene la palabra el representante del grupo Elkarrekin Bizkaia, señor Lobato Pascual.

El Sr. **LOBATO PASCUAL** jaunak: Nire aurrekoren batek esan dauen moduan, gaur barriro be Batzar Nagusien Osoko Bilkuran gagoz behin eta barriro agertzen jakun gai bati buruz eztabaidatzen, metroaren 4. eta 5. linea hitzemandakoei buruz, eta, dirudienez, mila hauteskunde-kanpainatan konprometidutakoei buruz. Batzuetan film bat bizi iruddodala iruditzen jat, zehatzago *Atrapado en el tiempo*. Badakizue, meteorologo bat dauka protagonista, eta ez dau lortzen eguraldiak aurrera egitea eta gertaerek aurrera egitea, goizetik goizera jaikitzen da, eta egunean zehar gertaera berberak bizi ditu. Hori dinot honezkero ez dakidalako zenbat aldiz ekarri dogun eztabaidara metro-linea horreen egoera. Eta uste dot halan egiten dogula gure erantzunak ez diralako espero ditugunak. Eta behin eta barriro adierazten jaku, gobernu-taldeak eta berari eusten deutsien alderdiek agirian ixten daben eta proiektuen benetako ebazpenaren aurrean erakusten daben ekintza eza.

Gobernu taldeari eusten deutsien alderdiek ekarritako proposamena irakurrikeran, bildur naz honezkero pentsau zeinkiela, aurreratu daben moduan, zein izango dan gaur goizeko bozketaren emaitza. Talde Bereziak gauza zehatz eta argi bat ekarri dau Osoko Bilkurara eztabaidatzera: egutegi bat argi jarri behar dala, bai proiektuak definitzeko, bai gauzatzeko, ebazpenean lan egiteko oinarri gisa balioko dauena. Horrek ondorio moduan ekarriko leuke herritarrakaz eta, neurri baten, alderdi politikoakaz konpromisoa erakustea, ildo horreek gobernu-taldean agendan dagozala, garatzeko eskumena daukien erakundeetan.

Horren erakusgarri, aurreratzen deusuet Elkarrekin Bizkaiak, gure taldeak, Talde Mistoak aurkeztutako ekimena bozkatzeko daukan asmoa aldekoa izango dala, jakina. Guztiz bat dator Osoko Bilkuretan eta Batzordeetan aurkeztu eta defendatu ditugun beste proposamen batzukaz, eta, gure ustez, bat dator, eta, beharbada hori garrantzitsuagoa da, gizarte zibilak eskatzen dauenagaz; izan be, urte askotan antolatu da auzo- eta udal-plataformetan, eta, horreen bidez, behin eta barriro eskatu dabez azterlanen behin betiko definizinoak eta obren soluzinoetarako datak.

Proposamen hori, danok dakizuenez, aurrera urtengo da gobernuari eusten deutsien alderdien botoek babesten badabe, baina aurkeztu daben osoko zuzenketaren arabera, ez da halakorik gertatuko. Zuzenketa horrek Euzko Alderdi Jeltzalea eta Euskadiko Alderdi Sozialista definitzen ditu. Ez da izpirrik be mobiduko ekimena eurek eroan ezean. Gobernu-koalitzinoari gehien komeni jakonaren arabera neurtuko dabez denporak, eta kalkulauko daben gauza bakarra da zein dan euren profilik onena Foru Jauregian daukagun 3x8 pantailan, Foru Aldundiaren proiektuak iragarteko, ekimena iragarten dabenean.

Aurkeztu deuskuen zuzenketak, osokoak, gainera, ez da alperrekoa. Lehenengo puntuak hau dino: Bizkaiko Batzar Nagusiek Bizkaiko Foru Aldundiari eskatzen deusie,

Lehenengo puntua: Galdakaora eta Usansoloko ospitalera eta hegoaldeko auzoetara sartzeko metro-linea barrietan informazino-azterlanak eta eraikuntza-proiektuak idazteko, izapidetzeko eta onartzeko eskumena daukan Eusko Jaurlaritzagazko lankidetzeta-maila gorenari eustea. Ez dago Rementeria jauna, baina espero dot gero bilkura-egunkaria irakurriko dauela, ze, benetan gogorarazi behar deusie Gobernua sostengatzen daben alderdiek, EAJ bera

kide dauen alderdiak, eta Euskadiko Alderdi Sozialistaren gobernukideak, mailarik gorenean lagundu behar dauela metro-lineak eregiteko azterlanak eta proiektuak idazten eta onartzen? Benetan ez ete eukan hori egiteko asmorik? Eta eurek kargu hartu behar deustie, konpromisoan atzera egin ez daian? Ez dogu ulertzen zertara datorren eskaria, egia esan.

Bigarrena azkar irakurriko dot, hau da: Bizkaiko Foru Aldundiari eskatzen jako metro-linea barrien eraikuntza finantzatzen lagundu daiala, eskumen-eremuak errespetatuz, lankidetzara eraginkorrean, Bizkaiko garraio publikoaren eta zerbitzuaren kalidadea hobetzeko helburuagaz. Iruarizaga jauna be ez dago, baina badirudi puntu hori bere Sailari zuzenduta dagoala. Holan irakurrita, emoten dau Gobernuari eusten deustien taldeek zalantzan jartzen dabela Bizkaiko Foru Aldundiak lanok aztertu eta gauzatzearen ondoriozko ordainketa-betebeharrei aurre egingo ete deustien. Halan bada, kezkarria egiten jaku. Baina zuzenketa honetan irakurri dogunaren arabera, EAJri eta Euskadiko Alderdi Sozialistari eragiten deustie kezkarrik handiena. Ogasuneko diputaduaren lasaitasunerako, jakinarazo nahi deustagu gure taldeak ez daukala zalantzarik Bizkaiko Foru Aldundiak jagokona ordaintzeko asmoa daukala, eta horregaitik ez deustagula inoiz eskatu.

Denporea bajoata, ez neban nahi, gehiegi luzatzen nabil. Hirugarren puntuan, dagozan azpiegiturei lehenetasuna emoteko eta beste gauza jakin batzuk eskatu dabez, hitzaldi honetan aztertzeko denporarik eukiko ez dogun gauza jakinak. Osoko mozinoa irakurrita, argi dago guk ez geunkela onartuko, ez deritxogulako beharrezkoa eta oso azalekoa dala uste dogulako. Ez geunke aurka bozkatuko, Eusko Jaurlaritzagaz lankidetzan ez jarduteko eskatzen ibiliko ginatkelako, eta ez gaitezala despistatu jagokuna ez ordaintzen, baina ezin izango geunke babestu. Mozino honek, Ganbera honetan ikusi ditugun beste askok bezala, oposizionoko barbaroen aldetik datozen proposamenak deuseztatzeko asmo bakarria dauka. Bertan ez da Talde Mistoaren proposamenaren ordezkotesturik eskaintzen. Horren alde ez bozkatzeko atxakia bat baino ez da, eta barriro be erretratzen dituan atxakia bat da, barriro be paper bustia.

EH Bildu taldeak eztabaidarako ekarri dauen proposamena dala-ta, gure ustez, egokia da, eta, horregaitik, gure taldearen aldeko botoa izango dau. Herri-kontsultak eta herritarren partaidetza-prozesuak edozein erakunderen proiektuakaz bat egiten dabe beti. Azkena, eta oso adibide egokia iruditzen jaku, oraintsukoa dogu, Durangoko udalerrian 60.000 metro koadroko lursail baten erabilera erabagiteko egindako kontsulta. Halango prozesuek erakundeak gure auzokoengana hurreratzen dabez, eta bere egiten dabez beren zergekin finantzatzen diran proiektuak, ez ahaztu. Baina argi geratu behar dana da zelan egiten diran eta zer aukera emoten jakezan herritarrei aukeratzeko orduan. Kontsulta horreek ezin dira egon, eta hori guztia komatxo artean esango dot, "telegidatuta", sustatzen dabezanen interesen arabera. Raul jaunak adierazi dau, gainera, proiektuek ahalbideetzen dabenaren barruan, aukera guztiak emon beharko lirakekeela, herritarrek aukeratu daien zein dan euren apustua.

Denporea amaitzen doa. Gure ustez, garrantzitsua da, bistan danez, halakoak etorkizuneko partaidetza-prozesuetan jasota egotea, eta zentzu horretan, ez legoke sobera erakunde desbardinaren konpromisoa lotzea, herritarren erabakiak, aitatu dogunaren barruan, proiektura etorri daitezkan. Lehenengo hitzaldi honetan, besterik ez. Gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias, señor Lobato Pascual. Y pasamos al turno de réplica. Para ello, tiene la palabra el representante del grupo Euskal Herria Bildu, señor Méndez Urigoitia.

El Sr. **MÉNDEZ URIGOITIA** jaunak: Gracias de nuevo señora Presidenta. Lehenengo eta behin, argi geratu daitela gura dot gure helburua 4. linearen proposamena hobetzea dala, eta, horretarako, partaidetza-prozesu bat eratu da, eta, gure ustez,

hona ekarri dogun mozinoak ez dau ezelan be hori baldintzatu edo luzatu nahi, hobetu baino. Hobetu, aztertutako aukera guztiak barruan hartuta. Inork ez dau zalantzan jartzen, Lerma jauna, Feveren ibilbidean oinarritutako 4. lineak adostasun handiagoa hartu leikenik, onura batzuk hartu leikezanik. Baina parte-hartze prozesu baten aurrean gagoz, ez daigun tranparik egin, ez daiguzan egin zure nahiak, Gobernu Taldearenak, parte-hartze prozesu horretan input gisa sartu daitezkan. Horrek urteera izan behar dau, eta Bilbo hegoaldeko auzoetako herritarrek esan behar deuskue zein dan hautu gura daben aukera. Horretarako eskatu eban EH Bilduk prozesu parte-hartzailea.

Ez deusku balio be, honezkero hasi dala esatea, txarto hasi bada, konpontzeko denporea dagoalako. Hile batzuetan atzeratuko da, eta neurriak ipini daitezkezala uste dogu.

Jerónimo jaunari be esaten deusat, beharbada esaldiaren ordena aldatu beharko dabela. Pozten nau esateak EH Bildu dala aurrerabideko neurriakaz bat egiten dauena, baina begira, zein zan zure aukera 4. eta 5. lineetarako, zure alderdiarena oin dala 10 urte. Eta begira zeintzuk izan diran ordutik hona EH Bilduk egin dituan proposamenak. Ikusi nor hurreratu dan bestearen proposamenera, esaldiari buelta emon.

Parte hartzeko prozesuaz berba egin dozue, nik neuk be parte hartu dot, nire taldeak parte hartu dau prozesu parte-hartzauke horretan, eta, are gehiago, eskerrak emon gura deusadaz Cultiva enpresari, bera ibili dalako prozesu hori gauzatzen, modu nahiko egokian eta profesionalean egin dabela iruditu jatalako. Baina parte-hartze prozesuaren saio horreetan bertan sinatu da, eta hitzez hitz idatzi dot han esandakoa: hemen aurkeztutako proiektuek ez dabe zertan izan jendaurrean jarriko diran behin betikoak. Eta hori da nire taldeak eskatzen dauena, ez dago arazorik hori aurrera eroateko. Parte-hartze prozesu bat, barriri dinot, EH Bilduk aurkeztu ebana Ganbera honetan 2018an, eta, ondoren, aho batez berretsi zana hemen bertan talde guztiek aurkeztutako mozino baten.

Como he dicho en mi anterior intervención, nuestro objetivo es que no haya dudas sobre el proyecto, que se tengan en cuenta todas las alternativas, y que se recojan mejoras para que la definición de la línea 4 sea la más adecuada posible, con lo que decidan los ciudadanos. El Consejero Arriola, junto con el Diputado General, puso en valor el proceso participativo en la comparecencia de prensa celebrada el día 13 de enero, y dijo claramente que, a pesar de no tener obligaciones, respetarían su resultado, teniendo en cuenta las opiniones de los participantes y la opción elegida.

Hori da nire taldea egiten dabilena, talde abertzale eta sozialista horreek gobernu ezbardinen bidez Errekalde eta Hegoaldeko auzoakaz daukien zor historikoa lehenbailehen eta modurik onenean kitatu ahal izateko neurriak aurkeztea.

Errazoia daukazu, Fernández andrea, Bilboko Udalean ez zan aho batez onartu, talde guztiek onartu eben zureak izan ezik, ahaztu egin jat. Halanda be, konpromisoa argia da eta ez dago zalantzarik. Udalak informazino-proiektua atzeratu barik entregetako eskatu eban, hau da, uda honen amaieran, eta ahalik eta lasterren, eta ez lehenengo sei hilekora baino geroago, eraikuntza-proiektua lizitatzeko, eta gure ustez hori da egin beharreko urratsa. Eta nik barriri aitatu gura dot nire taldeak, EH Bilduk, Bilbon eta Galdakaon egindako lana, uste dogulako hori dala bidea, proposamenak egitea eta erakundeetan eta erakundeen arteko lankidetzaz sustatzea; ze bide horretatik bakarrik egin ahal izango dogu aurrera finantziazioaren bila eta akordio batera heldu metroaren 4. eta 5. lineetako proiektuak aurrera aterateko hain beharrezkoa dan diru hori aurkitzeko. Eta ibilbide hori eginaz bakarrik asmatuko dogulako, herritarren ekarpenakaz eta erabakiakaz batera, metro-linea barrien trazaduretan eta benetako beharretan.

Amaitzeko, eta ondo ulertu ez bajabere, barriro azalduko dot zeintzuk diran gure mozinoaren helburuak, hau da, ez atzeratzea ez luzatzea. Gure mozinoaren helburua da uda amaieran entregatuko dan informazino-proiektuan, denporea dago ondino, eskatzea aztertutako aukera guztiak jaso daitezala, eta herritarrek eta gizarte-eragileek horreek guztiak benetan aztertu ahal izan deiezala jendaurrean jartzeko aldian. Beste barik, gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias, señor Méndez Urigoitia. Y tiene la palabra la representante del Grupo Mixto-Partido Popular Bizkaia, señora Fernández Angulo.

La Sra. **FERNÁNDEZ ANGULO** andreak: Eskerrik asko. Egia esan, ez dot euki erantzuteko txanda hau erabilteko asmorik, baina Euzko Alderdi Jeltzaleko bozeramaileak arrazoia dauka, ez dodala zuzenketari buruzko jarrera azaldu esan dauenean. Lehenengo txanda agortu dot, eta, jakina, hori azaltzeko begirunea izan nahi dot.

Ezin dogu onartu proposatu deuskuzuen zuzenketa hori, hainbat errazoiengaitik. Lehenengoa ezer barririk ez dakarrelako; bigarrena, lehenkoa dalako; 4. eta 5. lineak errealdade ez izatea eragin dauen erretorika hutsari eusten deutso, eta, azken kasu horretan, gainera, Europako laguntzen pentsuan itxi izana. Egia da akordioa ez dala aho batekoa izan, eta egia da nire taldeak ez dauela bat egin nahi izan Bilboko Udalean. Eta oso errazoi sinplegaitik egin dogu, nahikoa dalako erretorikaz, nahikoa dalako berbaz, eraikuntza-proiektua zuk adierazitako datan lizitatuko dala esaten da, baina jarraian koma bat dago, eta hau jartzen dau: ahal bada. 34 urte kasu baten 'ahal bada' entzuten, 12 urte bestean. Nik uste dot guk aurkeztu dogun proposamenaren zentzua ez dala berbakaz jarraitzea, eta horregaitik amaituko dot hitzaldi hau, Gobernuari presioa ez arintzea baino. Eta, jakina, ez dogu gai honetan oposizinoko taldeen artean aurrez aurre jarri behar, ez dauka zentzurik. Gobernuari presioa ez lasaitutea errealdade bihurtu daiten, bai Bilbo hegoaldeko bizilagunentzat, bai Galdakaoko bizilagunentzat.

Guk ez daukagu eskumenik, esan dozu. Aizu, ba, azaldu eidazue, eta nik uste dot badala garaia, zergaitik daroazuezan urteak, hauteskunde-kanpaina baktxean, metro-linea egingo dozuela agintzen Bilboko eta Galdakaoko herritarrei. Eskumenik ez badaukazue, zergaitik erabilten dozuez hauteskunde-kanpainak hori proposatzeko? Ez jat iruditzen jarrera arduratsua danik, zuen eskumena ez bada esan behar zenden: galdetu Eusko Jaurlaritzari, guk horretan ezin dogulako ezer esan. Baina beti konprometidu zarie. Gero azkenean bete ez diran konpromisoak. Eta amaitzeko, nire lehenengo hitzaldia amaitu dodanagaz, mozino hau ez da berba kontua, ez da erretorika kontua, ekintzak eskatzen dira. Mozino honetan ekintzak bozkutzen dira, ez berbak. Mila esker.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias, señora Fernández Angulo. El representante del grupo Socialistas Vascos, señor Jerónimo Moreno, tiene usted la palabra.

El Sr. **JERÓNIMO MORENO** jaunak: Buenos días de nuevo. Proiektuak ezin dira 5 minuturo aldatu, eta hori badakizu Mendez jauna. Ondo geratuko zara, kasu honetan, gaur goizean gosaltzeko aurkitu dogun azken planteamentuagaz, Bilboko periferiako auzo bi, euretako bat nire herritik gertu, Barakaldotik hur. Horreekaz ondo geratuko zara, beste geltoki bi jarrita, baina zuk ondo dakizu 4. linearen oingo egoeran proiektu barriak sartzeak lortu leiken gauza bakarra geldiaraztea dala. Eta nik benetan gurako neuke, Mendez jauna, 4. lineak eragiten deusien herritar horreei guztiei galdetzen badeutsezu, benetan ia uste daben orain dala

momentua 4. linea Alonsotegin edo Santa Agedan geratu behar dan ala ez esateko, nire herritik gertu esaten dot.

Eta, beraz, uste dut gauza bat dala proposamen bat eta beste bat proposamen horrek dakarzan ondorioak. Zure helburua hobetzea dala esan dozu. Ondo, nik ez dot zalantzan jartzen, baina gauza bat da planteatzen dan helburua eta beste bat zuk planteatzen dozun helburuaren ondorioak. Eta badakizu proiektuak gaur egun daukan egoeran eta herritarrek proiektu horretan daben parte-hartzean, barrikuntzak sartzen badira, horrek prozesuak luzatzea ekarriko dauela ondoriotzat.

Oin dala 10 urteko kontuak eta Alderdi Sozialistak aldaera desbardinei buruz izan dituan aldaketak 4. eta 5. lineetan dala-ta. Baliteke aldaerak egon izana, aldatu ez dana gure alderdiaren borondate politikoa izan da: egin daitezala, eta egin daitezala lehenbailehen, eta egin daitezala eta lehenbailehen egin daitezala baliabideak jarri behar dira. Baliabideak jarri, ez erretorika jarri. Eta hori Alderdi Popularrarentzat be bada, ze baliabideak ekarteko zuzenketak egin ahal izan dituean, 100.000 euroko zuzenketa egin dau, metroaren bi langa jartzeko baino balio ez dauena. Beraz, gauza bat da hona etorri eta berba egitea, eta beste gauza bat da benetako konpromisoa.

Ezin dogu ukatu, ezin dogu ahaztu diru-bilketaren egungo egoerak eta aurrekontuen egungo egoerak zuhurrak izatea eskatzen dauela, eta, alde horretatik, uste dot bai Eusko Jaurlaritzako sailburuak bai Diputadu Nagusiak zuhurtzia hori errespetatu behar dabela, hori egiteko konpromiso politikogaz. Hori egin ezker, eta Next Generation funtsak badatoz, askoz hobeto izango da, askoz be arinagoa izango da, lehenago egingo ditugulako proiektuok. Ze dirudienez, Podemoseko jaunari entzun deusat, eta uste dot Alderdi Popularreko andreari be zentzu negatibo berean, emoten dau Metroaren 1., 2. eta 3. lineak ez dirala egin, ez dirala existitzen, emoten dau metroa... Ba ez. Urte asko dira Bizkaiko herritar guztiok apustuak egiten jarraitzen dogula eta egiten gabilzala, are gehiago, batzuk Eusko Jaurlaritzatik oin dala 30 urte, eta badirudi batzuk orain metrora etorri dirala defendatzailek sutsuenak izan balira moduan. Begira, batzuk eten barik ebilzan metroaren eraikuntzari boikota egiten. Ez daigun ahaztu. Ondo etorri, kasu honetan, adostasunera, eta ondo etorri kasu honetan aurrerapenaren gehiengora, garraio publikogaz, metroa bezalako garraio publikogaz.

Azkenik, lehen amaitu dodan moduan bukatu gura dot. Izan be, sozialistek metroagaz daukagun konpromiso politikoa zalantza bakoa da. Barriro dinogu. Metroaren 4. eta 5. lineetako proiektuok bai edo bai heldu behar dira, eta, jakina, eskuragarritasun ekonomikoaren araberakoa izango da lehenago edo geroago heltzea. Besterik ez, eta eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias, señor Jerónimo Moreno. El representante del grupo Nacionalistas Vascos, señor Lerma Mentxaka, tiene usted la palabra.

El Sr. **LERMA MENTXAKA** jaunak: Buen mediodía, o buenos días de nuevo. Lobato jaunak ironiaz berba egin dau, eta, jakina, ziur asko, edo ez, argi dago ez dala beharrezkoa Diputadu Nagusiari eskatzea, ondo dakielako zelan jokatu behar dauen, non jardun behar dauen, eta hori adierazten dau eta etengabe jarduten dau zentzu horretan.

Baina oposizionaren eta Foru Aldundiko Gobernu babesten dogun Batzar Nagusietako taldeen arteko joko honetan, batzuetan hori egitea jagoku. Egin behar dogu, zuek denpora guztian ahalegintzen zarielako esaten Aldundiak ez dauela interesik metroaren proiektua gauzatzeko, eta Galdakaoko ingurunean eta Bilboko hegoaldean azpiegitura egokia jartzeko. Orduan, noizean behin gertatzen da, nolabait, legegileak, Batzar Nagusiek Aldundiari

jarduteko eskatzea be formalizatu behar dogula. Baina horregaitik baino ez da, oposizinoko taldeen eta Foru Gobernua defendatu ohi dogun taldeen arteko joko horretan sartzen gaituzuelako.

Eskerrak emon gura deusadaz Fernández andreari erantzun argia eta zuzenketari buruzko eretxia emotearren, baina nik barrero dakart bere lehenengo hitzaldia. Ez da Metroaren 5. linea bertan behera ixtea herritarrak ez engainatzea, guzurrik ez esatea eta adierazpen errealistak egitea; hau da, epe laburrean jardun nahi badogu edo egin nahi badogu, 5. linea gauzatu ahal izateko edo euki ahal izateko, epe laburrean eraikitzen hasteko, New Generation funtsak beharrezkoak dira nahitaez. Bestela ezin izango da, eta hori guzurrik ez esatea eta modu errealistan jokatzea da.

Gero, gure zuzenketan, hain zuzen be, zuzenketan esaten doguna da, eta planteatzen dodana da ez daukala zentzurik Aldundiari eskatzea zerbait egiteko eskumenik ez daukan horretan, hau da, metro-linea hornitzeko, metro hedatzeko beharrezko izapide guztietan. Zalantza barik, eskumeneoak gara neurri baten; metro-linea finantzatzeko eta batera finantzatzeko konpromisoa dago; eta horregaitik agertu gara zentzu horretan behin eta barrero, hauteskunde-kanpainen izan edo ez. Baina guk ez ditugu eraikuntza-proiektua, eraikuntzak eta obrak lizitatuko.

Eta amaitzeko, Euskal Herria Bilduko bozeramaileak esku hartu dauen ildotik, nik benetan uste dut adostasun zabala dagoala, oso zabala, eta maila instituzionalean be bai, erabat argi dagoala aholkularitza-enpresek aztertu, sortu eta ekarri daben azken informazio-azterlanaren ondorioz sortu diran aukera biak aurreko ideiak, aurreko trazaduak baino askoz hobekak dirala. Hori holan dala uste dot, eta argi eta garbi holan dala uste dot, hain zuzen be horregaitik, sortu direlako lortu dogun azkenengo informazio-azterketatik. Informazio-azterlan hori pandemia-egoeraren ondorengoa da, eta aldatu gaituen testuinguru eta ingurune baten sortua, krisi ekonomiko handian. Ingurune horretan, zalantza barik, gero eta handiagoak dira erabateko eraginkortasunez jarduteko eskakizunak, eta, alde horretatik, ahalik eta gehien aprobetxetako lehendik dagozan azpiegiturak. Horregaitik, bide estuko trenbide-sarea Enkarterritik erabilteko eta sartzeko aukera ona da. Eta, jakina, euskal administrazioek daukiezan funts gitxiago daukiezala-ta eragindako zailtasunen barruan, edo krisiaren iraupenak berak nora eroango gaituan kontuan hartuta, eskura ditugun aukera guztiak ahalik eta gehien aprobetxatzera behartzen gaitu, dala New Generation funtsak, dala, 4. linearen kasu honetan, Abandoko geltokian emon daitekeen intermodalidadebere aprobetxetea, eta metro-zerbitzua emon askoz herritar gehiagorik, batez be, Basurtuko eta Zorrotzako auzoei Horregaitik bozkatuko dogu mozinoaren aurka. Gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias, señor Lerma Mentxaka. Y tiene la palabra el representante del grupo Elkarrekin Bizkaia, señor Lobato Pascual.

El Sr. **LOBATO PASCUAL** jaunak: Buenos días de nuevo. Lehenengo eta behin, adierazi behar dogu bat gatozela Angulo andreak esandakoagaz, eta Talde Mistoak jakinarazi deusue honezkero ez dauela bere zuzenketa onartzen, hori ezin da bestela izan, ez daukalako zerikusirik Gobernuari eusten deusien taldeek proposatzen daben osoko zuzenketatik proposatzen danak.

Jerónimo jauna, esan dozu parte-hartzeko prozesu honek, handitzen badogu, geldiarazi egin leikela, atzeratu egin leikezala proiektua entregatzeko edo obra gauzatzeko epeak. Galdetu eta esan Mendez jaunari zer eretxi daben auzokoe, edo zer eretxi eukiko leukien horri buruz. Hitza hartuko deusagu. Galdetu auzokoei. Galde eiezue auzokoei, tamalez sarri egiten ez dan zerbait dalako. Galdetu bizilagunei ia geltoki bi euki gura dabezan.

Ez da ezer gertatzen herritarrei galdetzeagaitik eta noizean behin kontuan hartzeagaitik, ez lau urtean behin bakarrik.

Eta lehenengo interbentzinoan adierazi dodan moduan, ez dago barririk zerupear. EAJk eta Euskadiko Alderdi Sozialistak ez dabez bere egiten beste talde politiko batzuen proposamenak, gitxiago herritarren plataformenak, eta beren modus operandi propioa daukie, eta horixe ikusiko dogu.

Lerma jauna. Esan dozu pandemiak atzeratu egin leikezala proiektuak, proiektu batzuk. Nik esaten deutsudana da pandemiak proiektu batzuei bakarrik eragiten deusiela. Bitxia bada be, garraio publikoan garrantzi gehien daukien proiektuak dira. Ikusten dogu beste proiektu batzuek ez daukie eremu publiko hori, hala nola, ibaipekoa eta beste proiektu batzuk, pandemia horrek eragiten ez deutsienak eta ezelango atzerapenik izan ez dabenak, edo izan ezkerero oso txikiak izan diranak. Bitxia da. Baina ez da barria. Foru Aldundiaren politika dana da. Zoritzarrez, garraio publikoa ondo dago egunkarien titularrak beteteko, baina Bizkaiko Foru Aldundiak garraio publikoaren edo garraio pribaduaren aldeko apustua egiten dauen ebaluatu gura dogunean, ez da zenbatu behar komunikabideei emoten jaken titular kopurua. Kontuak oso argi egin behar dira, urteko aurrekontua hartu eta garraio publikoa sustatzeko zenbat milioi euro emoten diran eta garraio pribatua sustatzeko zenbat milioi euro emoten diran azertu behar da. Horrek definitzen dau Bizkaiko Foru Aldundiaren garraio-politika.

Azken errematea izan da, horrezaz gainera, erreferentziatzat garraio pribadua daukien proiektuak Europako funtsen laguntzak jasotzearen pentsuan ez dagozan proiektuak izatea. Kontrara, adibidez, metroaren 4. eta 5. lineak berehala egingo dira laguntzak jasoten baditugu, eta, bestela, ahal danean.

Gogoratu egingo dogu Foru Aldundi honen apustua, komunikabideetan behintzat, izan dala, eta Diputadu Nagusia hona diskurtso bat egitera igoten dan bakotxean, garraio publikoaren aldeko apustua, edo hori da esaten dauena. Zapatilak eta bizikleta erabiltea. Baina gogoratu behar dogu adierazi doguna, errealidadea bestelakoa da eta aurrekontuetan benetan gertatzen dana da.

Denporea agortu egingo jat, baina nahiago neuke egunen baten kontatzen nabilen hau guztia aldatuko balitz, eta nahiago neuke Alderdi Sozialista bezalako alderdi batek, bere printzipioen barruan ezkerreko printzipio batzuk ditu txalotu egiten ditugunak, eta printzipio horreek Bizkaiko Foru Aldundiaren politiketara be eroan eizuez. Ezkerretik Bizkaiko Foru Aldundian garatzen diran politikei bultzada emotea somatzen dogu faltan. Eta guk faltan botaten dogun moduan, herritarrek be faltan botaten dabe. Munduko maitasun guztiagaz dinot, Jerónimo jauna, ez dot esaten kritika moduan, baina gurago neuke ezkerretik egindako bultzada askoz nabarmenagoa izatea Bizkaiko Foru Aldundiari egingo deutsezuezan hurrengo proposamenetan. Gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias, señor Lobato Pascual. Y terminado el debate, debemos someter ambas iniciativas a votación, cuando todos estemos sentados.

Vamos a votar la moción, punto 4. Por lo tanto, votos a favor de la moción, votos en contra, y abstenciones. El resultado es el siguiente: se han emitido un total de 48 votos, 15 a favor, 31 en contra y 2 abstenciones. Por tanto, no se aprueba la moción.

Y a continuación sometemos a votación la Proposición no de Norma. Votos a favor, votos en contra y no hay abstenciones. El resultado es el siguiente: se han emitido un

total de 48 votos, 17 a favor y 31 en contra. Por tanto, no se aprueba la Proposición no de Norma.

Punto 6 del orden del día.

El Sr. **SECRETARIO / IDAZKARI** jaunak:

6.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

Iniciativa Originaria: Moción derivada de Interpelación ([R.E.11/E/2021/0000867](#))

Autor: Duque Santacoloma, Izaskun (EHB)

Asunto: Las residencias de mayores de Bizkaia.

Documento Principal:
([R.E.11/E/2021/0000867](#)),([R.E.11/E/2021/0000968](#))

Boletines: [Admisión a trámite y apertura del plazo de enmiendas](#) (24A), [Enmiendas: Admisión a trámite](#) (24B)

Expediente: ([11/B/20/0002049](#))

6.- Hurrengo idatziari(ei) buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:

Jatorrizko ekimena: Itaunetik eratorritako Mozinoa ([11/E/2021/0000867SE](#))

Egilea: Duque Santacoloma, Izaskun (EHB)

Gaia: Adinekoentzako egoitzak

Dokumentu Nagusia:
([11/E/2021/0000867SE](#)),([11/E/2021/0000968SE](#))

Aldizkariak: [Izapidetzeko onartzea eta zuzenketa-eskeak aurkezteko epea zabaltzea](#) (24A), [Zuzenketa-eskeak: Izapidetzeko onartzea](#) (24B)

Espedientea: ([11/B/20/0002049](#))

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Es el turno del grupo, del juntero, que ha presentado la iniciativa. Por lo tanto, tiene la palabra la señora Urkaregi Etxepare. Decir que los grupos han hecho una transaccional. Gracias.

La Sra. **URKAREGI ETXEPARE** andreak: Gracias, señora Presidenta. Buenos días de nuevo. No es la primera vez que hablamos en estas Juntas Generales de lo que ha provocado Covid-19 en las residencias de los mayores. Lo ocurrido en la primera ola fue muy grave, pero quizás en la segunda ola, o en la tercera, no sabemos dónde estamos, lo ocurrido ha sido más grave, porque pensábamos que ya iban a estar tomadas las medidas. Pero en esta segunda ola, en esta segunda o tercera, hemos visto cómo en varias residencias que atienden a personas mayores ha habido brotes importantes, entre trabajadores y residentes. Hemos visto las residencias donde se han contagiado la mayoría de sus trabajadores y residentes, Marcelo Gangoiti, Trullondo, Txurdinagabari... Como consecuencia de esta situación, el refuerzo de la vigilancia y control que debe proporcionar la Diputación Foral cobra toda su importancia.

Es cierto que en estos momentos hay cero positivos en las residencias de mayores y es una noticia alentadora. Recuerdo que la última vez que hablé de esto en estas Juntas Generales mencioné que ese día habría 200 muertos en las residencias. Afortunadamente hemos superado esta grave situación, pero todos sabemos que el virus está entre nosotros, que no estamos libres, aunque estén vacunadas las personas de las residencias. Por eso creemos que lo que parece que no hemos aprendido de la primera ola a la segunda, ahora lo tenemos que tener aprendido, y que si viene la tercera, cuarta ola posible, las medidas a tomar estén garantizadas.

Sabemos que la mayor parte de nuestro sistema residencial está en manos de la gestión privada, el 88% de las plazas. Pero no podemos olvidar que este sistema residencial es de responsabilidad pública. Es decir, que la Diputación tiene la responsabilidad de ese servicio, y en ese sentido la Diputación tiene que garantizar la calidad del servicio, y más a día de hoy las condiciones sanitarias. Y que tiene la responsabilidad de controlar y garantizar que las medidas contra la Covid-19 se están adoptando de forma adecuada.

Egoitzen sistema bat daukagu, gehien-gehiena, plazen % 88, kudeaketa pribatukoak diranak. Baina ezin dogu alde batera itxi egoitzen sistema hori erantzukizun publikokoa dala, eta, beraz, Aldundiaren erantzukizuna dala zerbitzuaren kalidadea bermatzea, eta are gehiago oingo osasun-krisi egoeran, egoiliarren osasuna bermatzea, eta Coviden aurkako neurriak behar bezala aplikatzen dabezala kontrolatzea eta bermatzea. Aldundiaren erantzukizuna da kasu guztietan, kudeaketa pribatukoak izan edo ez.

Y para garantizar estas condiciones, es imprescindible que la Diputación cuando sucedan determinadas situaciones, que puede ser cuando el número de muertos sea muy superior al habitual, o que cuando los infectados de Covid-19 son la inmensa mayoría, intervenga en esos centros residenciales. Y claro, también es muy importante incrementar las inspecciones en estos centros para tomar medidas antes de que la situación se agrave. Por eso el primer punto de nuestra moción decía así: las Juntas Generales de Bizkaia instan a la Diputación Foral de Bizkaia a que intervenga en los centros residenciales para personas mayores de gestión privada si se detecta un incremento inesperado de pacientes Covid-19, o cualquier otra situación excepcional que ponga en grave riesgo la integridad y sostenibilidad del servicio.

Y PNV y PSE nos presentaron una enmienda a la totalidad, y al final hemos conseguido una transaccional con PNV y PSE, y lo que hemos acordado en el primer punto ha sido instar a la Diputación Foral de Bizkaia a que adopte las medidas necesarias incluido suspensión de contratos, acuerdos, convenios, si han detectado motivos suficientes para ello en centros residenciales para personas mayores, cualquiera que sea su titularidad, conociendo situaciones excepcionales graves que ponen en peligro la integridad de las personas como consecuencia de las inspecciones individuales realizadas.

Creemos que, aunque no sea nuestra misma formulación, la Diputación se compromete a tomar medidas. La adopción de medidas, incluida la suspensión de contratos o convenios, cuando hay situaciones excepcionales graves, que es un paso para el cumplimiento de esa responsabilidad pública, y creemos que es importante.

Al segundo y tercer punto me referiré en la siguiente intervención con la enmienda que ha presentado Elkarrekin Bizkaia, porque ahora quiero que se explique el cuarto punto, porque ha sido el más difícil de acordar.

En nuestra moción decíamos que instamos a la Diputación Foral de Bizkaia a que diseñe la planificación para convertir la actual red residencial en un pequeño módulo de convivencia, teniendo en cuenta las adaptaciones técnicas a realizar y la necesidad de personal de las diferentes categorías, y presentar dicha planificación en esta Junta General antes del verano. Hemos acordado que hay que diseñar la planificación, pero no se menciona qué hay que incluir en esa planificación. Nuestra última propuesta fue incluir medidas, plazos y el presupuesto necesario. Pero estas precisiones no aparecen en la transaccional. También hemos acordado el plazo en lugar del verano, antes de que acabe el año. Ha sido lo más difícil de acordar sí, ¿por qué? Por un lado, en la moción que acordamos en octubre, en torno a los cuidados a largo plazo, ya aparecía que había que impulsar la transformación de la actual red de residencias en pequeños módulos de convivencia. En el debate presupuestario hemos intentado reflejar ese impulso en algunas partidas y no lo hemos conseguido.

Osoko Bilkuran onartutako egungo egoitzak bizikidetza-modulu murriztazago bihurtzea bultzatzeko ez bada bete, aurrekontuetan ikusi dogun moduan, zergaitik onartu barriro gai hori? Lehenengo eta behin, transnacionalean adostu dogu kontua ez dala eraldaketa bat bultzatzea, hori jada adostuta dago, ezpada Batzar Nagusiei aurkeztea urtea amaitu baino lehen egungo egoitza-sarea bizikidetza-modulu txiki bihurtzea sustatzeko plangintza. Baliteke gauza desbardinak ulertzea plangintzaz, eta ez dakigu zer aurkeztuko deuskuen. Baina EH Bildurentzat gai garrantzitsua da hori, aurrekontuen eztabaidan adierazi dogun moduan.

Preminazkoa da urratsak emotea egoitzen eraldaketa horretan, y por eso hemos decidido acordar la transaccional. Nuestra prioridad es mejorar el servicio a los residentes y que no se repita lo sucedido hasta ahora. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias, señora Urkaregi Etxepare. Tiene la palabra el representante del grupo Elkarrekin Bizkaia, el señor Fernández Medrano.

El Sr. **FERNÁNDEZ MEDRANO** jaunak: Gracias señora Presidenta, buenos días de nuevo. Ea, ahaleginduko naz gauzak aurkezten hona ekarri dodan ordenean. Kudeaketa pribatuko adinekoentzako egoitza-zentroetan Coviden enegarren olatuan izandako agerraldien inguruko kezka azaldu jaku, eta Foru Gobernuari lau lan-ildo proposatu jakoz, eta ikusten dogu gero zehaztu egin dirala, gobernutik etorren zuzenketa onartuta.

Edozelan be, lehenengoa zan zentroetan esku hartzea erabiltzaileen osotasuna edo zerbitzuari eusteko gaitasuna zalantzan egon ezker, eta ministro-agindu bat aitatzen zan, honezkero bertan behera geratu dana, baina, gure ustez, azpian dagoan zentzuna Konstituzinoaren 128. artikulua 2. puntua da, hor espazio pribatuetan esku hartzea baimentzen dalako interes orokorraren alde. Bigarren puntuan, kudeaketa pribatuko zentroetan ikuskapenak areagotzea planteetan zan, eta azken baten lurraldean ditugun ia guztiak dira. Hirugarren puntua, PCRen maiztasuna handitzea. Eta laugarren puntua, danok aitatu ditugun egoitza-modulu txikien kontua, baina badirudi danok ez dogula gauza bera ulertzen horretaz berba egiten dogunean, eta horrek asko kezkatzen nau.

Lau puntu horiek guztiz bidezkoak dira, eta guk, gure zuzenketaren bidez, barriro be higiene demokratiko eta higiene publikoko kontu bat gehitzen genduan, gure ustez ezinbestekoa dana. Eta hau da, behingoz, adineko jentearentzako egoitzetako kudeatzaile txarrei aurpegia ipintea, pandemia honetan zehar nortzuk diran susmoa hartu deutsegunak. Ze os mingarria da bigarren olatuko gaisoaldi handiak foru-erakundeetan gertatu izana, irabazi asmodun eskuek kudeatzen dabezanak, beti legezkoak, eta ez beti legitimoak, nire ustez. Edozelan be, zelan planteetan dogu hori? Lehen azaldutako tipologiako zentro horreetako bakotxean pandemia hasi zantetik egin dan kudeaketari buruz banakako txostenak eginaz eta bialduaz. Agerikoa denez, ez-betetze nabarmenen bat egon dan kasuan kontratuak murriztea ebaluetako.

Gure ustez Aldundia guztion ongizateaz arduratu behar da, baina bere etxeari lehentasuna emon behar deutso. Irabazi-asmodun soziedadeen esku dagozan hamar zentro horreek, esan dodan moduan, beti zehatz-mehatza aztertu behar dira, pandemian zehar egin dabaren ikuspegiagaz, ez bakarrik norberarena dana zaintzeko asmo patrimonialistagaitik, baizik eta, nire ustez, Aldundiak gauzatu behar dauen edo garatu behar dauen eredugarritasun-nahiagaitik, bere instalazio publikoak kudeatzeko aukera emoten dauen kudeaketari jagokonez. Hortik etorren guk zuzenketa gisa planteau dogun gaia. Hori gai estrategikoa dala uste dogu, asmo apalez planteau doguna, baina orain badakigu Gobernuaren zuzenketa onartuko dala, eta honezkero itxaropen gitxi daukagu. Dana dala, hemen batzorde bat aitatu behar da, otsailaren 19koa, orduan Muskizeko Marcelo Gangoitiren kontratua murriztea

eskatu genduan, eta Bizkaiko adinekoentzako egoitza-sarearen ikerketa orokor bat egitea. Ez Gernikako Osoko Bilkuran bezain modu ikusgarrian, baina orduan be eztabaidatu genduzan hemen gaur eztabaidagai dogunari buruzko funtsezko gaiak. Han agirian geratu zan talde bakotxaren jarrera, eta edonork begitu leike bilkura-egunkarian.

Nire zuzenketatik aparte, Foru Gobernuak onartu dauen zuzenketa parasitariotzat eta zentzu batean zikiratzailetzat joten dodalako dinot. Aldez aurretik parkamena eskatzen dot adjektiboak erabilteagatik, baina nire mezuaren zentzuna azpimarratzeko behar ditut, eta mundu guztiak ulertu daiala. Kasu honetan adierazpen askatasunak babesten nauela uste dot. Zergaitik dinot hori? Uste dodalako guztiz desakaktibatzen dauela EH Bilduren proposamenak euki leikean potentzial guztia. Badakit borondate onez eta fruituak emongo ditualakoan onartzen dala, eta nik be halan gura dot. Baina, nire ustez, gogoratu daiguzan Gobernuaren zuzenketa planteetan diran gauzak: kontratuak eten egingo dira horretarako errazoi argia dagoanean. Aitatu dodan Batzordearen moduan, geure buruari galdetzen jarraitzen dogu zer gertatu behar dan Aldundiak zentro horreetako baten kudeaketa bere esku hartu daian, zer dan agiriko errazoi bat. Ikuskapen-lanak zabaltzeko konpromisoa hartu dozue. Uste dot ordezkaten dodan koalizioak harri horretan, promesa horretan, estropezu egin dauela aurreko baten, beraz, ez deusat buelta askorik emongo. Azkenik, Osasun Sailak PCRei eta gainerakoei buruz esaten dauenari jarraitzeko konpromisoa hartzen dau. Besterik ez da behar.

Banan banan, eta amaitzen noa. Alarma egoeran egoitzen kudeaketan zuzenean parte hartzeko errazoi nabarmenik ikusi ez bada, bietako bat, edo ez gara mundu berean bizi, edo ez gara gai horretarako.

Bigarren puntua. Politika orokorreko Osoko Bilkuran gugaz ikuskapenak gehitzeko hartutako konpromisoa beteteko zain gagoz ondino. Jakina, ez ditugu kontuan hartzen pandemiak ekarritako salbuespenezko neurriak. Arazo hau lehenagotik dator.

Hirugarren puntua. Osakidetzaren jarraibideak bai ala bai jarraitu behar dira, eta ez daukagu aukerarik. Gure esku dago, zeozelan, ahal dogun guztia egitea birusaren aurkako lankidetzaren bateratua gauzatzeko. Eta egoitza-modulu txikiena kontuz. Nik uste dot plan hori Foru Gobernuaren buruan dagoala jada. Ez dot uste kontua danik lehenago edo geroago aurkeztea, baizik eta ziurtatzea plan hau gauzatzean edo eratzean, nire ustez jada prestatuta dagoana, gitxienez guk parte izatea. Eta guk ez badaukagu, gitxienez sindikatuek eta egoiliarren senideek. Eta barriro dinot, kontuz bizitegi-unidade txikien kontu horregaz, ze orain arte uste dot izen beragaz gauza desbardinak ulertzen ditugula danok. Getxoko belaunaldien arteko zentroan 100 adineko persona sartuko dira, gehi gazte batzuk, eta hori, zeozelan, egoitza-unidade txikien inguruko zentro eredugarritzat jotzen da. Ez dakit pisu ezbardinetan dagozalako eta ez diralako inoiz ikusiko, edo dana dalakoagaitik.

Edozein kasutan, erdibidekoaren aurrean abstenitu baino ezin gara egin, hasieran euki eikean indar guztia galdu dauen mozinoa. Egia da, era berean, bihotzez espero dogula Foru Gobernuak hor konprometiduten dituan gauzetako batzuk gauzatzea, batez be ikuskapenei buruzkoak. Baina itxi eiguza zalantzan jartzen. Gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias, señor Fernández Medrano. Y tiene la palabra la representante del grupo Socialistas Vascos, señora Campo Prieto.

La Sra. **CAMPO PRIETO** andreak: Gracias señora Presidenta, buenos días a todos y todas. Gaur barriro be gure lurraldeko adinekoen egoitzei buruz eztabaidatzen gabiliz, Euskal Herria Bilduk aurkeztutako mozinoaren harira. Foru Aldundiak holakoan gainean

egin behar dauen zaintza eta kontrolari buruz eztabaidatzen gabilz, birusari aurre egiteko kontingentzia- eta prebentzino-planei buruz, eta eredu barri baterantz aurrera egiteari buruz.

Danok bat egten dogu, zoritxarrez, pandemia honek arrasto mingarria itxi deuskula zaharren egoitzetan, suntsitzailea. Ados egon gara lehenasuna egoiliarak eta beharginak babestea zala, eta horretarako neurriak eta protokoloak ezarri dira. Beti % 100eko eraginkortasuna izan ez daben neurriak eta protokoloak, hainbat faktoreren arabera: lehenengo unean babes-materiala eskuratzeko zailtasunak, zentro bakoitxaren neurria, ingurunean eukan eragina, bizikidetzaren izatearen baldintza, eta beste faktore batzuk eragin handiagoa edo txikiagoa euki dabenak. Orain zorionez beste egoera baten gagoz, eta ikasitakoa aplikatu behar da.

Sozialistok beti egon gara ados diagnostiko zehatz baten premineagaz, egoitza-ereduan egin beharreko aldaketak planifikatu eta landu ahal izateko. Guk askotan esan dogu beharrezkoa dala, ez bakarrik berragerraldiak edo antzeko gertakariak saihesteko prebentzino-neurriak zorrotzea, baita be baldintza egokiak bermatuko dabezan zerbitzuak eraldatzeko esparru bat ezartzea, egungo ereduaren eraldaketei ikuspegi zabalagaz eta ikuspegi integralagaz aurre egiteko beharrezkoak diran aldaketak planifikatu eta joratu ahal izateko esparru bat. Horegaitik zuzenketa bat proposatu dogu Euskal Herria Bilduk aurkeztutako mozinarako. Bertan, lehenengo puntuan, Aldundiari eskatzen deusagu behar diran neurriak hartu daizala, personen osotasuna arriskuan jartzen daben salbuespenezko egoera larrien aurrean kontratuak eta hitzarmenak etetea barne, beti be nahikoa errazoi egiaztatu bada eta ikuskapen indibidualizatuen ondorioz Bizkaiko egoitza guztietara zabaldu bada, egoitzen titulartasuna edozein izanda be.

Bigarren puntuan, adinekoentzako zentro guztietan baimendutako ikuskapen-lanak zabaltzea proposatzen dogu.

Hirugarren puntuari jagokonez, egoitzetan PCR prebentibo gehiago egiteko lankidetzan jardutea proposatzen dogu, beti be Osasun Sailak aholkatuta.

Eta laugarren puntuan, Bizkaiko Foru Aldundiari eskatzen deusagu aurkeztu daiala Batzar Nagusiotan, urtea amaitu baino lehen, egoitza-sarea bizikidetzaren modulu txikiago bihurtzea sustatzeko plangintza.

Alkarrizketa eta negoziazioaren ondorioz, erdibidekoa adostu dogu. Sozialistok beti adierazi izan dogu adinekoen zaintzak dakarren erronkari heltzeko beharra. Erronka horrek, besteak beste, bizitoki-eredua eraldatu behar izatera garoaz, eta hori egiteko adostasuna zenbat eta handiagoa izan, orduan eta hobeto. Coviden eraginaren ondorioak eta kausak eta babes- eta kontingentzia-protokoloek zelan funtzionatu daben aztertu eta ostean, irudi fidagarriagoa eta zehatzagoa izango dogu, eta egoera hobean egongo gara eztabaidari ekiteko. Ze abiarazten dan aldaketa-prozesua abiarazten dala, datuetan eta ebidentzietan oinarritutako diagnostiko egoki batetik hasi behar da.

Egungo egoitza-eredua berrikustea sozialistok daukagun konpromisoa da, eta horretan gabilz, ahalik eta urtenbiderik onenak bilatzeko, lasaitasunetik eta lankidetzatik abiatuta; zaintzak erraztuko dabezan egoitza-azpiegiturak garatzen; hain instituzionalizatua ez dan eta persona bakoitxari arreta gehiago emoten deusan eredu baterantz aurrera egiten; bizikidetzaren unidate txikiago bihurtzen; eta profesionalen prestakuntza bultzatzen. Azken baten, arreta integraleko eredu bat, personan oinarritua, eta gu beti egongo gara eredu hori errazten daben akordioen alde. Gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señora Campo Prieto. Tiene la palabra la representante del grupo Nacionalistas Vascos, la señora Inoriza Bustamante.

La Sra. **INORIZA BUSTAMANTE** andreak: Gracias, señora presidenta, y buenos días a todo el mundo. EH Bilduk aurkeztutako Bizkaiko egoitzei buruzko interpelazioaren ondoriozko mozinoari jagokonez, Euzko Abertzaleak taldeak hainbat gai planteau nahi ditu, garrantzitsuak iruditzen jakuzanak. Alde batetik, Bizkaiko adinekoen egoitza-zentroetako eragina prebenitzeko eta kontrolatzeko Aldundiak abian jarri dituen mekanismoak, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailagaz lankidetzan, lau ardatz nagusitan banatuta: zaintza, prebentzioa, kontrola eta laguntza. Gizarte Ekintzako diputaduak joan den urtarrileko Osoko Bilkuran azaldu ebanez, prebentzioaren arloan, egoitza-zentroetan izan daitekeen edozein eragin kontroletako behar diran mekanismo guztiak jarri dira martxan; zehatzago, profesional-talde bi aktibatu dira, 21 prebentzio-teknikari eta eragin-kontrol zentroi laguntzeko sektorizazioan, epiak erabilten eta abarrear; eta erantzun azkarreko bost talde, erizaintzako profesionalek eta erizaintzako laguntzaileek osatuak. Guztira, 7.000 PCR prebentibo baino gehiago zentro soziosanitarioetako profesionalentzat, eta uneoro Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailagaz koordinata, pandemiaren bigarren olatuan.

Gainera, pandemia hasi zanetik, Bizkaiko Foru Aldundiak 22.000 PRC prebentibo eta beste 25.000 PCR errektibo baino gehiago egin ditu.

Ikuskapenaren arloan, gogoratu behar da ikuskapenak ikuskapen- eta kontrol-lanak daukan irismenaren barruko jarduketa dirala. Eta egoitza guztiak ikuskatuta dagozala eta ikuskatu dirala Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Saileko ikuskatzaileek ezarritako araudia eta protokoloak betetea dala-ta, eta ikuskapenen balantzearen bidez jakinarazten dala urtero. Baina ikuskapenagaz lotutako beste jarduketa batzuk be egin dirala gaineratu behar da, eta ildo horretan, ikuskapen-aktan (336) jaso diran ikuskapen-jarduerak. Baina Ikuskaritza eta Kontrol Zerbitzuaren menpeko profesionalen 1.220 bisita baino gehiago egin dira. PCI teknikariek 1.226 bisita egin dabez, dokumentauta dagozanak, eta zentroetako jarduna ikuskatzeko kontrol-lanak egiten dabez. Horreetatik 73 errekerimentu formal eta 22 zehapen-espeditente bideratu dira. Zehazki, eta zehatzago esateko, iazko martitik, 4.000tik gora ikuskapen-jarduera. Hori guztia jagokozan txosten, akta eta ondorioakaz.

Eta horregaitik guztiagaitik, garrantzitsua iruditzen jat azpimarratzea Foru Aldundi hau uneoro ibili dala ikuskapenak egiten egoitza-zentro guztietan, pandemia hasi zanetik, egunero, behin-behineko PCRak prestatuz eta PCI teknikariakaz. Eta Gizarte Ekintzako diputaduak azaldu eban moduan, ez da gelditu, martitik esku hartzen dabil eta ordutik esku hartu da.

Eta neurri horreek guztiak, PCRak, ikuskapenak, PCI teknikariak eta Coviden espezializautako egoitza-unidade soziosanitarioak, astero berrikusten dira eta teknikari horreek koordinatzen dabez, beti be Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailagaz lankidetzan.

Beste alde batetik, eta egungo egoitza-sarea bizikidetz-modulu txiki bihurtzeko plangintzaren diseinuari jagokonez, Gizarte Ekintzako diputaduak jakinarazi dauenez, bizikidetz-unidadeak Bizkaiko Foru Aldundiagaz hartu-emon estrategikoan dagoz. Argi dago Sailak epe ertain eta luzean pentsetan daben taldeak dituela, adineko personentzako egoitza-zentroetarako nahi dan etorkizuneko eredu hori gauzatu ahal izateko. Eraldaketa horren plangintzan aurrera egin ahala.

Azkenik, nabarmendu behar da egoitzak elkarbizitzarako eta eragile desbardinaren arteko alkarrekintzarako lekuak dirala, eta, horregaitik, adinekoak oso ahulak diranez eta arriskuan dagozanez, lehentasunezko helburu izan dirala Aldundiaren jardueran. Eta

zorionez, gaur esan geinke, egin dan txertaketari esker, Bizkaiko egoitzak joan dan barikuan, otsailaren 19an, koronabirus kasu barik geratu zirala, pandemia hasi zanetik lehenengoz, txertoen eraginari esker; izan be, egoitza-zentroetan erabilten dan txertoari buruz argitaratutako azterketen arabera, % 94,6ko eraginkortasuna ziurtatzen da, eta gaixotu ezker, kasu arinak baino ez dabez garatuko.

Gainera, otsailetik ez da egoiliarrik hil Bizkaian koronabirusagatik. Hori eta aurretik esandakoa dala-ta, Euzko Abertzaleak, Euskal Sozialistak eta EH Bildu akordio transazional batera heldu gara, eta Ganberaren gehiengoak babestea espero dogu, nahiz eta Podemosek honezkero esan dauen abstenidu egingo dirala. Eta Euskal Herria Bilduk eta Euskal Sozialistek azaldu dabenez, ez dot zuzenketa barriro azalduko, baina ohar pare bat.

Lehenengo puntuan, azpimarratu behar da Foru Aldundiari ez jakola eskua dardarka jarriko, baina egitateak frogatu egin behar dirala. 2. puntuan, esan behar da hori Aldundiak daukan lan-ildoan dala, eta lanean jarraitzea animetan dogu. 3. puntuari jagokonez, Osasun Sailak ezarri behar ditu PCR laginak egiteko erespideak. Eta laugarren puntuan, esan dodan moduan, plana martxan dago eta aurkeztu ahal izango da, baina oinak lurrean eta etorkizunari begira.

Beraz. Mozino hau bere testu hobetuagaz babesten dogu, hori dalako Bizkaiko Foru Aldundiak egin dauena eta egiten dabilena. Ez-beteteak dagozanean, Sail honek ez dau dardararik egingo, baina ez-betete horreek frogatu egin beharko dira, eta ikuskapen gehiago egiten dabilz, eta hori da jarraitu beharreko ildo. Gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias, señora Inoriza Bustamante. Y tiene la palabra el representante del Grupo Berezia-Partido Popular Bizkaia, señor Andrade Aurrecochea.

El Sr. **ANDRADE AURRECOECHEA** jaunak: Egun on guztioi. Berandu samar bada be, nire lehenengo hitzaldia da eta Diputadu barriari ondo etorria emoteko aprobetxau gura dot lehenengo eta behin. Kudeaketan asmatzea espero dot, bizkaitar guztientzat ona izango da-ta, eta bestela hemen izango gara oposizinoa aurpegiratzeko. Eta eskerrak emon gura deusiedaz kargua itxi daben diputaduei, eta, bereziki, Unzueta andreari, eztabaida ugari izan ditudalako Ingurumenari eta Iraunkortasunari buruz. Eskerrak emon gura deusadaz gatxa dana erraz egin dauelako, hau da, desadostasun politikoa horretan geratzen da, desadostasun politikoa. Ondo eztabaidatu dogu, kritika onagaz berba egin dogu, eta nik uste dot eskertu egin behar jakola egindako lana. Bengoetxea andrea gitxiago ezagutu dot, baina Unzueta andreari eskerrak emon gura deusadaz.

Gaur Osoko Bilkurara ekarri dan proposamenari jagokonez, egia esan, oso harrigarria da gaur goizean aurkeztu dan azken erdibideko honetan egin dan aldaketa, eta Euzko Alderdi Jeltzalearen ordezkari andreari entzunda, ulertzen dot ez dodala transakzionala ulertzen; izan be, jakina, hemen gauzak jartzen dira eta ahaldunak, adierazi dau EAJk egin dauan guztia, pandemiaren gestinoa zoragarria izan da, hau da, puntu guztiak azaldu ditu, eta hori guztia egin dau. Orduan, hemen ipinten dauen, euren gestinoaren ahopeko kritika bat izan daitekena, euren proposamenen be ez dabe onartzen. Eta holan ikusi ditugu Gizarte Ekintzako Batzordeetan izan ditugun eztabaida ugarietan, ugariak eta emonkorrak. Onartu behar da batzordeak egin ditugula, batzarkideak esan dauen moduan ez Batzarretxeoak bezain ikusgarriak, baina horretaz guztiaz berba egin dogu.

Gai-zerrendako lehenengo puntua, akordioko lehenengo puntua, kontratuak edo hitzarmenak eteteari buruzkoa, personen osotasuna arriskuan jartzen daben salbuespenezko egoerak edo egoera larriak egon diranean, Batzordean eztabaidatu zan eta EAJk aurkako botoa

emon eban. Honezkero egin egiten dan kudeaketa da, hau da, baten battekk txarto kudeatzen badau, normalena da kontratuak etetea, eta holan berba egin zan Batzordean, eta argi eta garbi geratu zan, hemen erredundantea jartzeko moduan, eta, zalantza barik, Batzorde haretan EAJk horren aurka bozkatu eban, jada egiten zala esaten ebalako. Orain ulertzen ez dodana da zergaitik onartzen daben hemen jartzea, baina, esan dodan moduan, hitzarmenen artikulua bat da. Dana dala, EAJk berak luzatu egin ditu datorren urterako egoitza guztiakaz egindako hitzarmenak, badaezpada be, abenduan pandemiaren ostean luzatu egin ditu, hitzarmenak onartu egin ditu.

Bigarren puntua, ikuskapenak zabaltzea, nik uste neban Euzko Alderdi Jeltzaleak onartzen ebala oker egozala. Batzordeetan ikuskapen handiagoa eskatu izan dogu, eta esaten zan pandemiaren aurretik urtean 1 edo 1,5 ikuskapen egiten zirala egoitzetan, eta hori oso gitxi zan. Pandemia denporan askoz gehiago egin ziran, jakina, eta gitxi ziran, eta batzorde guztietan eskatzen genduan gehiago egiteko. EAJk beti ukatu dau ikuskapen-epaia luzatzea, gaur bertan esaten zan nahikoak dirala eta oso ondo egiten dirala, eta hemen dator egoitza-zentroei ikuskapenak gehitzeko esaten. Ondo etorri danok eskatzen dogunera, ikuskapen gehiago egoitzetan, hori egoiliar guztien onerako izango da-ta.

Gero, lagundu daijala egoitzetan prebentzinoko PCRak egiten. Hori be ez, horretarako pandemia osoan gehiago eta gehiago eskatu dogu PCRak egiteko, baina pandemian zehar, ustekabeen guztiok harrapatu ginduzan lehenengo olatua igarota, bigarrenean hirugarrenean PCR gehiago egin ahal izango ziran, ez jaken PCRrik egin langileei, ez PCRrik sartu zirenei, ez PCRrik egoiliarrei. Hondamendia izan zan PCRen kudeaketa, eta, beraz, orain PCRak egingo dabezala esatea txantxetako emoten dau, PCRak txertatuta ez dagozantzat geratu diranean, egoitzetan mundu guztia txertatuta dagoanean. PCRak bisitetarako izan daitezke, baina, tira, gai hori alde batera geratu da.

Eta azkenengo puntua, jakina, azkena, egoitza-unidade txikiagoena, hemen ez gatoz bat inondik be. Hau da, Diputadu Nagusiak, iraileko eztabaidan, egoitza-unidade txikiago barriak iragarri ebazan, eraikuntza barrikoak, eta holan bota eban, ekipamendu txikiagoak, frogatuta egoalako egoitza txikiagoak egozan lekuetan birusa gutxiago sartzen zala. Eraikuntza barrikoak esan zan, eta handiak zonifikatzen hasiko zirala, eta gero Sergio Murillo jaunak bere adierazpenetan zehaztasunak sartu ebazan: ez gengoan berbaz ekipazino txikiagoez, zonifikatu egingo genduzan bizikidetz-unitateez baino. Eta hemen esaten da azterketa bat aurkeztuko dala, baina zonifikazinoa eginda dago ba-ta, batzordeetan ikusi dogu. Egoitza handien zonifikazinoak egin dira honezkero.

Lehenengoa. Diputadu Nagusiak zabaldu eban mezua, hau da, egoitza-unidade txikiagoak egingo zirala, guzurra da, ze pandemiaren ondoren eregiko dan lehenengo egoitza Getxon izango da, egoiliarrentzako 100 plazagaz, eta hori ez da egoitza txiki bat, hori egoitza handi bat da. Eta orain esaten da, ez, baina zonifikatu egingo dogu solairuka. Egoitzen patronalaren Konfederazioak honezkero esan dau ezinezkoa dala egoitzak zonifikatzea. Batzordeetan egin dogu berba, ezinezkoa da, eta kasurik argiena Muskizen daukazue, zonifikatuta egoan eta. Ezinezkoa da zonifikatzea, beharginak solairutik solairura dabilz eta, garbilekua solairurik solairura doa eta, fisioterapeutak solairutik solairura dabilz eta. Eta zer gertatu zen Muskizen? Ba, gaixotasuna hasi zan, pandemiaren hirugarren bolada hau, kutsatutako 5 persona zituan solairu baten, hirugarren solairura igon zan, eta, azkenean, 103 gaixo egozan. Eta hori da orain joan nahi dozuen egoitza zonifikatua, eta badirudi EH Bilduk zuzentzat jotzen dauena. Ez da existitzen, zonifikatutako lekuak ez dau balio, mundu guztiak esaten dau, edozein profesionalek esaten dau, Muskizera bialdu zenduen ikuskaritzak esan eban, zonifikatzea ezinezkoa dan elementu komunak dagozala orain be.

Orduan, zergaitik babesten da, zalantza barik, bizikidetz-modulu txikietako egoitza-unidadeetara joateko proposamena? Hori zer da, solairu bakotxa unidade bat dala? Baina gero langileek kafe bat alkarregaz hartzen badabe, gero familiak alde batetik bestera

pasetan badira. Erabat barregarria da egoitza handi bat zonifikatzeko proposamen hori. Diputaduak Politika Orokorrari buruzko eztabaidan esan eban moduan, egoitza batzuk egin nahi badozuez, prozeesu horrek denpora asko daroa, argi dago, unidade barriak diralako, biziteko eredu barri bat, denpora asko beharko dauena, ez da gauek goizera aldatuko. Baina ez dau balio esatea hemendik aurrera, lehenengo solairukoak unidade bat, modulu bat dira, bigarrena beste modulu bat, hirugarrena beste modulu bat eta kito. Eta danak eskaileretatik, igogailuetatik eta partekatzen dabezan terrazetako espazio libreetatik konektauta.

Zuek salbau zarie, salbau zarie, EAJko batzarkideak esan dauen moduan, txertoakaitik salbau zarie. Kudeaketa negargarria izan da, ez zaitue kanpaiak salbau, kanpairik ez egoalako, baina bai txertoak, eta ez kudeaketak. Txertoa heldu ez balitz, gaur egun egoiliar gaixoz betetako egoitzak eukiko geunkez ondino, pandemia egoitzetako solairutik solairura igaroten. Oraindino sufritzen egongo ginateke. Zalantza barik, zuen kudeaketak, PCRrik egin barik, ikuskapenik egin barik, egoitzak bereiztea lortu barik, negargarria izaten jarraituko leuke. Beraz, nik uste dot zuzenketa honek gauza onak dituala, esan dodan moduan, akatsak onartzen ditualako, nahiz eta gero hemen hitzez hitz ezetz esan, baina ezin da onartu. Mila esker.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias, señor Andrade Aurrecochea. Y pasamos al turno de réplica. Para ello, tiene la palabra la representante del grupo EH Bildu, la señora Urkaregi Etxepare.

La Sra. **URKAREGI ETXEPARE** andreak: Gracias señora Presidenta. Yo me reafirmo en que la transaccional conseguida supone realmente un compromiso del trabajo y el control que tiene que hacer la Diputación en las residencias. Y lo digo porque en cierto sentido estoy de acuerdo con Andrade, oyendo que el representante del PNV dice Horixe egin dau eta egiten jarraituko dau Aldundiak. Hori ez da ez letra ez espiritua, eta espero dot halan izatea, ez bakarrik EH Bilduren aldetik, baita Foru Gobernu osatzen dabenen aldetik be, eta, zehazki, Sergio Murillo jaunaren aldetik, Gizarte Ekintzako diputaduren aldetik.

Es verdad que se han tomado medidas, yo eso no lo voy a negar. Y no voy a repetir cuántas medidas se han tomado. Pero yo creo que la Diputación tiene que asumir que esas medidas no han sido eficaces, porque si no la segunda, en esta tercera ola no habría habido más de 3.000 positivos, y más de 200 muertos. Algo no se ha hecho bien. Involuntariamente, no sé por qué, no lo vamos a decir, pero las cosas no se han hecho bien y hay que tomar medidas más drásticas.

Y en ese sentido el primer punto de la transaccional profundiza en ello. Que hay que tomar medidas y suspender contratos o convenios en un momento. Sabemos que, para eso, por supuesto, tiene que haber razones y eso. Y creo que también eso supone una modificación, porque hasta ahora el Departamento de Acción Social no quiere aceptar eso, esa intervención no es tal como nosotros la planteábamos, pero creo que es un paso.

Los puntos segundo y tercero, antes no lo he mencionado, pero el segundo punto era realizar inspecciones técnicas, y se mantiene. La única diferencia es que hemos puesto en la nuestra los de gestión privada, y lo que se ha aprobado es todas las autorizadas, es decir, todas, pero en el mismo sentido.

Y en el tercer punto es cierto que lo que planteábamos en nuestra moción era que las PCR preventivas se hicieran con mucha frecuencia, y a día de hoy no lo sabemos. No sabemos cuándo y cómo se iban a realizar los PCR después de la vacunación. También sabemos que la vacunación no va a estar para siempre, entonces habrá que hacerlas, pero cuándo no lo sabemos. La contrapropuesta que se ha hecho en ese sentido, que se haga según las

recomendaciones del Departamento de Salud, creemos que es lógica. Ahí hay un compromiso de hacer PCR cuando haga falta.

Y la enmienda que planteó Elkarrekin Bizkaia, lo ha dicho Héctor, poner cara a los malos gestores. Lo que se planteó en la enmienda era que además de aumentar el número de técnicos adscritos al servicio Foral de Inspección, y nosotros estamos de acuerdo con ello y así lo hemos planteado en los presupuestos, que actualice los protocolos y procedimientos vigentes en dicho servicio para responder a lo solicitado por los agentes afectados, familiares, etc. Nosotros estamos de acuerdo con eso, pero no hemos conseguido meterlo en la transaccional. Pero sí que hay un compromiso de hacer más Inspección.

Y cuarto punto. Lo he dicho antes, que ha sido lo más difícil para acordar, o lo que nos plantea más dudas. Porque al final decimos, en cierto modo eso, que estaba aprobado. Pero creemos que es muy importante, hay una diferencia. En octubre aprobamos que íbamos a impulsar eso, pero luego hemos visto que en los presupuestos no ha habido partidas para ello, entonces eso no está en marcha, eso está en el espíritu, pero no se ha llevado a cabo y nosotros hemos presentado la enmienda para hacerlo. Y por eso creemos que es importante presentar una planificación, y la hemos puesto antes de que acabe el año, para que haya partidas en los próximos presupuestos. Porque en 2021 no lo hemos conseguido, pero en 2022 es imprescindible que si realmente se quiere que se haga esa transformación se pase de las residencias actuales a las residencias de pequeños módulos, pues yo creo que ahí se necesita una partida presupuestaria para hacerlo. Quizás es verdad que no sabemos muy bien qué entiende cada uno por esos pequeños módulos, pero cuando se presenta una planificación, y por eso decíamos que era necesario concretar las medidas, y eso no aparece, pero creemos que en esa planificación aparecerá cómo hay que hacerlo. Y lo que hemos dicho antes, para nosotros es muy importante adoptar este tipo de compromisos. Igual podíamos decir, pues mantenemos lo nuestro, pero si mantenemos lo nuestro sabemos que no va a salir. Y entonces nosotros hemos priorizado dar una segunda oportunidad para llevar a cabo realmente esta transformación en las residencias, para llevar a cabo esa transformación que se necesita, y una cosa que nosotros esto...

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Señora Urkaregi Etxepare, vaya terminando por favor.

La Sra. **URKAREGI ETXEPARE** andreak: Pero tenemos claro que cuidaremos para que cumplan lo aprobado. Vale. Gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias, señora Urkaregi Etxepare. Tiene la palabra el representante del grupo Elkarrekin Bizkaia, señor Fernández Medrano.

El Sr. **FERNÁNDEZ MEDRANO** jaunak: Gracias señora Presidenta. Arantzaren azken oharra dirala-ta, zorte ona, ia jarraitzen dan edo hau paper bustia baino gehiago dan, gure ustez hori baino ez da-ta. Zuzenketa hori onartu dozuenean, nik be bat egiten dot Euskal Herria Bildu taldearen itxaropenagaz, eta espero dot Foru Gobernuak betetea.

Argitzeko. Nire zuzenketa hau esaten zan: Batzar Nagusiek Bizkaiko Foru Aldundiari eskatzen deutsie txosten individual zehatzak egiteko eta bialduteko, foru-titulartasuneko adinekoentzako egoitza-zentroetan jarduten daben erakunde pribaduei buruz, pandemia hasi zantetik, kontratua aurretiaz eten behar dan baloretako, euren kudeaketa-gomendioak beteten ez badabez.

Eztabaida zelan doan ikusita, damu naz zentro guztietan orokorrean eskatu ez izanaz, Aldundiarenak izan edo ez. Ze beharbada onartzeko moduko zerbait egiten ahalegindutearren, zuhurregi jokatu dot. Egia da, dana eskatu izan banau, oso zorrotza nazela aurpegiaratu eustien, gitxi eskatzen badot, gitxi eskatzen dodalako. Tira, hori gitxienekoa da.

Edozelan be, nik uste dot nahikoa dala, nik proposatutakoari jagokonez, holako gaiei buruzko informazio orokorra eskatzen ibiltea. Nik hori proposatzen neban gardentasunaren eta kontrolaren aldetik. Gardetasun eta kalitate-kontrol zehatza. Nahikoa da adindunentzako egoitza-zentroyen estigmatizazioan atzean ostonduteaz. Esan gura dot, horretarako nahikoa dira kudeatzaile txarrak eurak bakarrik. Persona batek egoitza bat ondo kudeatzen badau, ez leuke beldurrik euki behar bere datuak Bizkaiko Foru Aldundiak argitaratuta atera daitezkan, ardura emoten deustien gaiei buruzko informazioa jaso gura daben herritarren esku egon daitezkan.

Hori esanda. Barrero be, gogora ekarri nahi izan dogu alarma-egoeran ez zala egoitza baten be esku hartu, aitatutako ministro-aginduren babespean. Hori ez zan beharrezkoa, horrek ez dau esan gura beharrik ez egoanik. Kontuz. Ze hemen ikusten dot danok pozik gagozala egoitzetan Coviddunik ez dagoala, baina orain dator egoitzetan gertatu danari buruzko kontakizuna egiteko jarrera hartzeko unea, eta arlo horretako Bizkaiko patronalik garrantzitsuena hori dago, alde batetik esanez bidegabeak izan garala edo balorazio bidegabeak egin ditugula pandemian egindako kudeaketari buruz; bestetik, esaten dabe ezin dabela erantzun. Baina hemen mundu guztiak egingo dau gertatutakoaren irakurketa, eta ikusiko dogu, kontuz ibili gaitezkan denboraldi honetan egoitzetan gertatu dana definitzean txikieria bat izan dala esateagaz.

Nik uste dut justizia egin behar dala gertatu danagaz, eta horretarako modu bat da bakotzak zer egin dauen jakitea. Esan dodan moduan, kudeatzaile txarrak. Nik ez dakit nortzuk diran, baina sindikatuak, senideak, persona batzuk seinalatzen dabez eta ondo legoke burutazino hutsak baino zeozer sendoagoa erabiltea lanerako.

Hori esanda. Ikuskapenarena. Ez zan bete Politika Orokorreko Osoko Bilkurak ikuskapena gehitzeari buruz hartutako konpromisoa. Espero dot orain betetea. Dana dala, badakigu kontua ez dala kopurua handitzea bakarrik, kalidadea handitzea baino. Kexa pandemiaren aurrekoa da, gitxi egiten dirala eta ez dirala behar diran erespideakaz. Zentzu horretan, beti eskatzen dogu sindikatuak, senideak eta erabiltzaileak kontuan hartzeko, ikuskapenok egiteko behar diran erespide teknikoakaz batera. Ia hobetzen dan.

Eta nik egoitza-unidade txikien gaia eztabaidatzen jarraitzen dot. Ze nondik dator baieztapen hori. Espero dot, esan nahi dot, izango dogun eztabaida hori ez oinarritzea koronabirusaren lehenengo olatuaren txostenean. Izan be, lehenengo egunean irakurten parau nintzan, txosten hori jartzen danean unidade txikiak hobeak diralako froga gisa, eta 23. orrialdean, 4. taularen ostean, eta non ikusten dodan intzidentzia handiagoa dala ertainetan. Handietan infektatu gehiago egotea jakina da, jente gehiago dagoalako. Baina argi ez dagoana da batez besteko okupazioari jagokonez kutsatutakoen edo hildakoen tasa arbitrarioa izatea, eta hor kasu bietan egoitza ertainak aitatzen dira. Baina ez dau esangura estatistikorik. Espero dot plangintza horretan unidade txikien gaia justifiketako beste dokumentu batzuei buruz hitz egitea, txosten hau ez bada be; izan be, txostena egin dauenak ez ditu ondorioak idatzi, eta persona desbardin bi dira.

Eta azken 10 urteetan egoitza handiak eregiteko beroaldi hori guztia non geratzen da, eta eredu barri honetan zer eginkizun izango daben. Uste dot eztabaidatuko dogula, zelan planteatzen deuskuen hori beteteko daukien plangintza, Batzordean entzuteaz ganera. Beste barik, abstenidu egingo gara. Mila esker.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias, señor Fernández Medrano. Y tiene la palabra la representante del grupo Socialistas Vascos, señora Campo Prieto.

La Sra. **CAMPO PRIETO** andreak: Muchas gracias de nuevo. Buenos días de nuevo. Covidek itxi deuskun beste lezio bat da batu eta alkarlanean jarduten dogunean indartsuagoak garala. Gaur egin dugu, batu egin dogu. Beraz, lehenengo, lortutako akordioari balioa emon, akordio horrek proposamenak konpromiso eta politika bihurtzeko balio dauelako.

Lehen esan dot egoera aldatu egin dala, eta agertoki barri horrek larrialditik larrialdira igaroteko aukera emoten deusku, zerbitzuak hobetzeko beharrezko urratsak emotera. Guk konponbideetan zentretan jarraituko dogu, erantzukizunez. Ez gara egongo fikzinozko eztabaidak sortzen, horreen interes bakarra zalantzak sortzea dalako, antza danez errudunak bilatzeko eztabaidak sortzen, urtenbideak bilatzean baino.

Sozialistok beti izango gara urtenbideen parte, eta ez ditugu itxiko ezarritako helburuetara hurreratuko gaituen konpromisoak lortzeko aukerak pasetan. Eta horretan gabilz. Ahuleziak identifikatzen, indargune bihurtzeko. Bat gatoz persona bakotxaren preminetan oinarritutako bizitoki-eredu gizatiarrago baten aurrera egiteko beharraz, eta, Jaurlaritzaren akordioan jasoten dan moduan, egoitza-zentroak arautzen dituen Dekretua egokitzeagaz, gure adinekoentzako baldintza eta zaintza onenak bermatuko dituan aldaketa sustatzeko. Gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias, señora Campo Prieto. Y tiene la palabra el representante del grupo Nacionalistas Vascos, señor Inoriza Bustamante.

La Sra. **INORIZA BUSTAMANTE** andreak: Gracias de nuevo. Nire lehenengo hitzaldian azaldu dodan moduan, Foru Aldunditik eta Gizarte Ekintza Sailetik une bakotxean behar diran mekanismo guztiak jarri dira martxan, Bizkaiko egoitzen sareko erabiltzaileen eskubideak babesteko, ekainaren 9ko Foru Aginduan oinarrituta. Agindu horretan ezarten dira Bizkaiko adinekoentzako eta desgaitasuna daukien personentzako egoitza-zentroetako Covid-19ren prebentzino-, euste- eta koordinazino-neurriak. Ildo horretan, ikuskapenaz berba egiten dogunean, Foru Aldundiak une oro emon du orain arte egindako jarduketa, ikuskapen eta esku-hartze guztien barri.

Gainera, kontratua nahita, zabarkeriaz edo doloz bete ez balitz, sail honek horren arabera jokatu leuke, eta ez daukat zalantzarik lehenengoa izango litzatekeela horretara jokaten. Eta hartu beharreko neurriak, hartu behar badira, beti indarrean dagoan legeriara egokituta eta akta eta txosten teknikoetan oinarrituta.

Laugarren puntuari jagokonez, hau da, komunidadera irekitako egoitzak, mediku-laguntza behar ez daben pertsonentzako etxeak, neurri txikiko bizikidetza-unidadeetan antolatutak, 15 edo 20 persona, batez be hiri-inguruneetan eta alkarrekintza komunitarioa daukienak, eta belaunaldi desbardinaren arteko bizikidetza-espazioak daukiezanak. Bizkaiko Ahaldun Nagusiaren berbak.

Amaitzeko, eta nire lehenengo hitzaldian esan dodan moduan, eta Andrade jaunari erantzuteko, ze ez jako gustau nire lehenengo hitzaldia, mozino hau babestuko dogu testua hobetuta, Aldundiak hori egin daualako eta egiten jarraituko dauelako. Sail honegaz frogatutako ez-betetzerik egon ezker, ez dau zalantzari eukiko horren arabera jarduteko. Ikuskapen gehiago egiten dabilz, eta hori da jarraitu beharreko jokabidea.

Eta amaitzeko, Foru Aldundiaren eta Sail honen lana baloratzea; izan be, pandemiaren hasieratik, hartu diran, hartuko diran eta hartzen jarraituko diran neurriakaz, eta ekimen honegaz aberastu egingo da. Pena da ganberako talde guztiak ez batzea. Eta, beste alde batetik, eskertu Euskal Herria Bildugaz lortutako akordioa.

Lehen ez dot denporarik euki, baina orain Ibonek eta Elenak urteotan egindako lana eskertzeko aprobetxau gura dot, eta diputadu barri biei, Amaiari eta Elisabeti, ondo etorria emoteko. Gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias, señora Inoriza Bustamante. Y tiene la palabra el representante del Grupo Berezia-Partido Popular Bizkaia, señor Andrade Aurrecoechea.

El Sr. **ANDRADE AURRECOECHEA** jaunak: Ez da zure hitzaldia ez jatala gustau. Asko gustau jat, baina guztiz kontraesanean dago onartuko dozuen zuzenketaren testuan dagoenagaz. Nik esan dot hemen gauza bat datorrela eta zu kontrakoa esaten ibili zarala.

Hemen emoten dau EAJk eta PSEk, gobernu-taldeak, akats batzuk onartzen dituela, adibidez, PCR gitxi egin dirala, gehiago egingo dirala esaten dauelako, pandemia osoan ukatzen ibili eta gero. Murillo jauna datorrela PCR gitxi egiten zirala ukatzera, nahikoa egiten zirala esaten eban eta. Edo ikuskapenak, zenbat bider berba egin dogun ikuskapenei buruz batzordeetan. Beti ukatu izan da, beti esan izan da milaka ikuskapen egiten zirala. Ba begira, emoten izan dau hemen aitortzen zala, baina zure azalpenean barriro esan dozu baietz, baietz, dana ondo egin dozuela.

Nire ustez, hemen planteetan dan testuan, emotean dau gobernu-taldeak erantzukizunak kendu gura dituala. Ze lehenengo paragrafo horretan, esan lei egoitzak kudeatzen dabezan enpresei aurpegiatu gura jakela gertatu danaren errua, beharrezko neurriak hartuko dozuezala esaten dozuenean, salbuespenezko egoeretan baita kontratuak eten be, esan lei aurpegiatzen zabiziela pandemiaren arazoa egoitzen arazoa izan dala, alderdiren batek argudiatu dauen moduan. Eta ez da holan izan. Pandemiaren arazoa globala izan da. Eta gero, bigarren boladatik aurrera, kudeaketa txarrarena, praxi eta agindu txarrena eta Diputazio honen jarraipen txarrarena. Baina tira, lehenengo paragrafo hori uste dot ez dala zuzena, eta ez jat zuzena iruditzen enpresa publiko edo pribatuak egoitzetan gertatutakoaren erantzule egitea. Ahal izan dabena egin dabe, euki dabezan baliabideakaz eta Aldunditik hartutako erespideakaz, pandemian zehar ez ziranak asko hobetu.

Bizikidetzta-unidadeak dirala-ta, amaitzeko, gauzarik funtsezkoena da. Diputadu Nagusiak irailean Politika Orokorrari buruzko eztabaidan parte hartu ebanetik, egoitzetan gertatzen zana ezagutzen genduan guztiok, idea bat egin genduan zertaz berba egiten genduan. Bizikidetzta-unidade txikiagoez berba egiten genduan, hala islatu zan komunikabideetan lehenengo bolada baten. Egoitzei buruz ibili ginan, ze zer gertatu zan lehenengoetan, pandemia osoan, zer gertatu zan gure zaharrakaz.

Ba adineko gehienak euren geletan giltzapetu ditugu, bizitegirako leku baten, prestatuta ez dagoana, gela asko leihorik gabe, aireztapenik gabe. Bakartuta itxi ditugu personak, giltzapetuta. Une haretan ezin zan besterik egin, gixajoak euren logeletan itxita euki genduzan, eta horrek depresino arazo larriak sortu ditu. Beraz, Diputatu jaunari bizitegi-eredu barriei buruz berbaz entzun geuntsanean, danok ulertu genduan txikiagoak izateaz gainera, txostenak dinoan moduan, birusa gitxiago sartu dalako eta hobeto kudeatu dalako bizitegi-unidade txikietan, egoitza barri horreek erespide horri erantzungo eutsiela ulertu genduan. Hau da, personei gela duinak emotea, ez bakarrik sofa edo koadroakaz, Murillo jaunak egunkariko alkarrizketa baten esaten eban moduan, ezpada balkoiakaz, leihoakaz, persona batek barriro

beste krisialdi bat gertatzen bada, ze barriro be gertatuko, aditu guztiek esaten dabelako barriro izango dogula hori edo besteren bat, pertsonak euren gelan geratu ahal izan daitezala, baina gitxienez leihoak daukezala, ze egoitza batzutan geletan leihorik be ez dago. Eta airea hartzera urteteko balkoi txiki bat euki dagiela, ze oin 125 partzelako egoitza bateko teilatu gaineko terraza partekatu behar izan dabe, 125 egoiliarrek, batzuk igon eta ordu erdi han eginda, igogailutik jaitsi, desinfektatu, desinfektetan danean, eta beste 24 orduz gelan sartzeko. Batzorderen baten inoiz esan dodan moduan, Langraiz Okako biztanleak gure egoiliar asko baino hobeto egozan, gure egoiliarrek egoitza baten baino denbora libre gehiago euken.

Eta barriro egoitza-unidadeez berba egiten danean, horretaz egiten da. Horretaz hitz egingo zala uste neban. Baina ez, esan dodan moduan, Getxon 100 laguneko egoitza bat planteauko da, balkoi barik, eta barriro esango dogu teilatuan paseauko dabela egoiliarrek. Aurreproiektua ikaragarria da, negargarria da aurkeztu dan aurreproiektua. Orduan esaten dozu, irailean esandakoa, zergaitik ez da garatzen. Eta orain entzuten dogu EH Bilduri be ondo iruditzen jakola unidade horreei buruz berba egitea, modulu zonifikatuei buruz. Hau da, solairuak zonifikatzea? Egoitza baten, esan dagiela: orain, 1. solairuko 25ak 1. moduluan dagoz; 2.ekoak, 2. moduluan. Fisioterapeuta 1etik 2ra igaroten bada, eskuak garbitu eta igon egiten da. Edo aireztapena, Getxon gertatuko dan moduan, eraikin osorako uniforme izango da. Aire girotua 1etik 2ra igaroten da, 3ra, 4ra, eta barriro pasetan da. Edo erropa lohiaren toberak eraikin osorako balio izatea. Edo bilera-gela bera izatea danentzat. Edo langileak kanpora urten eta kafe bat alkarregaz hartzea, nahizta 1. edo 2. edo 3. edo 4. modulukoak izan. Hori pentsau izan dogu izango zizala bizikidetzaren unidade barriak, baina ez, lehengora itzuliko gara, antza, badirudi lehengoan jarraitzen dogula. Garrantzitsua da ia egunen baten argi eta garbi esaten dozuen zeri deitzen deusazuen bizikidetzaren unidade barriak. Ze, Muskizen zer gertatu da? Muskizen oin dala 4 egun gertatu da. 2. solairuan hasi zan eta 103 egoiliar kutsatu dira, eta zonifikatuta egoan. Zuk zeuk esan zenduan, eta zer gertatzen da. Zonifikatuta egoan eta birusa solairu batetik bestera pasatu da? Ikuskatzaileak joan ziran, eta oraintxe aitatu dot: birusa solairu batetik bestera pasetan da, teknikariak pasetan dira, airea pasetan da, aireztapena itxi....

Nire ustez, gaurko gauzarik garrantzitsuena bizikidetzaren unidadei buruzko eztabaida da, eta, nire ustez, itxita itxii beharko da. Mila esker.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señor Andrade Aurrecoechea. Y terminado el debate, tenemos que someter a votación la transaccional. No se acepta la enmienda. Por lo tanto, lo que vamos a someter a votación es la transaccional. Esperaremos a que todos estén sentados.

Por lo tanto, podemos votar, y votos a favor de la transaccional, votos en contra, abstenciones. Por tanto, el resultado es el siguiente: se han emitido un total de 48 votos, a favor han sido 40, no ha habido ningún voto en contra y 8 abstenciones. Por tanto, aprobada la enmienda transaccional.

A continuación, séptimo punto del orden del día:

El Sr. **SECRETARIO / IDAZKARI** jaunak:

7.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:
Iniciativa Originaria: Moción derivada de Interpelación ([R.E.11/E/2021/0001086](#))
Autor: Benito Ziluaga, Xabier (EB)
Asunto: Compromiso de mantenimiento del

7.- Hurrengo idatziari(ei) buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:
Jatorrizko ekimena: Itaunetik eratorritako Mozinoa ([11/E/2021/0001086SE](#))
Egilea: Benito Ziluaga, Xabier (EB)
Gaia: Dirulaguntzak dituen enpresetan

empleo en empresas con subvenciones.

Documento Principal:

[\(R.E.11/E/2021/0001086\)](#)

Boletines: [Admisión a trámite y apertura del plazo de enmiendas](#) (25A)

Expediente: [\(11/B/20/0002148\)](#)

enpleguari eusteko konpromisoa

Dokumentu Nagusia: [\(11/E/2021/0001086SE\)](#)

Aldizkariak: [Izapidetzeko onartzea eta zuzenketa-eskeak aurkezteko epea zabaltzea](#) (25A)

Espedientea: [\(11/B/20/0002148\)](#)

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Es el turno del juntero que ha presentado la iniciativa. Por lo tanto, tiene la palabra el señor Benito Ziluaga.

El Sr. **BENITO ZILUAGA** jaunak: Gracias señora Presidenta. Azken urteotan, tamalez, gure lurraldean tamaina handiko industria-enpresa asko itxi dira. Horrek eragin oso negatiboa dauka Bizkaiko industria-sektorearen balio erantsi gordinean; izan be, 2000tik 2017ra % 27tik % 19ra jaitsi da.

Horrezaz gainera, ezin dogu ahaztu itxiera horreek eragin negatiboa daukiela enpresa horreek dagozan eskualdeetan. Kasu askotan eskualde bateko traktoretzat hartu daitekezan enpresak diralako. Eta, beraz, zuzeneko lanpostuen galerari itxiera horreetako bakotzak aurretik eroamaten dituan zeharkako enpleguak gehitu behar deutseguz.

Elkarrekin Podemos-IU behin eta barriro batzartu gara itxierak edo EEKak iragarri dabezan enpresetako langileen batzordeakaz, eta Bizkaiko Foru Aldundiak be lan hori egin badau, ziur aski kasu gehienetan bat datozen gai bi entzungo zituan.

Lehenengoa izaten da lantegiaren jabe dan talde multinazionalak Bizkaiko lantegiko lan-karga lekuz aldatzen dauela galerak alegatzeko, enplegu-erregulazinoko espedientea aurkezteko eta deslokalizetako. Horrek guztiak, jakina, taldea multzo bat dan bitartean, etekinen emaitzari eusten deutso.

Bigarrena, bigarren gai komuna, langileek planteetan daben zalantza bat izaten da, eta hau da: zer gertatzen da enpresa horreei itxiera iragarten dabenean emon jakezan diru-laguntza ekonomikoakaz? Izan be, industria-sektoreko itxiera eta kaleratze asko lehenago diru-laguntza publikoak jaso dabezan enpresetatik datoz. Beraz, ez leukiez itzuli behar?

Harrigarria bada be, eztabaida publikoan aitatu ohi da hori, eta sindikatuek be eskatzen dabe, baina oso gitxitan eztabaidatzen da erakundeetan. Eta errazoia daukie. Diru-laguntzak emon badoguz, zelan izan leiteke multinazional handiek lantegi bat ixtea eta erakundeek ezelango erreakzinorik ez izatea?

Bizkaiak, eta Euskadi osoak, jakina, industria-politika argiagoo eta anbizio handiagokoa behar dabe. Azken hamarkadetan industria-lehiakortasunaren etengabeko galerak argi eta garbi erakusten dau azken urteotan erabateko hondamendia izan dala Europar Batasunean, eta baita Euskadin be, izan dan esku-hartze txikiko eta arautu bako industria-politika. Publikoak lidergo-, bultzatze- eta erregulatze-zeregina hartu behar dau. Ez dau balio gainbeherari begira geratzea eta dana turismo eta finantza-zerbitzuen aldeko apustu izatea, ikusten dogun moduan. Zergaitik? Adibidez, interpelazinoaren eztabaidan emon dogun datua, 2000. urtea 6.600 lanpostu gehiagogaz itxi zan industria-sektorean, iazko datuen aldean. Horrek adierazten dau, argi eta garbi, krisiak ondoen jasaten dituan sektorea dala, nahizta, logikoki, esan dodan moduan, sektore hori lideratu eta lagundu behar dan, bestela gertatzen dana gertatzen da.

Eta horretarako, politika publikoak behar ditugu, politika guztien helburua, eta, batez be industriarena, enplegu egonkorra eta kalidatezkoa eta gizarte-ongizatea izan beharko liratekeela ahaztu barik. Ze erakundeek sektore jakin batzuk sustatzeko diru-laguntzak edo laguntzak emoten baditugu, ez da izango talde multinazional batek etekinen marjina handitzeko, edo datorren urtean dibidendu hobeak banatzeko. Sektore horreen jarduera jasangarriagoa izateko eta gure eskualdeetan enplegu gehiago eta hobeak sortzeko da.

Aurreko Kontroleko Osoko Bilkuran, Bizkaiko Foru Aldundia interpelatu genduan Bizkaiko industria-sektorearen egoeraz eta aurtengo lan-ildoez. Hain zuzen be, Foru Gobernuak jardunbideok gauzatzen dabean talde multinazionalen jarduketei buruz daukan eretxiaz galdetu genduan, eta ez geuntsan erantzunik emon gai horri; beraz, gure ustez, ez dabilz ezer egiten.

Beraz, aurkezten dogun proposamenaren helburua da emoten diran diru-laguntzak enplegua eusteari edo sustatzeari lotzea. Horregaitik, gure mozinoan Bizkaiko Foru Aldundiari eskatzen deusagu sartu daijala enpresentzako diru-laguntzen deialdi guztietan kalidateko enpleguagazko konpromisoa bete beharra. Enpresaren neurriaren proportzinoko konpromisoa, jakina, eta konpromiso hori beteten ez bada, diru-laguntzak itzuli egin beharko dira, emon den ez-betete mailaren proportzinoan.

Logikaz, gure ustez, zailtasunak daukiezan enpresentzako diru-laguntzek enpleguak mantentzeagaz lotutako konpromisoei lotuta egon beharko leukie, eta enpresa hobetzeko edo garatzeko diru-laguntzek, barriz, enplegua sortzeagaz lotutako konpromisoei lotuta.

Logika berari jarraituz, 2. puntuan proposatzen dogu Bizkaiko Foru Aldundiak lehentasuna emon deiola gizarte-ongizateari eta enplegua sortzeari, enpresakaz lankidetzak-akordioak edo hitzarmenak sinatzerakoan. Halan eta guztbere, badakigu ñabardurarik bbko proposamenak dirala, oso fin landu beharreko gaiak dirala, mozino baten nekez bete daitekeen premia, eta etorkizunean foru araudi edo erregelamendu bat sortu beharko litzatekeela, xehetasunak ondo arautu beharko leukezana. Hori argi dago. Baina, batez be, uste dogu zentzunean oinarritzen diran proposamenak dirala, eztabaida sozialak askotan argi eta garbi markatzen deuskuna erakundeoi. Eta, kasu honetan, enpleguak edo industria-jarduera mantentzen ez badira, diru-laguntzak itzuli egin behar dira. Eta logikoa da. Publikoaren zeregina, esan dodan moduan, ez da enpresa handien mozkinak eta dibidenduak handitzea, gure gizartearen ongizatea areagotzea baino, enplegua sortuz.

Horregaitik guztiagaitik, espero dogu bat etortea egiten dogun edo egin dogun diagnostikoagaz eta gure proposamenean proposatzen dogun urtenbideagaz. Zure balorazinoen zain geratzen naz, eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias, señor Benito Ziluaga. Tiene la palabra el representante del Grupo Mixto-Partido Popular Bizkaia, señor Andrade Aurrecoechea.

El Sr. **ANDRADE AURRECOECHEA** jaunak: Guk gai honetan ez dogu diagnostikoagaz bat egiten, eta ez dogu urtenbideagaz bat egiten. Nik ez dot uste mozino hau industria-politikaren idea bat danik. Industria-politikako proposamen asko eta askotarikoak aurkeztu ditugu Ganbera honetan, bai nik, bai nire lankide Amayak, eta guztiak baztertu dira. Hori, jakina, ez da industria-politikako proposamen bat.

Proposamena, mozinoa, irakurten dozunean, deigarria da hemen esaten dana. Eta lehenengo planteau behar dana da aitatu diran enpresa horreek zergaitik ixten diran,

edo enpresa horreek zergaitik lekualdatzen dabezan euren egoitzak beste probintzia batzuetara, beste autonomia-erkidego batzuetara, beste herrialde batzuetara. Era berean galdetu behar da, zergaitik ixten dauen enpresa bakar bat be ez datorren Bizkaira ezarten, zergaitik Katalunian euren adierazpen independentista ospetsuagaz itxi ebezan enpresa guztiak ez ziran Bizkaian sartu, eta zergaitik joan ziran guztiak beste probintzia batzuetara, Madrilera gehienetan. Eta erantzuna, oro har, bardina izaten da, politika ekonomikorik onena, zerga-politika hobea, enpresaburu guztiei segurtasuna emoteko politika hobea, horixe bilatzen dabelako beren enpresak sortzen dabezanen. Eta pena da Bizkaian antzeko neurririk ez eukitea, enpresa horreek guztiak joan ez daitezana eta, bigarren, Bizkaira etorri daitezana lanera.

Mozinoan esaten dan moduan, enpresa batzuek lan-karga taldeko beste enpresa batzuetara lekualdatzea eragiten dabela, eta galera ekonomikoak eragiten dabezala, kaleratze kolektiboa legezkoa izan daiten, asko esatea da. Enpresaburu batek holan jokutzen dauela esatea, gehien esanda be, nik uste dot tribuna baten enpresaburuei beren porrota leporatzea zentzubakokeria hutsa dala niretzat. Enpresaburuak bere lurraldean lan egin gura dau, bere lurraldean aberastasuna sortu orokorrean, eta badakit enpresa itxi edo lekuz aldatu behar dauenean min handia hartzen dauela. Beraz, eurek itxiera edo lekualdaketa eragiten dabela leporatzea, enpresa-mundua ez ezagutzea da, nire ustez.

Zuen proposamenean, mozinoan, adibide bat aitatu dozue, Gestamp enpresaren adibidea, 247.000 € emon jakozalako 10 urtean, 24000 € urtean, laguntzen bidez. Gestamp bezalako enpresa bati urtean 24.000 €ko laguntzak emotea asko iruditzen jatzu? Barregarria iruditzen jat sortzen dauen lanagaz, sortzen dauen aberastasunagaz enpresan bertan eta laguntzaile guztietan. Jakina, 10 urteko laguntzak batzen ditugunean, 247.000 zerbait dirudi, baina niri eskasa egiten jat.

Proposamenean enplegurako konpromisoaz be berba egiten dala, kalidadeko enpleguaz lehenengo, eta gero, kalidadetik plantillari eusteko konpromisora pasatzen da, hau da, kalidadea pasetan da diru-laguntzetarako langileen plantillari eusteko konpromisora. Plantillari eusteko konpromisoa hartu daitela, kalidadeko enpleguarena itxi egin dogu. Plantillarri eustea. Badakizu zein izan dan antidotorik onena, enpresetan plantillak mantentzeko medikuntzarik onena? ERTEak, Alderdi Popularrak sortu zituan ERTEak eta Podemos bezalako alderdiek lan-erreforma baten bidez ezabatu nahi dabez. Enpleguari eustea bermatu dabenak ERTEak dira. Jente asko dago horrerri esker, gaur egun oraindik ez dago langabezian, zuek indargabetu nahi dituzuen ERTEek estaltzen dabelako. Hori enpleguari eusteko politika izan da.

Ez sinatu akordiorik, mozinoaren bigarren zatian esaten dan moduan, azkenengo 10 urteetan lan-erregulazinoa euki daben enpresakaz. 10 urte besterik ez uste dot, ez bat, ez bi, ez sei hilabete, baizik eta azken 10 urteetan enplegu-erregulaziorik ez izatea, izan dabezan enpresakaz ezelango lankidetzarik edo hitzarmenik ez egitea, neurrigabekeria hutsa begitantzen jat. Nik uste dot, zoritxarrez, enpresa gitxik ez dabela ERTE edo enplegu-erregulazinoako espediente baten sartu behar izan azken 10 urteetan izan ditugun krisiakaz, ze batzuk izan ditugu. Nik uste dot Aldundiak ez leukeela gaitasunik izango enpresa bakar bategabere kudeatzeko edo hitzarmenak egiteko. Nire ustez, gure enpresek, handiek, txikiek, batez be txikiek, autonomoek eta enpresa txiki eta ertainek beti ahazten ditugunak behar dabena laguntza gehiago dirala. Administrazioaren laguntza gehiago, Europako laguntza gehiago eta, jakina, bere preminakaz bat datorren fiskalitatea, printzipioa jasoten dauen fiskalitatea, haud da, 0 sarrera 0 zerga. Eta horretara joan behar dogu, bide horretara, 0 diru-sarrera 0 zerga. Gure autonomo guztiek denpora horretan jarduera ixteagaitik bidezko kalte-ordaina hartzea, eta ez nabil laguntzakaz, kalte-ordainakaz baino, itxi beharra izateagaitik.

Laguntza horreen alde egiten ez badogu, 0 diru-sarrerarako, 0 zerga, kalte-ordain horreen alde, nire ustez, hemendik gitxira askoz be krisialdi handiagoa izango dogu, enpresa askoz gehiago ixtea, eta gaur egun baino askoz be egoera larriagoan egongo gara. Mila esker.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias, señor Andrade Aurrecochea. Y tiene la palabra el representante del grupo Socialistas Vascos, señor Álvarez Castrejón.

El Sr. **ÁLVAREZ CASTREJÓN** jaunak: Mahaiburu andrea, mahaikideak, egun on barriro be, une honetara arte pazientziaz itxaron dozuen guztioi.

Begira, diru laguntzez berba egin gura dot orokorrean, Lobato jauna. Diru-laguntzen plan estrategikoak politika publikoak planifikatzeko tresna gisa eraten dira, eta euron helburua da jarduera publiko baliagarriak sustatzea, interes sozialekoak izatea eta, azken baten, helburu publiko bat sustatzea. Adibidez, ixten badeustazue. Enplegu, Gizarteratze eta Bardintasun Sailak neurri estrukturalak eta koiunturalak hartu ditu lanpostuak mantentzen laguntzeko eta langabeen kontratazinoa sustatzeko, enplegu duina sortzen lagunduz, Mantén, Contrata eta Contrata 30 programen bidez; laguntzak denporan eta zailtasunak daukiezan kolektiboetan kontzentratuz eta beste enplegu-politika aktibo batzukaz lotuz. Enplegu, Gizarteratze eta Bardintasun Sailak kontratazinorako emoten dituan pizgarri eta laguntzak gitxieneko iraupen eta soldata neurri batzuen araberakoak izan dira. Hori guztia erantzukizun fiskaleko agintaritza independenteak emondako gomendioei jarraituz, pizgarrien eraginkortasun potentziala egiaztatzen dauelako, krisialdian enplegua lortzea errazten dabela egiaztatuz.

1.100 enplegu dira, beharbada autoenpleguak, egia da. Baina esperientzia personalagaitik ziurtau neizue autoenplegu horretan sartu diran persona askok gerora beste persona batzuk kontratau dabezala. Itxi eidazue beste adibide bat ipinten. Ekonomia Sustatzeko Sailak, 2021. urtean zehar, bere aurrekontuaren 10 euroko 7,3 euro bideratuko ditu ekintzailetzarako diru-laguntzetara eta zerbitzuetara. Zuzeneko laguntza horreek guztiak, % 56, 26.000.000 euro, itzuli behar ez diran diru-laguntzak dira, Bizkaiko ETEen eskura jarritako balio erantsiko zerbitzuetarako.

Baina ez da hor amaitzen, hartutako kopuruak itzultzeko tresnak be baditugu, hala adosten danean, eta arau-hausteak gertatzen diran kasuetan, eurok definitu eta jagokezan zehapenak ezartzen dira. Ezagutzen dogunez, bai maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauak bai martiaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuak zehazten dabe Foru Administrazioak emondako diru-laguntzen araubide juridiko orokorra. Xedapenok diru-laguntzen inguruko guztia modu zabal eta bateratuan arautzeko sortu ziran, administrazio-kudeaketan garatzen dan kasuistikari erantzuteko aukera emoten daben alderdiak batzen ahalegintzeko. Eta beti be eraginkortasun- edo efizientzia-printzipioak eta -mailak kontuan hartuta.

Ez daitela zalantzarik egon, ez daitela gerizperik zabaldu guk hornidu dogun ordenamentuaren kudeaketan, eta, Benito jauna, zuk uste dot hori badakizula, egunez egun probatzen da, eta bere eraginkortasuna erakusten dau fede txarrez edo lege-iruzurrez jardun leikienetatik harago. Mila esker.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señor Álvaro Castrejón. Y tiene la palabra el representante del grupo EH Bildu, señor Rahona Garay.

El Sr. **RAHONA GARAY** jaunak: Gracias señora Presidenta. Buenos días a todos y todas. Lehenengo eta behin, enpresen itxiera masiboak jasan dabezan langileei eta euren familiei alkartasuna adierazi gura deusiet EH Bilduren partez. Eta hori mozinoan aitatzen diran enpresetara ez eze, zerrenda osora be zabalduetea gura dot, zerrenda askoz handiagoa da-ta, zoritxarrez, eta handitzen jarraitzeko itxura dauka. Eta enpresen itxiera horreek gertatzen diran udalerrri eta eskualdeentzat be bai, zelan ez.

Mozino horren helburua diru-laguntzak jaso dabezan enpresetan enplegua mantentzea da. EH Bildutik aurreratu dogu espiritu inplizituagaz bat gatozela. Bizi dogun salbuespeneko egoera dala-ta, eta Coviden krisiak oraindik be eragiten dauen ondorio sozioekonomikoa dala-ta, epe laburreko neurriak, berehalakoak, planteau behar ditugu, jasotako enbiteak arinduko dabezanak, zalantza barik. Halanda be, egia da batzuetan emoten dauela, era horretan jokatuta, perspektiba galtzeko arriskua dagoala. Epe laburrak baldintzatu egiten gaitu, egia da; baina ikuspegia funtsezkoa da, ikuspegi globala emoten deuskulako.

Ezinbestekoa da honezkero gertatu dana baino enplegu eta sare ekonomiko gehiago ez suntsitzeko neurri guztiak hartzea. Halanda be, egia da mozino honen testuan aitatzen diran kontzeptuak, hala nola industria-sektorearen egoera edo kalidadeko enplegua, pandemia piztu baino askoz lehenago krisian egozan gaiak dirala, eta EH Bildutik aspalditik aldarrikatzen genduzala. Are gehiago, errealidade barri honetan. Eta eredu-aldaketa bat egiteko beharraz nabil, egiturazko arazoak desagerrarazteko bide bakarra dalako. Hori da gakoa, gure ustez.

Era guztietako leloak daukiezan proiektuak aurkitzen doguz. Bizkaia orain, baina lelo horreetatik galderak sortzen dira: Bizkaia orain. Eta gero? Bizkaia aurrera: baina nora eta zertarako? Bizkaia egiten: baina zer egin nahi dogu eta norentzat. Gu gara edo ez gara, baina zer izan nahi dogu zehazki? Eredua, barriro dinot, EH Bildurentzat kontzeptu horretan dago gakoa.

Enpleguari jagokonez. Beti defendatu izan dogu enplegu-politika integral eta eraginkorra ezartzea, gizarte aurreratu baten gurariagaz bat etorriko dana eta gure ekonomia-sareak etorkizunean iraun daian estrategia baten barruan egongo dana. Zerbitzu publikoen pribatizazioaren eta egungo ereduak, merkatuaren globalizazioak, ezarritako arauetatik eratorritako lan-baldintzak devaluatzearen aurrean, enplegu publikoa sortzea planteau dogu, zerbitzuak indartzeko, dagozan eta etorkizuneko enpleguen baldintzak duintzeko, sortu barriak diranak.

Administrazio publikoagaz eta Bizkaiko Foru Aldundiagaz kontratuak egiten dabezan enpresei jagokonez, era berean, langileei gitxienez 1.200 euroko soldata bermatzeko eskaera, gizarte-klausulakaz jarduten daben eta lan-erreforma aplikatzen ez daben enpresei lehiaketa publikoetan lehentasuna emotea, edo erakundeen eremutik aldi baterako laneko enpresak ez kontratatzea, eta horreek kontratatzen dabezan enpresakazko hartu-emonak eta kontratu ekonomikoak berrikustea. Horreek, besteak beste, neurriak eta proposamenak. Duintasuna eta justizia soziala, beti be personak politiken erdigunean jarrita.

Industria-sektoreari jagokonez, hori be aitatzen da mozinoan. Agirikoa da pisu gitxiago daukala, aurreko esku-hartzeetan aitatu dan moduan. Inboluzinoa, eta paradoxikoa emon arren, desagertzeko arriskuan dagoan sektore bat bihurtzeko puntuan dago. Sektore horretan erreferentziazko lurraldea izatetik, gure lurraldean sektorearen barruan erreferenteak aurkitzeko zailtasunak izatera igaro gara. Eta ez da beste barik gertatu, ez oin dala urte batzuk pairatu ditugun krisien ondorio koiunturalakaitik, baizik eta oin dala hamarkada batzuetatik hona hartutako politikakaitik, horreek diralako, zalantza barik, egungo egoerara ekarri gaituenak.

EH Bildurentzat industria indartzea apustu estrategikoa da Bizkaiko eta Euskadiko ekonomia eta gizartearentzat. Industriak balio erantsia sortzen dau, soldata handiagoak sortzen ditu eta baliabide fiskal handiagoak sortzen ditu, bai enpresen aldetik, bai soldatapeko langileen aldetik. Horregaitik, aspalditik gabilz ekiten berrindustrializazio-plan bat garatzeko eta abian jartzeko beharraz. Gune jakin baten jarri dogu arreta beti, batez be Ezkerraldean, industriak eskualde horretan historian zehar izan dauen garrantziagaitik, baina baita beste eskualde batzuetan be, Bizkaiko beste eremu batzuetan. Pandemiaren aurretik esan genduan hori, ikusten gendualako deslokalizazio-prozesuek basamortutze industrialaren

fenomenoa eragiten ebela, eta zerbitzuen lurralde bihurtzen ginoazala. Ia zer gertatzen dan orain Navalen kudeaketeagaz. Zerbitzuen lurralde bat, plataforma logistiko edo komertzial handiak instalatzen dituan lurralde baten, horrek ekarri dituan ondorioakaz: lanpostu prekarioak, kalidade oso txikikoak, garatzen zituan jendea beti aldarrikatu dogun zer bait, bizi-proiektu duin bat, garatu ahal izateko gitxieneko baldintzetara urrinetik be heltzen ez ziran soldatapean egitera behartuz.

Eta guk pandemiaren aurretik planteau genduan plan hori, eta orain, bistan da, askoz indar handiagoz egiten dogu, zalantza barik, jarduera eteteak pairatzen dagozan enpresen uholde honegaz gertatzen dana kontuan hartuta. Eta mingarria da horreetako asko dirukutxa publikoetatik jaso dabezan diru-kopuruak itzuli beharrik barik joaten dirala egiaztatzea, dala laguntza zuzenak, dala salbuespen fiskalak, gure lurraldean egon diran bitartean.

Horregaitik guztiagaitik, proposamena egin dauen taldeak, Elkarrekin Bizkaiak, planteautako mozinoaren alde bozkatuko dogula aurreratzen dogu. Halanda be, proposamena egin dauen eta berba egiteko aukera izan dogun taldearen ordezkariak esan dauen moduan, beharbada badira esku-hartzeko bigarren txandan garatuko ditugun ñabardura batzuk, eta baliteke horreek zehaztea, ez mozinoaren espiritua hobeto ulertuteko (ezin hobeto ulertzen da), ezpada talde politiko horreei argudiorik ez emoteko, proposamena gehiago edo gitxiago zehaztu, edozein moduan proposamenari ezezkoa emongo eutsiela bagenkialako. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señor Rahona Garay. Y tiene la palabra el representante del grupo Nacionalistas Vascos, señor De Luis Zelaia.

El Sr. **DE LUIS ZELAIA** jaunak: Buen mediodía y gracias señora Presidenta. Buenos días o buenos mediodía también a todos, y bienvenidas, Amaia y Elisabet.

Diputaduak otsailaren 24an azaldu eban moduan, danok dakigu pandemia honen ondorioz zer egoeratan gagozan. Orduan esandako lez, ekonomiari jagokonez oraindik ekitaldi zalantzazko baten aurrean gagoz, ekitaldi korapilatsu baten aurrean, pandemiaren ondorioek oso presente jarraituko dabelako. Urteak aurrera egin ahala jarduera ekonomikoa apurka-apurka berreskuratzea espero dogu, baina hori ez da nahikoa izango pandemiaren aurreko mailetara itzultzeko. Izan be, aurreikuspen guztien arabera, normaltasunera itzultzeko maila horreek, zeozelan esatearen, ez dira 2023ra arte lortuko.

Hori kontuan hartuta, lurraldeko ekonomia-sarearen errealidadea eta pandemiak esparru eta sektore askotan eragin dituan aldaketak, Ekonomia Sustatzeko Sailean 2021 plan estrategikoa defendatu da, helmuga bikoitzagaz. Alde batetik, jarduera ekonomikoak bizirauteko eragitea helburu daukien ekintzakaz jarraituko da, kaudimen- eta likidezia-preminei aurre eginaz eta, ahal dan neurrian, eskaria sustatuz. Pandemiak larri kaltetutako sektoreei bereziki zuzendutako neurriak dira, turismoari, merkataritzari eta ostalaritzari kasurako. Eta mikrokredituak, preminazko laguntza zuzenak edo eskaria sustatzeko bonuak moduko neurriakaz.

Beste alde batetik, enpresa txiki eta ertainen lehiakortasun-palankak azpimarratzea helburu daukien ekimenak. Enpresei laguntzea da helburua, lehiakorrak izaten jarraitu daien, eta, beraz, produktu eta merkatuak dibertsifiketan laguntzea, bai teknologiaran arloan bai teknologiatik kanpo barriztetan laguntzea, nazinoartekotzea eta digitalizazioa eta jasangarritasuna moduko erronka garrantzitsuetan aurrera egitea, lehiakortasunari eusteko puntu kritikoak diralako.

Diputaduak adierazi ebanez, neurriok Bizkaia lurralde berritzaile, talentudun, erakargarri, konektatu eta orekatu gisa sendotzeko aurrera egiteko bidea emongo deuskue.

Mozinoan enpresentzako laguntzak aitatzen diranean, esan lei laguntzen bigarren bloke hori aitatzen dala. Horreei jagokenez, Saileko laguntzen helburua enpresak lehiakorrak izaten jarraitu daien laguntzea da. Horretarako, Sailak itzuli behar ez diran programa eta laguntza sorta zabala antolatuko dau, enpresek lehiakortasuna hobetzeko proiektuei ekin deien, beren kokapena sendotu ahal izateko, jarduera mantenduz eta, ahal dan neurrian, haziz, eta, holan, kalidadeko enplegua mantenduz edo sortuz.

Uste dot oingo egoera oso une egokia dala oinarrizko ideia batzuk gogoratzeko, batzuetan ahaztu egiten dirala esan lei eta, edo, behintzat, ez dirala behar bezala baloretan idea horreen garrantzia. Ez dogu pentsau behar enpleguari eusteari buruz bakarrik, horrez ganera baita enpresak mantentzeari buruz be, Bizkaiko ETEak mantentzeari buruz. Gaur egun langile kopurua egokitu behar dauen eta lanpostu kopuru handia mantentzen dauen enpresa batek, ziur krisitik urtetean bere jarduera handitu eta enplegua barrero sortzeko aukera izango dauela. Enpresa desagertu egiten da, ez dau lanposturik sortzen. Sektore jakin batzuetan, gainera, sano gatxa da gerora beste batek ordezkatzea.

Enpresa txiki eta ertainek une honetan egiten daberen ahaleginari balioa emon behar deuskugu. Ziurgabetasun handiko egoera baten aurrean, epe laburrera edo ertainera, tokiko ingurunean eta nazinoartean, diru-sarrereren beherakada handia dala-ta, enpresaren beraren biziraupena bermatzeko ahalegina egitera behartuta dagoz.

Egia da baliabide asko jarri jakezala eskura: ERTEak, zerga-atzerapenak, finantza-baliabideak, itzuli behar bako laguntzak. Baina euren diru-sarrerak susperraldiaren eta egonkortasunaren bidera heltzen ez diran bitartean, gatxa izango da biziraupenean eta lehiakortasunean gitxiago pentsetea. Aldundiak, azaldu dodan moduan, eszenatoki bietarako laguntzak antolatu ditu, eta gure taldeak uste dogu hori dala bidea. Errealidadeak erakusten deusku ezinezkoa dala gertaera jakin batzuk iragartea, eta enpresei lehenengo personan eragiten deusiez aldaketok, sarritan euren kudeaketaren menpe ez dagozanak, eta konponbideak euren eskutik kanpo geratzen dira. Hori dala-ta, iruditzen jaku baldintza jakin batzuk bermatzeko 10 urteko epeei buruz berba egitea Bizkaiko enpresen eta munduko gainerako lehiakideen errealidadea ez ezagutzea dala.

Horregaitik guztiagaitik, jakinarazten deusut gure taldeak ezetz bozkatuko dauela joan den otsailaren 24ko interpretelazinetatik eratorritako mozino honetan. Gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias, señor De Luis Zelaia. Y pasamos al turno de réplica. Para ello, tiene la palabra el representante del grupo Elkarrekin Bizkaia, el señor Benito Ziluaga.

El Sr. **BENITO ZILUAGA** jaunak: Mila esker. Lehenengo eta behin, erantzunak entzun eta hitzaldi hau prestetan nabilela, Derioko Eatonek gaur itxiera iragarri dauela jakin dot, eta langileak greban jarri dira, deslokalizazino bat salatzeko. Beraz, nire babes osoa bialdu gura dot.

Andrade jaunak esaten deust asko esatea dala, edo zentzubakokeria dala enpresa batzuek lan-karga kentzen dabela azkenean ixteko. Ondo etorri mundura, Andrade jauna. Deslokalizazinoa aurkitu dozu, Europar Batasuneko gobernu guztietan lantzen dan arazoa, eta ezagutzen ez badozu, Eaton, General Electric Ortuellan, Gestamp edo Siemens

Gamesa bezalako langileakaz berba egitera konbidatzen zaitut. Azkenengo horreek Estaduko beste lantegi batzuk be itxiko dabezala iragarri dabe.

Urtean 24.000 euro Gestamp enpresari emotea gitxi egiten jakola be esan dau. Ez dakit pentsetan dauen 230 lanpostu gitxi dirala, edo justifikazino bako enplegu-erregulazinoko espediente baten bidez egin izana, justiziak esan dauen moduan. Baina ziur nago ez jatzula gitxi irudituko, eta segurutik ez dozu jakingo kopurua, Eusko Jaurlaritzak 19.000.000 euro emon deusazala Gestamp enpresari diru-laguntzetan. ITP Aerok Barakaldoko eta Sestaoko 87 pertsona kaleratu ebazan, eta 76.000 € jaso ditu Bizkaiko Foru Aldunditik eta 138.000 € Eusko Jaurlaritzatik. Batz, Igorren itxi ebana, 884.000 € Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntzetan. TUBACEXek 4.000.000 € jaso zituan Eusko Jaurlaritzatik eta 135.000 € Bizkaiko Foru Aldunditik. Badakit Araban dagoala, baina esan dodan moduan, itxierak Bizkaian eragiten dauenez, Eusko Jaurlaritzatik 4.000.000 € eta Bizkaiko Foru Aldunditik 135.000 € hartu zituan.

Zerrenda luzea da, Lanbideren webgunean eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean sartu besterik ez dozu egin behar, eta enpresa horreek jasoten dabezana laguntza guztiak konsultau zeinkez. Nik ez dot ukatzen enpresei laguntzak emon behar jakezala industria-politika gisa, baina nik uste dot hori industria-politika bat dala, horren zati bat behintzat, eta esaten dodana da enpleguagaz lotu behar dala.

Álvarez Castrejón jaunari enpleguari lotutako diru-laguntzen adibide bat jarri gura neuskio, pandemiaren ondorioz Estaduko Gobernuaren enplegu-erregulazinoko espedienteak besterik ez diralako. Zeintzuk dira laguntzok jasoteko baldintzak? Enpleguari eustea, enpleguei eusten ez bajake laguntzak itzuli egiten dira. Hemen planteetan gabilzana bera da, ez gabilz proposatuten gorpila asmatzea, beste eremu batzuetan apliketan diran politikak dira eta ondo legoke Foru Aldundiak be aztertzea zelan egin urratsak norabide horretan. Gobernuari eusten deusien taldeetako bi bozeramaileek Ekonomia Sustatzeko Sailaren laguntzei buruz egin dabe berba, nik ezagutzen dodaz, diputaduaren agerraldiak interes handiz jarraitzen ditut. Berrikuntzarako eta lehiakortasunerako laguntzak aitatu ebezan.

Lehiakortasuna handitzeko laguntzak emoten dozuez, zertarako? Hemen enpleguen kalidadea handitzeko edo hobetzeko, ergo ez da zentzugabekeria diru-laguntza horreek lehiakortasunerako, nazinoartekotzeko, barrikuntzarako, nahi izan ezker, enplegua mantentzeko edo sortzeko konpromisoagaz lotzea. Ze halan ez bada, zuek sustatzen dozuena da enpresa etortea, bere ekoizpen-moduak hobetzea diru-laguntza publikoen bidez, eta besterik atera ezin dabenean, beste herrialde batera edo beste norabait joan, bardin jatalako.

Nire ustez, ez da proposamen zoroa, eta, esan bezala, zentzuz jokatzea eskatzen dau. Ezin dot saihestu be, burutik kentzea Bizkaiko Foru Aldundiaren lelo zoritxarreko ha, aurreko legealdian ateratakoa: "Laguntzak bai, kontrola ere bai". Jakina, une horretan gizarte-laguntzei buruzkoa zan, eta enpresa multinazional handiak kontrolatzea danean kontua, tamalez, batzuk txikitu egiten dira.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias, señor Benito Ziluaga. Tiene la palabra el representante del Grupo Mixto-Partido Popular Bizkaia, señor Andrade Aurrecoechea.

El Sr. **ANDRADE AURRECOECHEA** jaunak: Mila esker. Zoritxarrez, tragedia bat da beste enpresa batek ixtea. Gaur irakurri dot prensan Gamesak Bizkaian behin betiko ezartea erabagi dauela, funtsezko alderdi bategaz, gaur prensan esaten danez, Gamesaren zuzendaritza Bizkaira etorriko da egoitza hartzera. Inoiz aipatu izan dogu Ogasuneko diputaduagaz, zein garrantzitsua dan enpresa bateko zuzendaritza gure lurraldera biziten etortea, eta horretarako pizgarriak egin behar dira, enpresari horreei Bizkaian etorri eta bizitea erabagi

daien lagundu behar jake, eta ez Madrilen edo beste probintzia batzuetan, batez be fiskalidade interesgarriagoa daukien lekuetan.

Ondo be ondo dakit zer dan deslokalizazioa, eta ondo dakit zergaitik gertatzen dan. Badirudi batzuek ez dabela ikusi nahi, eta ez dot Osoko Bilkuren Areto honetan esango, baina deslokalizazioak motibazio argia dauka, eta batzuek ikusi nahi ez badabe edo enpresaburuari leporatzen badeutsie, ba entzun, badakigu fenomenoaren zein dan eta zergaitik gertatzen dan, eta langile askok pentsau egin beharko leukie.

ekoizpen-ereduak arintzeko edo malgutzeko bidea emon danean, ez da deslokalizaziorik gertatu. Enpresaburu batek, lehen esan dodan moduan, bere egoitza lekuz aldatzen dauenean, familiagaz beste probintzia batera, beste herrialde batera bizitera joan behar daudelako, bere helbidea aldatzen dauenean, dana beste leku batzuetara errotan dauenean, arrazoi larri be larriagaitik da, eta asko kostetan jako zaio erabagi hori hartzea. Ez dira arinkeriak hartzen dabezan erabagiak.

Era berean, niri ez deustazu konturik eskatu behar Jaurlaritzak enpresa horreei emoten deustezan laguntzaitik. Nik uste dot gu baino, Alderdi Popularra baino kritikagoarik ez dagoala Aldundi honen edo Eusko Jaurlaritzaren enpresa- eta zerga-politikeagaz eta politika industrialagaz, eta, beraz, laguntzak emon eta zelan emoten dituen Aldundiak edo Eusko Jaurlaritzak enpresa horreei guztiei, eta enpresa horreek hitzarmenak beteten ez badabez edo laguntzak beteten ez badabez, erantzukizuna euren da. Baina laguntzak beharrezkoak dira, hori argi dago, ze enpresariak behar dabe, enpleguari eusteko politikarik onena enpresei eustea da. Eta horretarako segurtasun juridikoa sortu behar da, jakina, ez da egin behar gaur goizean lehenengo orduan egin dozuena, hau da, zergak igon; jakina, ez da uneoro igoteko mehatxu egiten ibili behar, enpresaburuari zergak igongo jakezala eta igongo jakezala eta igongo jakezala mehatxu egiten, eta zergak, tasak eta zergak ipiniko jakezala mehatxu eginaz.

Hori ez da bidea, argi dago; beraz, segurtasun juridikoa, malgutasuna lan-merkatuan, eta segurtasun fiskala, fiskalitatea, ze enpresariak zergak ordaindu gura dabez, baina bidezko zergak ordaindu gura dabez. Eta beraz, Bizkaian enpresak sortzeko bidea hori da, eta hori guztia gure alderdiak proposatzen dituan neurriakaz egituratzen da. Ez neurri zoroakaz, adibidez, konpromisoa hartzen ez badozu laguntzarik ez deustadala emongo esatea, azken 10 urteetan baten bat bota badozu, inor ez botateko konpromisoa hartzen ez badozu. Zenbat autonomok, zenbat enpresaburuk, ERTEan dagozanak eta teoriarik langilerik kendu ezin dabenez, zenbat enpresariak gura dabe behar egin eta arazoak daukiez, plantilla ugaria daukielako, baina gaur egun ezin dabe enpresa osorik berrarmatu, eta derrigorra dabe, langileren bat kaleratzea baino ez jake geratzen, enpresak bizirik jarraitu daian.

Ba gaur gaurkoz, milaka autonomo dagoz egoera zail horretan, eta ERTEek ez deustie ixten plantilla murrizten, epaileek errazioa emoten deustie eta plantillaren banakako murrizketak baimentzen dabilz. Baina urtenbide bat da enpresak bizirik irauteko. Batzuetan ez dago beste erremediorik enpresa txikiok bizirik irauteko, pertsianak barriro zabalduko ahaleginean langile batzuk kendutea, erabagi mingarria izanda be, lanean jarraitu ahal izateko. Beraz, ez da hain gauza erraza esatea orain ez deustadala laguntza gehiagorik emongo inor botako ez dauela hitz emoten ez dauenari, gero bota egiten dabezalako eta ez dagoalako modurik. Beraz, nire ustez, proposamen hori desegokia da, ez da industria-politika bat, eta ez da ezer. Nire ustez, proposamen deskafinatua da, oso arina, eta guk ez dogu babestuko. Mila esker.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias, señor Andrade Aurrecochea. Y tiene la palabra el representante del grupo Socialistas Vascos, señor Álvarez Castrejón.

El Sr. **ÁLVAREZ CASTREJÓN** jaunak: Mahaiburu andrea, mahaikideak. Eskerrik asko barriro eta egun on.

Lehenengo eta behin, Euskadiko Alderdi Sozialistatik alkartasuna adierazi gura deutsegu lana galdu daben edo galtzeko zorian dagozan persona guztiei, guzti-guztiei. Hori ukaezina da. Alderdi Sozialista oin dala ia 142 urte sortu zan. Ia esan dot, ni ez naz oso ondo gogoratzen, ume bat nintzalako orduan. Baina une horretatik aurrera, ziur nago egunez egun, orduz ordu, minutuz minutu, klase behartsuenen defentsan egon dala beti. Beste batzuk be bai. Egia. Eta hori, monarkiak, diktadurak, taldeak, kasu guztietan gu jazarri gaituen beste talde batzuk izan arren. Baina hemen gaur ulertzen dot egongo ginatekela harira.

Horra nire idea orokorra, industria-enpleguari buruzko edozein eztabaida planteetako. Ondo etorri beti industria-enplegua. Baina diru-laguntzei buruz gabilz, zuek aurkeztutako mozinoaren testua diru-laguntzei eta euren kudeaketari buruzkoa dalako. Egia. 2008ko krisi bat izan zan, krisi bildurgarria, 2010ean Espainiako banku-sistemaren erreskatea ekarri eban krisia, 2014ko une batzuetan langabezia-tasa % 23tik gorakoa zala. Hori atzo izan zan, baina gaur Coviden krisiak ekarritako ondorioek gure bizitzak betirako markatuko dabez.

Ia apur bat ulertzen dodan zuk planteautako ñabardura hori. Hemendik defendatzen dozu, Batzar haneetatik, ez sinatzea lankidetzak-akordiorik edo hitzarmenik azken 10 urteetan iraungiteko EREak egin dabezan enpresakaz. Ñabardurak izango dira, baina, Benito jauna, ez jatzu maximalista iruditzen? Ez jatzu iruditzen legeagaz bat egiteko lekuri ez daukala? Ez jatzue apur bat diskriminatzailea iruditzen? Ez dozu ulertzen dese-sustagarria be izan leitekela? Jarrera hori ez da sartzen ezkerreko politika baten. Neurribako neurrietara hurreratu daiteke, baita arduragabekeria sozialeko joera bategaz be, beste batzuentzat zakar bihurtu leikezenak, beti be ezkerretik, baita ezkerretik be, egiten ditugun, eta oso ondo gainera, politika positiboak indargabetzeko moduko eskariak. Berba egiten deustazu eta bularra aterata, eta nik be bai, ERTE horretaz. 16.000 bizkaitar dagoz une honetan ERTEn, Espainiako Gobernuak kaleratuta, eta sei hilabetez enpleguari eusteko betebeharrari eutsiko deustie. Ederto. Salbuespeneko neurria izan da, bestela ez dakit ze egoeratan egongo ginatekeen.

Beitu, aurraperako jarreretatik beti alkarrizketa sozialaren alde egiten dogunok, bardintasanaren alde, enplegu duina sortzearen alde, aberastasuna birbanatzearen alde lan egiten dogunok, oinak lurrean ditugula egin behar dogu, begirada goratuta, ahal dan neurrian gehiegikeriak saihesten ahaleginduz. Mila esker.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias, señor Álvarez Castrejón. Y tiene la palabra el representante del grupo Euskal Herria Bildu, señor Rahona Garay.

El Sr. **RAHONA GARAY** jaunak: Gracias. Buenos días de nuevo. Egia esan, hitzaldi prestetan gengozala, eta talde proposatzaileagaz zalantzaren bat sortzen euskuen gai batzuk partekatzen genduzala, susmoa euki dogu ia ziur gengozala mozino hori ez ebela, azkenean, Foru Gobernu osatzen daben taldeek babestuko. Egia esan, Osoko Bilkuran gatxa da talde politiko batek botoa aldatzea, behin barruan hausnarketa egin eta jarrera bat finkatuta. Nik urte batzuk daroadaz horretan, eta ez dot gogoratzen inoiz gertatu danik, baina segurutik memoriak huts egiten deust, eta inoiz gertatuko zan. Baina hori ez da eredu izango, neurri horrek ez dau aurrera egingo.

Euzko Alderdi Jeltzaleak eta Alderdi Sozialistak honezkero iragarri dabe euren botoa. Mahai gainean jarri diran gai batzuen irakurketa objektiboan egin ezkerre, egia da datu objektibo eta eztabaidaezin batzuk dagozala begiratu nahi dan lekutik begiratuta. Talde bietako ordezkariak bat etorri dira gai baten, eta, batez be, zehaztu dabe koitunturazko egoera

ustebako baten gagozala, oin dala urtebete Covid agertu izanaren ondorioz, eta horrek beste hondamendi batzuk ekarri dituala, enplegua eta ekonomia-sarea suntsitzeko. Guk hitzaldian zehar esan dogu, jakina. Salbuespenezko egoera batek eragindako preminazko neurrien aurrean, jakina, berehalako konponbideak, unean unekoak eta koiunturalak, baina galdu barik ikuspegia; izan be, ikuspegi horren arabera, mozino honek azpimarratzen dituen gai bitan, erakunde publikoen diru-laguntzak jaso dabezan enpresen enpleguari eusteaz ganera, kalidadeko enpleguari buruz hitz egiten da, aurreko esku-hartzean aitatu dogun moduan, bai eta gaur egun pairatzen dogun politiketan be, neurri baten gaur egun bizi dogu krisiak agirian jarri dauen hauskortasunean. Hori ez da barria, koronabirusa baino lehen be bageunkan hori, baegoan kexa orokor bat errealdade agiriko baten existentziari buruz, lan prekarioa deitzen dan kontzeptu bat existitzen zan, jentea, lanean ibilita be, pobrea zan, eta erakundeetara jo behar eban, hain zuzen be, osagarri bila hile amaierara heldu ahal izateko, eta ikusteko dago zelan.

Baina bada hirugarren alderdi bat zeharka gertatzen dana: diru publikoaren erabilera ona. Ondo dago enpresa-sarearen bidez muskulu ekonomikoa zure lurralde historikora erakarten ahalegintzea, baina gitxieneko batzukaz, enpresak kontraprestazino batzuk emonda.

Hitzaldia amaitu orduan, Xabigaz bat nentorren ñabardura bat aipatu orduan, ikusi dogu mozinoak aurrera egin ahal izateko huts egin leiken kontu bat proposamenaren bigarren puntua zala. Ze egia da, Alderdi Sozialistaren ordezkariak esan dauen moduan, agian puntu horretan termino maximalistetara jotzen dogulako inpresinoa emon geinkela, eta agian egokia zala puntu horretan zehaztasunen bat egitea. Justifikazioaren ñabardura. Beharbada erantsi beharko zan, bistan danez, itzultzeko eskatu beharko jakela holan jokatura euren jokabidea justifikau ez daben enpresei. Batez ere zaku berean ez sartzearren, eta adibide oso argia, grafikoa eta gertukoa jarriko dot. 60 langile dituan trokelgintza batera, oin dala urte askotatik etengabe galerak dakarzana, eta langileen ordezkariakaz bat etorritz halango neurriak hartzera behartuta dagoana, hain zuzen be, plantillatik ahal dan zatia babesteko, eta baita enpresaren beraren jarduera babesteko be, multinazional batek, eta seguru adibide asko jatorkuzala burura edo, gitxienez, adibide batzuk, eta urteko balantzean milioika eta milioika euroko mozkinak lortzen dituanak, langileak botatea eta plantak ixtea deslokalizazino jarduera horregaitik, bere helburu bakarra irabaziak handitzen ahalegindutea dalako.

Guk, esan dodan moduan, ñabardura hori gorabehera, bat gatoz mozinoaren espirituagaz, gerora beste modu batera landu ahal izan arren eta, jakina, baiezkotoari eta mozinoaren babesari eusten deutsegu. Gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias, Sr. Raona Garay. Y tiene la palabra el representante del grupo Nacionalistas Vascos, señor De Luis Zelaia.

El Sr. **DE LUIS ZELAIA** jaunak: Buen mediodía de nuevo. Benito jauna, laguntzak aitatzen dozuz kontrolik ez balego moduan, eta hori ez da holan, eta eraginkorrak dirala esan geinke. Enpresarien modus operandiaz berba egiten dozu ezkutuan egingo balira moduan, eta ez nator bat horregaz. Atzera begiratu beharko geuneela uste dot. Oin dala urtebete baino ez konfinamentu betean gengozan, eta funtsezko sektoreak bakarrik operatibo egozala. Gauetik goizera, gu guztion bizitzak 180 graduko bira egin eban, eta, halanda be, 365 egun geroago, eta, besteak beste, Aldundiak hartutako neurriei esker, egoera konplexua izaten jarraitu arren, suspertzeko bidean gara.

Aurreratu deusuedanez, gure botoa ezezkoa izango da. Negatiboa izango da, arrazoi askogaitik, baina, batez be, uste dogulako proposatutako neurriok gurpilean makila bat jartzea gehiago dirala hobetzeko bultzada baino. Sail honetako laguntzak enpresa txiki eta ertaintzat dira, eta ez enpresa handientzat; norgehiagokako laguntzak dira, eta euron balorazinoan kontuan hartzen da enplegua mantentzeko eta sortzeko daukien eragina. Hori dala-

ta, zuen eskarietako batzuk jasota dagoz. Horregaitik, talde honek konfiantza dauka hartu diran neurrietan eta hartzen diranetan. Hau da, 17 laguntza-programetako inbersinoan, barruan dituala 21 laguntza-zerbitzu eta 5 funts abiarazi barri, 24,95 milioi eurokoak. 24,95 milioi euro jarri dira enpresen eta ekintzaileen eskura, ekintzailtza, nazinoartekotzea, barrikuntza, talentua erakartea eta, zelan ez, merkataritza suspertzea bultzatzeko. Azken baten, Bizkaiko enpresa-sarearen biziraupena, hazkundea eta bersortzea sustatzen dogu, % 100 ziur gagozalako gaurko inbersinoa izango dala biharko kalidadeko enpleguaren eta iraunkortasunaren hazia. Gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señor De Luis Zelaia. Y terminado el debate, someteremos la moción a votación. Esperaremos a que todos estemos sentados. Por lo tanto, votos a favor de la moción. Votos en contra. No hay abstenciones.

Por lo tanto, el resultado es el siguiente, en total se han emitido 48 votos. Ha habido 15 votos a favor, 33 en contra, no ha habido abstenciones. Por tanto, no se aprueba la moción.

Punto 8 del orden del día.

El Sr. **SECRETARIO / IDAZKARI** jaunak:

Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

Iniciativa Originaria: Moción derivada de Interpelación ([R.E.11/E/2021/0001093](#))

Autor: Arriola Alzola, Iratxe (EHB)

Asunto: Las medidas adoptadas para mejorar la situación del sector primario.

Documento Principal:

([R.E.11/E/2021/0001093](#))

Expediente: ([11/B/20/0002150](#))

8.- Hurrengo idatziari(ei) buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:

Jatorrizko ekimena: Itaunetik eratorritako Mozinoa ([11/E/2021/0001093SE](#))

Egilea: Arriola Alzola, Iratxe (EHB)

Gaia: Lehen sektorearen egoera hobetzeko neurriak

Dokumentu Nagusia: ([11/E/2021/0001093SE](#))

Espedientea: ([11/B/20/0002150](#))

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Es el turno de la juntera que ha presentado la iniciativa. Por lo tanto, señora Arriola Alzola, tiene usted la palabra.

La Sra. **ARRIOLA ALZOLA** andreak: Sí, buenos días a todos y todas, gracias, señora Presidenta. A la vista de los daños externalizados que causan los sistemas agrarios y alimentarios industriales y los modelos agroexportadores dominantes en el mundo, aquí y allá. Allá, quiero decir, las personas que producen comida para nosotros, es decir, el dumping social que viven en África, Asia y América. Un informe publicado por la FAO en 2014 dice que el 80 % de todos los productos que se producen en el mundo son producidos por pequeños agricultores. Y la mayoría de ellos son mujeres. Por desgracia, también son mujeres las campesinas que viven hambrientas en África, Asia y América. Existe dumping ambiental también en las emisiones de CO2, por todo el CO2 emitido para el transporte de estos alimentos desde los lugares de producción hasta nuestra mesa. Y hay un dumping económico evidente hacia estos países. Porque esas personas, esos hombres y mujeres, no ganan ni un dólar por día. ¿Y eso por qué ocurre? Pues porque son un peón en esta cadena de la alimentación que está mercantilizada. Es decir, los grandes lobbies, las grandes multinacionales controlan toda la

cadena de comida, desde la producción a la distribución, lo que provoca que los mercados no distribuyan o asignen bien la alimentación a las mesas de todos.

Eso allí, ¿y aquí qué? Pues aquí, atendiendo a la situación del sector agrario de Bizkaia, y tal y como vimos el otro día, ha habido una pérdida de empleo clara en el sector primario en dos décadas. Se ha perdido el 43 %, y el terreno utilizado para agricultura y ganadería también ha descendido mucho. En 2009 en Bizkaia se trabajaban o araban 26.007 hectáreas. En 2016, 37.600 ha, a día de hoy todavía menos. Y esto comparando los datos de 2009 y 2016. Hasta 2009 se ha producido una pérdida del 40% desde 1999. Por lo tanto, estos son los datos, el descenso del número de producciones que ha habido en Bizkaia es terrible, y a ello hay que añadir el bajo precio que reciben los baserritarras por su trabajo y la falta de reconocimiento social.

Por lo tanto, teniendo en cuenta todo esto es hora de poner en marcha políticas públicas activas para reactivar el sector primario de Bizkaia, es imprescindible, es el momento de actuar, y eso lo mencionamos en el pacto anterior, y decíamos también, que uno de los ejes del pacto verde en Europa es la estrategia del caserío a la mesa, y que dentro de eso, está el compromiso de que el 25% de los terrenos que se trabajan para 2030 lo hagan en ecológico. En Bizkaia es el 3%, por lo que queda mucho trabajo por hacer.

El plan estratégico europeo, la elaboración de los PDR 2021-27, que se está trabajando en este momento, es la hora de establecer estrategias y acciones prioritarias para responder a las necesidades locales. Y en relación con ello, lo que planteábamos en la moción es que las Juntas Generales de Bizkaia insten a la Diputación Foral de Bizkaia a incorporar en esta nueva planificación, esto es, en la planificación de las ayudas para los próximos 6-7 años, en el plan estratégico, en las fichas del PDR de las mismas, ayudas a pequeñas explotaciones, a los pequeños baserritarras, diversificación como ayudas agroambientales de pequeñas explotaciones, promover la agricultura ecológica, elevación de ICM a topes y, entre otras, trabajar los siguientes criterios en los beneficiarios: jóvenes agricultores, estén o no en el programa Gaztenek; mujeres agricultoras; a igualdad de condiciones dar prioridad a proyectos relacionados con alguna de estas materias, para la comercialización de la agricultura ecológica y a los circuitos de venta directa cortos; a las pequeñas explotaciones; a las que realizan toda la transformación y el circuito de venta para el modelo de producción en el caserío. Y entre los temas a trabajar, priorizar los siguientes: las pequeñas explotaciones tal y como se ha dicho; la transformación artesanal, que es la que se hace en el propio caserío por ejemplo los chorizos elaborados con la carne de los cerdos de casa, o las conservas, mermeladas o verduras.

Y eso está recogido en el artículo 56 de la ley de 2008 de Agricultura y Alimentación. Desgraciadamente todavía no se ha desarrollado.

El establecimiento de circuitos cortos de venta, formación, asesoramiento, información y promoción de marcas de calidad, herramientas e instrumentos necesarios para el fomento de la agricultura agroecológica, y aquí hemos aprobado una enmienda propuesta por el Partido Nacionalista Vasco, que dice hacer todo eso dentro de las competencias locales, etc.

Debo decir que recibí con satisfacción la llamada de Gorka Beitia con relación a esta enmienda. Porque esto supone un gran cambio en el sector primario. La aprobación de esta moción y el desarrollo de lo dicho en la misma supone realmente un cambio de rumbo respecto a las medidas adoptadas por la Diputación Foral de Bizkaia hasta hoy, en las tres últimas décadas. Por lo tanto, no sé si esto es el cambio de timón al que se refería el señor Rementeria, espero que sí, que no sea solo un cambio de caras, sino de políticas públicas, y en este caso un cambio de políticas agrícolas, que es mi verdadera esperanza. Lo dicho. Para mí lo de hoy, y como va hasta el próximo 2007, es un verdadero consenso importante, es un paso, un paso importante. Esperamos poder dar más pasos en esta dirección. Tendrán toda nuestra colaboración, también usted, Amaia Antxustegi, de verdad se lo digo. Porque el sector lo

necesita, porque más no se puede esperar, y porque el camino más largo también empieza a hacerse desde el primer paso, pues hoy es realmente un gran día para el sector primario y para todos los consumidores de Bizkaia. Esperemos que lo dicho en esta moción se lleve a la práctica y quede recogido en esas fichas del PDR. Sin más, muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señora Arriola Alzola. Y los Socialistas Vascos y el grupo Nacionalistas Vascos presentaron una enmienda, como se ha dicho, por lo tanto, es el turno del grupo Socialistas Vascos. Por lo tanto, tiene la palabra el señor Ortiz Zaballa.

El Sr. **ORTIZ ZABALLA** jaunak: Gracias señora Presidenta, buen mediodía a todos. Lehenengo eta behin, diputadu barriei ondo etorria emon gurakao neuskie, eta bigarren, jakina, kargua itxi daben diputaduen lana eskertu.

EH Bildu taldeak aurkeztutako mozino hau daukagu, lehenengo sektorearen egoera hobetzeko hartu beharreko neurriei buruz Euskal Sozialistek eta Euzko Abertzaleek zuzendutakoa. Eskerrik asko, Arriola andrea. Eskerrik asko mozino hau aurkezteagaitik, horri esker Euskal Sozialistok gure babesa eta Bizkaiko lehen sektoreagazko konpromisoa adierazi geinkelako. Baina ez berbakaz bakarrik, baita ekintzakaz be, zuk dinozun moduan. Eta komeni da historia apur bat egitea, testuinguruan kokatzeko.

Hemen daukagu, 2020ko otsailaren 27an aurkeztu zan 2021-2027 Euskadiko Landa Plan Estrategikoa, NPBren jarraibideak kontuan hartuta. Bertan egozan inplikaturako alde guztiak, Eusko Jaurlaritzza, Aldundia, alkarteak, sindikatuak eta abar. Eta plan estrategiko horretan, beste batzuetan esan deusuedan moduan, sektorearen problematika modu globalean jorratzen da, osotzen daben 10 helburuetan ikusi daitekenez.

Lehenengo helburua: errenten eta ustiatgien erresilientziaren gaia jorratzen dau. 2. helburua: sektoreko lehiakortasuna hobetzea. 3. helburua: balio-katean posizioa hobetzea. 4. helburua: klima-aldaketa, ez ahaztu, oso garrantzitsua da. 5. helburua: ingurumena. 6. helburua: paisaia eta biodibertsitatea. 7. helburua: belaunaldi-erreleboa. 8. helburua: landa-garapena: 9. helburua: elikadura eta osasuna. Eta, azkenik, 10. helburuan: ezagutzari heltzen deutso.

Ondo baderitzozu, Osoko Bilkura hau amaitzean dokumentua emongo deusut, zuk eta nik Bizkaiko lehenengo sektorearen alde lan egiten eta garatzen jarraitu ahal izan daigun. Baina, zer gertatzen da? Gertatzen da 2020ko martiaren 16an, hilabete be ez zala igaro plan hori aurkeztu zanetik, eta, pandemia baten ondorioz, Espainiako Gobernuak alarma-egoera ezarri eban, eta egoera barri eta danontzako ezezagun bat sortu zan. Plan horren garapena bertan behera geratu zan, gure egoeraren larriagaitik. Eta Aldundiak zer egin eban, geure buruari galdetzen deusagu. Logikoa denez, Bizkaiko Foru Aldundiak preminazkoari oratu eutsan, lehenengo minututik lehenengo sektoreagaz lanean jarri, talka-neurriak aztertuz, ebaluatuz eta hartuz, Bizkaia aurrera programaren bidez, sektoreari laguntzeko. Neurri zehatzak, adibidez: autonomoentzako eta enpresa txikientzako mikrokredituak erraztea; Manten eta Kontrata programen bidez enplegu-plan bat abian jarri; tokiko produktuen kontsumoa onartuko daben kanpainak egin; BEZaren, PFEZaren eta abarren ordainketa atzeratzeko zerga-neurriak; ekoizleei beren produktuak online saltzen laguntzeko plataformak sortu; internet zonaldeetara eroan, euren bizitza hobetzeko eta, holan, desbardintasanak saihesteko. Azken baten, ikusten dogunez, Aldundiko Gobernu eta barik dabil Bizkaiko lehenengo sektorea babesten, baina, logikoa denez, bere eskumenen barruan.

Ez daigun ahaztu gidalerroak Europatik emon ebezala NPBren bidez, eta bide batez, 2020ko urriaren 21ean, jakingo dozunez, Europar Batasuneko estatu kideek NPB

2021-2027 barriari buruzko akordioa lortu dabela. Tarteko epe bat egongo da, eta 2023ko urtarrilaren lein jarriko da indarrean. Orain, Bizkaiari Europako gidalerroak onartzea besterik ez jaku geratzen.

Eta mozinoaren edukiari berari heldu ezker, Euskal Sozialistok baietz bozkatuko dogu, eta baietz bozkatuko dogu funtsezko errazoi bigaitik. Lehenengoa, eskatzen dana jasota dagoalako NPBn, eta adibide batzuk jarriko deusudaz. Esportazino txikiei laguntza eskatu jake. Bizkaian 600 bat ustiategi aitortuta dagoz, eta 1.200 persona inguru dabil bertan beharren; beraz, batez bestekoa erraza da, bat eta gitxi. Holan, ustiategi txikiei laguntzen jake.

Nekazaritza ekologikoari laguntzeko eskatzen da. Jakina, Europak, gainera, 2030erako erespidea ezarri dau, nekazaritzaren% 25 gitxienez ekologikoa izan daitela, hori be jasota dago. Eta gero, zuk be aitatu dozunez, mendiko konpensazino-indizea igotea nahi dozu. Baina tira, Arriola andrea, nire bestean dakizu hori Europak markatzen dauela, 0 eta 500 bitarteko tartea dago eta gu 297an gagoz. Baina, jakina, ondo ulertu badeutsut, baina niri be ulertuko deustazu Bizkaiko orografia dan modukoa dela, eta oraingoz ezin dogu aldatu.

Horrez ganera, laguntzak emoteko orduan erespide gehiago izatea eskatzen da, hala nola, gazteak, emakumeak, nekazaritza ekologikoa eta ustiategi txikiak. Baina hori errealidade bat da, erespideok honezkeroko gehiago balio dabe laguntzak emoteko orduan. Bai, ez eizu buruagaz holan egin, hori holan da-ta, 2021-2023 NPBn jasota dago.

Eta bigarren, baietz bozkatuko dogu, Euskal Sozialistek eta Euzko Abertzaleek, zuk ondo esan dozun moduan, d) puntua hobetzen dauen hurrengo zuzenketa aurkeztu dogulako, eta EH Bilduk onartu egin dauelako. Hori asko eskertzen dogu, eta irakurri egingo dot, mundu guztiak jakin daian zelan geratzen dan. Zuek esan zenduen: Kultura agroekologikoa bultzatzeko behar diran tresnak eta erremintak biltzea. Eta Euzko Abertzaleek eta Euskal Sozialistek honako hau gehitu dogu: NPBn lantzen diran arauen eta plan estrategikoaren barruan, eta Foru Aldundiaren berezko eskumenak kontuan hartuta. Eta azken hori funtsezkoa da.

Amaitzeko, ikusten dogunez, Aldundia eten barik dabil lehenengo sektorearen egoera hobetzeko neurriak hartzen. Beraz, sektore hau babesten dogula berrestea besterik ez jaku geratzen; eta bigarren, mozinoaren aldeko botoa berrestea. Baina lehen esan deusudan moduan, gure eskumenak zein diran kontuan hartuta beti, eta Nekazaritza Politika Bateratuak markatzen dauela nekazaritza-politika. Nada más, gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias, señor Ortiz Zaballa. A continuación, tiene la palabra el representante del grupo Nacionalistas Vascos, señor Beitia Zurinaga.

El Sr. **BEITIA ZURINAGA** jaunak: Buenos días, buenas tardes, y gracias, señora Presidenta. Bienvenidas las nuevas diputadas, cómo no. Creo que soy el último en decírselo, porque estamos en el último turno.

En este punto estamos hablando de agricultura, y se ha utilizado la agricultura ecológica y otros muchos conceptos. Yo me referiré a la generalidad, la agricultura o el sector primario en su generalidad. Sin renunciar a su particularidad ecológica.

Como se dice en el razonamiento de la moción, este sector primario se encuentra actualmente en una situación delicada en nuestro territorio histórico y en los territorios vecinos, el relevo no está totalmente garantizado, y la explotación tanto por nuestra geografía o nuestro clima, o ambos, no obtienen el beneficio económico que pueden tener en

nuestro territorio o en otros territorios. Este y otros muchos obstáculos y razones nos han llevado a la situación actual.

